


MIBILBIDEA

GIDA BAT KAZETARIENTZAT

Nola informatu gatazkei eta egoera humanitarioei buruz genero-ikuspegiarekin, Palestinako lurralde okupatuaren kasua oinarri hartuta



MIBILBIDEA

GIDA BAT KAZETARIENTZAT

Nola informatu gatazkei eta egoera
humanitarioei buruz genero-ikuspegiarekin,
Palestinako lurralde okupatuaren
kasua oinarri hartuta

Edizioa: UNRWA Euskadi

Metodologia, ikerkuntza eta gida: LolaMora Producciones

Prentsa analisia eta gida testuak: LolaMora eta Pikara Magazine

Irudiak: Susanna Martín

Diseinua eta maketazioa: Señora Milton / Pikara Magazine

ISBN: 978-84-697-5320-0

Bilbo, 2017ko maiatza

www.unrwaeuskadi.org



**GARAPENERAKO
LANKIDETZAREN
EUSKAL AGENTZIA**

**AGENCIA VASCA DE
COOPERACIÓN PARA
EL DESARROLLO**



Edukiak CC-BY-SA (Creative Commons) baimenaren pean argitaratu dira:

Aitortu – EzKomertziala – Partekatuta (by-nc-sa): Ezin da jatorrizko lanaren eta hartatik erator daitezkeen lanen merkataritza-erabilerrak egin. Lan eratorriak banatzeko, jatorrizko lana arautzen duena bezalako lizentzia behar da.

Komunikazio-gida bat da honako hau, gatazkei eta krisi humanitarioei buruzko informazioa genero-ikuspengiarekin lantzeko, Palestinako lurralde okupatuaren kasua oinarri hartuta. M ibilbidea gida akademiko bat da eta hezteko du helburu. **Debekatuta dago gida hau saltzea.**

Argitalpen hau **LolaMora Producciones** elkarteak eta **Pikara Magazine** aldizkariak egin dute UNRWA Euskadirentzat, Emakume palestinarrei eta beraien eskubideei aurpegia ipiniz proiektuaren esparruan, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren laguntza finantzarioarekin.

Egileek argitalpen honetan egiten dituzten azterketek eta adierazten dituzten iritziek ez dute zertan bat egin **UNRWA Euskadiren** eta **Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren** jarrerekin.

LolaMora kazetarien talde bat da, generoaren eta giza eskubideen ikuspegitik informazio kritikoa eta testuinguruan jarria sortzen duena. Haren alde indartsua: munduko hainbat lekutako emakumeen tokiko erakundeekin eta hedabide eta irrati komunitarioen elkarteekin gauzatzen duen elkarlana.

Helburu bikoitza du elkarteak: informatzea eta hezteka, hedabideekin eta hedabideen bidez lan eginez. WorldCom fundazioarekin batera, epe luzeko proiektuak diseinatzen eta gauzatzen dituzte Europan, Afrikan eta Latinoamerikan, informazioa, komunikazioa eta teknologia aldaketarako tresnatzat erabiliz. Multimedia-ekoizpenak, lantegiak, kanpainak, monitorizazioak eta hezkuntza-materialak egiten dituzte.

www.lolamora.net

Pikara Magazine kalitatezko kazetaritza proposatzen duen hedabide bat da (digitala eta urteko edizio bat paperean argitaratzen duena), ikuspegi feministan eta giza eskubideen ikuspegian oinarritua. Masa-hedabideetan nekez azaltzen diren pertsonen eta istorioen ematen die protagonismoa. Gizartearen eta kulturaren alorretako askotariko gaiak lantzen ditu, beste ikuspegi batekin: zorrotza, inklusiboa, konprometitua, hauslea eta atsegina.

EME Komunikazioa elkartearen proiektu bat da. Elkarte horrek, gainera, komunikazioaren eta generoaren inguruko prestakuntza eta aholkularitza ere ematen ditu, eta, ildo horretan, hainbat ekimen gauzatu ditu, hala nola glosario feminista bat zeinu hizkuntzan, jarduera feministen agenda bat, eztabaida-foro bat eta hedabideez gaindiko kazetaritzaren laborategi bat.

www.pikaramagazine.com

AURKIBIDEA

01. NOR GAREN.....	006
02. SARRERA.....	008
03. OBJETIBOTIK KANPO AZTERLANA.....	014
04. INFORMATZEKO BESTE IBILBIDE BATZUK.....	022
1 Ibilbidea. Genero-ikuspegiarekin informatzeko.....	025
2 Ibilbidea. Gatazken eta krisi humanitarioen berri emateko genero-ikuspegiarekin.....	036
3 Ibilbidea. Beste kontaketa batzuk sortzeko eta isilarazitako istorioak kontatzeko.....	059
4 Ibilbidea. Hitzen ibilbidea.....	071
5 Ibilbidea. Irudien ibilbidea.....	079

05. BIDEZIDORRA. EZ AHAZTU...	083
06. GLOSARIOA	085
07. BIBLIOGRAFIA ETA LEGE MAPA	094
08. ERANSKINA: Palestinako lurralde okupatuko egoera humanitarioaren genero-analisia	101
09. ESKERRAK EMATEA	103
10. OHARRAK	108

NOR GARA?

Palestinako Errefuxiatuentzako Nazio Batuen Agentzia (UNRWA) NBeko Batzar Nagusiak 1949an sortu zuen, Palestinako errefuxiatuei laguntza eta babes emateko; hain zuzen ere, gaur egun, 5,2 milioi pertsonari baino gehiagori laguntzen dio.

UNRWArekin eginkizuna da palestinar errefuxiatuei laguntza eta babes ematea Jordanian, Libanon, Sirian, Zisjordanian eta Gazako Zerrendan, haien egoera zailari bidezko konponbidea iritsi zain. Agentziak kanpamentuetan egiten du lan, osasunaren, babesaren, gizarte-zerbitzuen, azpiegituren, mikrofinantzen, laguntza humanitarioaren eta larrialdien arloetan, bai gatazka-garaietan, bai barealdi erlatiboan. Horretarako, Agentziak 900 instalazio baino gehiago kudeatzen ditu. Instalazio horietan, 30.000 pertsona inguruk egiten dute lan, eta horien % 99k Palestinako errefuxiatu estatua du. UNRWArekin ia finantzaketa gehiena estatu kideen borondatezko ekarpenen bidez lortzen da.

UNRWA EUSKADIREN KONPROMISOA


UNRWA Euskadi 2006. urtean sortu zen, funtsezko bi helbururekin: euskal gizarteari Palestinako errefuxiatuen egoeraren berri ematea eta UNRWArekin duela 65 urte baino gehiagoz geroztik egiten duen lan humanitarioa eta babes-lana zabaltzea. Gainera, euskal erakunde publiko zein pribatuen babes bilatzen du, Palestinako errefuxiatuei eskaintzen dizkien zerbitzuei eutsi ahal izateko.

Horretarako, Ekintza Humanitarioa, Garapena eta Garapenerako Hezkuntza, eta Sentsibilizazioa lantzen ditu Euskal Autonomia Erkidegoko hiru lurralde historikoetan. Bigarren arlo horretan, kontzientzia kritikoak suspertzeko, herritarrei eraldaketa sozialerako tresnak emateko eta Palestinako errefuxiatuen egoera humanitario txarraren aurrean euskal gizartearen mobilizazioa bultzatzeko jarduerak egiten ditu. Zeharkako ardatz gisa, erakundeak giza eskubideen sustapenean, nazioarteko zuzenbide humanitarioan, bakearen kulturaren eta genero-berdintasunean oinarrituta betetzen du bere lana.




Zonas de operación

Población por área



Total: 5.741.480

- Jordania
- Líbano
- Siria
- Cisjordania
- Franja de Gaza



12 campamentos
504.376
refugiados

9 campamentos
630.035
refugiados

10 campamentos
2.247.768
refugiados

19 campamentos
970.633
refugiados

8 campamentos
1.388.668
refugiados

Campamento establecido en 1948	Campamento establecido en 1967	Población
		600 - 25,000
		25,000 - 50,000
		50,000 - 110,000

	Checkpoint		Muro completado
	Muro en construcción		Muro planeado

*Excluye refugiados registrados y otras personas registradas por los servicios de UNRWA. Todos los datos están actualizados a enero de 2015.
 *Excluye los refugiados registrados y otras personas registradas por los servicios de UNRWA. Todos los datos están actualizados a enero de 2015.
 *Excluye los refugiados registrados y otras personas registradas por los servicios de UNRWA. Todos los datos están actualizados a enero de 2015.

SARRERA

Gatazkek eta krisi humanitarioek oso eragin desberdina dute gizonengan eta emakumeengan. Normalean, gehiagoko kaltetzen dituzte emakumeak, baita haien parte-hartze soziala, politikoa eta ekonomikoa ere. Batzuetan, hedabideek gatazken eta krisi humanitarioen azalpen partziala eta estereotipatua ematen dute. Arreta handia jartzen dute kopuruetan, eta gertaera historikoen eta intentsitate handiko indarkeriazko jazoeren deskribapenean. Hori dela eta, hedabideen estaldura horren ondorioz, ezin dugu lehen eskutik jakin zer-nolako eragina duten egoera horiek pertsonengan eta, bereziki, emakumeengan.

Palestinaren eta Israelen arteko gatazkaren testuinguruan, eta israel-darrek Palestinako lurraldea okupatu zutenetik igarotako 50 urteetan eta Gazako Zerrenda legez kontra blokeatu zutenetik igarotako 10 urteetan sortutako krisi humanitarioaren ondorioz, palestinar emakumeei buruzko imajinario kolektiboa zenbait gizarte-eragilek, hala nola hedabideek, sustatutako kultura-pertzepzioetan dago oinarrituta. Eta hedabideek zabaltzen dituzten kultura-pertzepzioak orokortzaileak, partzialak eta zehaztugabeak izaten dira. Imajinario horrek, gainera, zenbait genero-estereotiporen eragina du. Eta estereotipo horiek pertsona pasibo, biktima eta bigarren mailakotzat hartzen dituzte emakumeak: alabak, amak edo gatazkek eragindako pertsonen talde homogeneoko kideak.

UNRWA Euskadik ezagutzaren arloko hainbat jarduera eta produktu sortzen ditu 2012. urtetik, Garapenerako Hezkuntzako eta Sentsibilizazioko lanaren bidez, helburutzat harturik euskal gizarteak kontzientzia feminista eta, generoaren ikuspegitik eta giza eskubideak aintzat hartuta, palestinar errefuxiatuen egoerari buruzko ezagutza kritikoa izan dezala. Hedabideak oso eragile garrantzitsuak dira, ezagutza sozializatu, iritzia sorrarazi eta herritarren imajinario kolektiboa eta indibiduala osatzen duten aldetik. Hori dela eta, testuinguru humanitarioei eta gatazkei buruzko informazioa lantzean, genero-ikusegiaren alde egiten du UNRWA Euskadik, estereotipoak desegiten, isilarazitako istorioak agerian jartzen eta herritarrei emakumeen irudi

emantzipatzailea eta estereotiporik gabea ematen laguntzeko, batik bat palestinar emakume errefuxiatuen kasuan.

Hori dela eta, *M ibilbidea* proposatzen dugu, *Gatazkei eta egoera humanitarioei buruz genero-ikuspegiarekin informatzeko gida* gisa, *Palestinako lurralde okupatuaren (Plo-aren)* kasua oinarri hartuta. Kazetarietzat, beste profesional batzuentzat eta etorkizunean askotariko hedabideetan lan egingo duten profesionalentzat egindako gida da. Ekimena UNRWA Euskadik bideratu du, *Emakume palestinarrei eta beraien eskubideei aurpegia ipiniz* Euskadiko proiektuaren esparruan, eta Eusko Jaurlaritzaren 2015eko laguntzarekin eta euskarri finantzarioarekin. LolaMora elkarteak eta Pikara Magazine al-dizkariak egin dute gida, ikuspegi feministan eta genero-ikuspegian oinarritutako kazetaritzari dagokionez dituzten ezagutzak, jakintzak eta esperientzia ardatz hartuta.

ZERGATIK M IBLBIDEA?

Kazetarien funtsezko zeregina da zer gertatzen ari den azaltzea, baina, batik bat, zergatik gertatzen ari den. Gatazkei eta egoera humanitarioei buruzko informazioetan, zenbat pertsona hil diren esatea eta militarren zein gobernuen diskurtsoa errepikatzea baino zerbait gehiago egin behar da. Gatazka bat zergatik gertatzen den uler dezan iritzi publikoak, ezinbestekoa da haren beste alderdi batzuei erreparatzea, hala nola psikosozialari, erlazionalari eta egunerokoari. Hau da, operazio militar batek edo eraso armatu batek pertsona zibilen bizitzari nola eragiten dion azaldu behar da. Baina, horrez gain, bonbak edo tiroak gelditzen direnean eta laguntza humanitarioa eteten denean pertsona horiek zer egoeratan geratzen diren ere kontatu behar da. Are gehiago, ikuspegi historiko egokia eman behar diogu kontakizunari, eta testuinguru oso bat eta androzentrismotik urruntzen den begirada bat ere bai. Gure albisteetan protagonista bakarrak gizonezkoak badira (gizon borrokalaria, gizon politikariak eta gainerako gizonak), emakumeei eragiten dieten indarkeriari buruzko informazio eskasa eta sakabanatua ematen badugu, istorioaren erdiaren berri emango dugu, besterik ez. Kronika belizistarako joeraz gain, gure kazetaritza-kulturak generoarekiko itsukeria ere aztertu behar du.

Gatazka armatuen eta krisi humanitarioen estaldura mediatikoei genero-ikuspegia gehituz gero, emakumeei eta gizonei modu berdinean eragiten dietela azaldu ahal izango dugu. Emakumeak aldaketa-eragile aktiboak dira; jakintza, aliantzak eta sareak partekatzen, eraikitzen eta sortzen dituzte, bakoitza bere egoera sozial, ekonomiko eta kulturaletik abiatuta. Albisteek eta erreportajeek, zabalteko edozein kanal erabiltzen dela ere, aintzat hartu behar dituzte

emakumeen parte-hartzea osotasunean eta zuzen? agerian jartzen duten datu, informazio, irudi eta iturriak ere.

Gertaeren lekutik kalitatezko estaldura egin nahi bada, funtsezkoa da neskaten¹ eta emakumeen arazo zehatzei erreparatzea, haien iritzien berri ematea eta haien iraupen- eta erresistentzia-estrategia partikularrak deskribatzea. Emakumeek, antolatuta egon ala ez, euren ahotsa entzunarazteko eskubidea dute, gizartearen erdia diren aldetik. Kazetaritza-lanbidearen deontologiak istorioak orekaz eta egiatasunez kontatzera behartzen du.

Egiatzatu izan da, masiboki kontsumitzen diren hedabideetan eta sareetan, hitzezko hizkuntzan (idatzizkoan zein ahokozkoan) eta ikus-entzunezko hizkuntzan oraindik ere ikuspegi androzentrista dela nagusi, eta horrek eragotzi egiten du gizonen eta emakumeen aniztasuna adieraztea. Horretarako, gida honen bitartez, informazioa eta albisteak kontatzeko beste modu bat proposatzen da, hizkuntza belikoko topikoak eta gatazken ohiko irudiak alde batera uzteko; alegia, hedabideek eta hedabideen eta kazetarien jardura kopiatzen duten sare sozialek gatazken une larrien (Israelek Palestinako lurralde okupatuan egiten dituen eraso militarren kasuan, adibidez) berri emateko ohiko modutik urruntzeko.

ZERTARAKO BALIO DU GIDA HONEK?

M ibilbideak beste bide bat aurkezten du, gatazkei eta egoera humanitarioei buruzko kontakizunean orain arte *mapatik kanpo* geratu diren galderak egiteko eta istorio, datu, erantzun eta irudiak bilatzeko. Horretarako, palestinarren eta israeldarren arteko gatazka eta Palestinako lurralde okupatuko (Plo-ko) egoera humanitarioa hartu dira erdutzat. Orobat, argitalpen-linearen erabakiak eta informazio-politika aberasteko gogoetak ere ematen ditu; ezinbestean eman beharreko pausoak dira emakumeek hedabideetan duten presentzia orokortu dadin, kazetari bakoitzaren usteen mende egon beharrean.

Kazetaritzaren eguneroko laneko estereotipoen kulturari aurre egiteko, beharrezkoak dira borondatea eta tinkotasuna; kontakizun nagusiari aurre egitea da kontua. Ez da erraza emakumeekin eta neskatuekin lotutako irudiak eta leku komunak baztertzea, edo, gida honetan jorratzen den kasu partikularrean, palestinarren eta israeldarren arteko gatazkarekin lotutakoak. Ez da erraza hain errealitate konplexuei buruz topikorik gabeko informazio-estaldura egitea, eta halakoa da Palestinako lurralde okupatuko (Plo-ko) eguneroko bizitza. Krisi humanitario bat da, eta baita babes-krisi bat ere, israeldarren 50 urteko okupazioaren eta Gazako Zerrendako 10 urteko blokeo sozioekonomiko

¹ Neskatuek eta emakumeek indarkeriaren bi- zipen oso antze-koak dituzte, bai indarkeria-garaie- tan, bai bake-ga- raietan, baina baita desberdinak ere. Neskatuek euren adinarekin lotutako egoera edota abusu espezifikoak jasaten dituzte, emakumei eta mutilikoei eragi- ten ez dietenak; besteak beste: ikasteko aukera desberdina, ezkontza behartu eta goiztiarrak, eta gehiegizko etxeko lanak.

mikoaren ondoren. Gainera, nazioarte mailako dinamikekin lotutako gai geostrategikoek eta politikoez eragin handia dute. Beharrezkoa da prestatzeko denbora eta baliabideak izatea; baina, gehienetan, hedabideek edo kazetari autonomoek (edo *freelancek*) ez dute ez denborarik ez baliabiderik; eta, eraso militar baten edo intentsitate handiko indarkeriazko jazoera baten berri emateko presioa dagoenean, okerrera egiten du egoerak.

Gida honek lan egiteko gakoak ematen dizkie kazetariei, arreta gatazkan edo krisi humanitarioan jartzeko ahaleginaren aitorpenetik abiatuta. Tresna, jarraibide eta arrasto zehatzak eta adibideak azalduko dira, kazetariak genero-ikuspegiak ematen duen ezagutza oso modu praktikoan lortzeko.

ZER HELBURU DU M IBILBIDEAK?

M ibilbideak proposatzen du informazio-estaldurak hobetzea, genero-ikuspegia eta giza eskubideetan oinarritutako ikuspegia gehituz, 1948ko Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalaren 19. artikulua bidez. Artikulu horrek ezartzen du adierazpen-askatasunerako oinarritzko eskubideak barne hartzen duela "ikerketak egiteko eta informazioa eta iritziak mugarik gabe eta edozein adierazpidez jaso eta zabaltzeko" eskubidea. Horrez gain, informazioa jasotzeko eskubidea dago; hau da, informazio egia eta osoa jasotzekoa. Beraz, gida hau giza eskubideetan oinarritutako ikuspegia eta genero-ikuspegia gurutzatzearen emaitza naturala da.

M ibilbideak honetan lagunduko die kazetariei eta hedabideei:

- * Genero-ikuspegiak informazioarekin eta komunikazioarekin — Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalean jasotako eskubide unibertsalak — uztartzean zer ekarpen egiten duen ulertzen.
- * Genero-ikuspegia zehatz-mehatz ulertzen, eta gatazken eta egoera humanitarioen estalduretan erabiltzen.
- * Genero-ikuspegia duten informazioen ezaugarriak identifikatzen.
- * Genero-ikuspegia aintzat hartuta gatazka armatuen eta indarkeriazko egoeren estaldura egin duten hedabideen jardunbide egokiak berri izaten.
- * Gatazka armatuen eta indarkeriaren estaldura mediatikoen jardunbide egokiak identifikatzen, eta estaldura horiek zailtzen dituzten oztupoak ulertzen.

* Larrialdi-egoeretan, gatazkan eta gatazka osteko egoeretan dauden pertsonen giza eskubideen alorreko lege-tresnen eta kontzeptuen mapa lortzen, emakumeen eskubideak eta premia espezifikoak babesten dituztenak nabarmenduz, bai eta, orokorrean errefuxiatuenak eta, bereziki, palestinar errefuxiatuenak ere.

* Testuinguru osoa lortzen, oro har neskatoen eta emakumeen eta, bereziki, palestinar emakumeen eta neskatoen egoera eta arazo espezifikoak ulertzeko, Plo-aren kasu espezifikoan oinarrituta.

GIDAREN EDUKIA

M ibilbidearen hasieran, **Objektibotik kanpo** azterlana aurkeztuko da. 2016an egina, Israelek Palestinako lurralde okupatuan (Plo-an) egindako bi eraso militarrei buruz Euskadin kontsumitzen diren hedabideek eta haietako kazetariak egindako informazio-estaldura aztertu zuen, genero-ikuspegia aintzat hartzen duen kazetaritzaren irizpideei erreparatuz. Eraso militarrek hauek izan ziren: *Berun Urtua operazioa* (2008ko abenduaren 27tik 2009ko urtarrilaren 18ra) eta *Hegi Babesgarria operazioa* (2014ko uztailaren 8tik abuztuaren 26ra). Azterlan horretan lortutako ondorioak dira gida honen ardatz nagusia zehazteko abiapuntua: premiazkoa eta beharrezkoa da kazetaritzak genero-ikuspegia aintzat hartzea gatazken eta krisi humanitarioen berri ematean.

Ondoren, bost ibilbide azaltzen dira, idatzizko eta ikus-entzunezko hedabideek gatazka armatuak eta indarkeria genero-ikuspegiarekin jorratzeko baliagarriak. Ibilbideak independenteak dira bata bestearekin, baina osagarriak. Horri esker, kazetari bakoitzak zer ibilbiderekin hasi nahi duen aukera dezake, eta aurrera eta atzera egin, egoera, behar, ahulezia eta jakinguren arabera.

1. ibilbidea informazio-estalduraren planteamendua da; alegia, zer elementuk osatzen duten genero-ikuspegia informazio batean eta lehen urratsak zein diren, ikuspegi horretan oinarrituta informatzeko.

2. ibilbideak ekintzara nola pasatu azaltzen du; hau da, nola ematen den gatazken, krisi humanitarioen eta indarkeriaren berri, genero-ikuspegia aintzat hartuta.

3. Ibilbideak kontatzeko modu berriak nola pentsatu eta erregistratu (grabatu, filmatu, idatzi) azaltzen du, eta isilarazitako istorioak nola kontatu.

4. ibilbidea *Hitzen Ibilbidea* da, eta idatzizko eta ahozko hizkuntza egoki erabiltzeko jarraibideak ematen ditu.

5. ibilbidea *Irudien Ibilbidea* da, eta irudiak nola filmatu, editatu eta landu azaltzen du, gomendio zehatzak emanez. Ibilbide guztien amaiera da **Bidezidorra**. *Ez ahaztu...* gidan azaldutako jarraibideen eta tresnen zerrenda laburra da. Horri esker, begiratu batean ikus daitezke gatazken eta krisi humanitarioen informazio-estaldura genero-ikuspegiarekin egitean ezinbestean aintzat hartu beharreko jarraibiderik garrantzitsuenak.

Ibilbideak osatzeko, **Glosarioa** eta **Lege- eta bibliografia-mapa** proposatzen dira, gidan azaltzen diren kontzeptuak eta hitzak gogorarazteko, ezagutu eta aintzatestekoak baitira genero-ikuspegia aintzat hartzen duen kazetaritzaren produkzio-bidean. Gainera, txostenak, azterlanak, nazioarteko tratatuak eta Interneteko baliabideak ematen dira, informazio zehatzagoa lortzeko. Amaitzeko, gidaren azterketa-xedeari (Palestinako lurralde okupatuari) buruzko informazioa ematen duten zenbait eranskin daude.

OBJEKTIBOTIK KANPO AZTERLANA

Gida hau egin aurretik, Euskadin kontsumitzen diren hedabideek eta haietako kazetariak Palestinako lurralde okupatuan (Plo-n) behin eta berriz gertatzen diren krisi belikoei eta humanitarioei buruz egindako informazio-estaldura aztertu zen, genero-ikuspegiaren begirada kritikoa erabiliz.

Lehenengo eta behin, Israelek Gazako Zerrendan egindako bi erasoren kazetaritza-estalduren edukia aztertu zen. Hauek izan ziren erasoak: *Berun Urtua operazioa* (2008ko abenduaren 27tik 2009ko urtarrilaren 18ra) eta *Hegi Babesgarria operazioa* (2014ko uztailaren 8tik abuztuaren 26ra). Jakina, kazetaritzak Nazio Batuen printzipioak (gizatasuna, inpartzialtasuna, neutraltasuna, independentzia, zintzotasuna eta aniztasunarekiko errespetua) errespetatu behar dituela babesten da gida honetan. Hala ere, bi eraso militar, hots, bi une beliko, aukeratzea erabaki zen, prozesatzeko eta aztertzeko moduko lagin kontzentratu bat (denboraldi labur batekoa) jasotzeko modua baitzen.

Guztira, 1.107 informazio-pieza aztertu ziren: eguneroko prentsa digitaleko (lineako) 419 pieza, telebistako 154 pieza eta 534 txio. Hedabide hauek aztertu dira: El País, El Mundo, El Correo, Berria, Noticias de Gipuzkoa, EITB, TVE eta Telecinco.

EDUKI-AZTERKETAREN EMAITZA KUANTITATIBOAK

Azterketa horretan, adierazle hauek aztertu ziren: albisteetako aktore

nagusien rola; informazio-iturririk erabilienak; idatzizko eta ikus-entzunezko hizkuntza; eta kazetaritza-kontakizuna, hau da, aztertutako erasoen testuingurua, kausak eta ondorioak deskribatzeko modua. Bigarrenik, *elkarrizketa sakon* bana egin zitzairen hiru kazetariri, bi emakumeri eta gizon bati, gatazka armatuen berri emateko ohitura profesionalen inguruko adierazleak lortu eta informazioa alderatzeko, *sensemaker*² metodoaren bidez.

ALBISTEAREN TESTUETAN AKTORE ETA ITURRI GISA AIPATUTAKO SUBJEKTUAK

Lehenengo eta behin, idatzizko prentsan eta telebistan aztertutako albiste guztietan emakumeak eta gizonak zenbat aldiz agertzen diren alderatu da, kontuan izan gabe subjektu, aktore nazional, nazioarteko aktore edo iturri gisa aipatzen diren.

	GIZONAK	EMAKUMEAK
PRENTSA	840	272
TB	528	194

1. taula. Emakumeak eta gizonak zenbat aldiz ageri diren aztertutako albisteetan (egileek egina).

ALBISTEAREN HELBURUA: ROLAK GATAZKAN

Aztertutako piezetako irudietan ageri diren pertsonen % 30 emakumeak dira, eta gainerako % 70a gizonak. Datu hori ia guztiz dator bat emakumeek albisteen subjektu gisa Espainiako hedabideen albisteetan duten presentziarekin (% 29koa), Hedabideen Monitorizazio Orokorraren Proiektuak 2015ean egindako azterketaren arabera³. Israeldar emakumeak hutsalak dira ia Mendebaldeko hedabideentzat. Palestinar emakumeak kasu hauetan soilik dira garrantzitsuak: ama edo biktima badira. Atzerritar emakumeak ere ageri dira hedabideetan, baina Libanon, Madrilan, Londresen edo Washingtonen okupazioaren aurkako manifestazioetan parte hartu badute eta giza eskubideen defendatzaile gazteak badira. Datu hori xehatuta, garrantzitsua da esatea palestinar gizon gehienak biktima gisa agertzen direla; israeldar gizon gehienak, berriz, borrokalari edo militar moduan. Orobat, gatazkaren erakunde eragileak ere aztertu ziren, eta ondorioztatu zen bai Palestinako zein Israelgo agintariak bai nazioarteko aktoreak gizonak direla gehienbat. Goi-mailako politikan, emakumeak salbuespenak dira, argi eta garbi. Hain zuzen ere, salbuespen horietako bat Tizpi Livni izan zen; Israelgo Kanpo Arazoetako ministroa izan zen Berun Urtua operazioan zehar, 2008 eta 2009 bitartean.

² Gognitive Edge
<http://cognitive-edge.com/sensemaker/>

³ Kristau Komunikaziorako Munduko Elkarte (WACC, World Association for Christian Communication): Nor ageri da albistee-tan? Hedabideen Monitorizazio Orokorraren 2015eko Proiektua, 2015eko azaroa. Hemen eskura daiteke, gaztelaniaz: http://cdn.agilitycms.com/who-makes-the-news/Imported/reports_2015/global/gmmp_global_report_es.pdf

	GIZONAK	EMAKUMEAK
PRENTSA	800	352
Biktima	214	100
Borrokalaria	177	0
Ama edo aita zaintzailea	37	26
Giza eskubideen defendatzailea	37	16
Analista aditua	95	10
Politikaria	246	51
TB	528	194
Biktima	117	92
Borrokalaria	77	1
Ama edo aita zaintzailea	23	37
Giza eskubideen defendatzailea	17	4
Analista aditua	14	2
Politikaria	49	4

4 Indarkeriaren *continuum*a emakumeek historikoki eta etengabe jasandako indarkeriari eta diskriminazioari dagokie. Gida honetan, aurrerago, kontzeptua argituko da, adibideak emanez, eta oraindik ere genero-indarkeriaren *continuum*az zergatik hitz egiten dugun azalduko da.

2. taula. Emakumeak eta gizonak zenbat aldiz ageri diren argazkietan, gatazkan duten rolaren arabera, aztertutako albisteetan (egileek egina).

GATAZKAREN TESTUINGURUA ETA KAUSAK

Bi erasoei buruzko eguneroko albisteetan ez da ematen gatazka kronifikatu horren alderdi historikoa ulertzen laguntzen duen daturik; eta are gutxiago emakumeek jasaten duten indarkeriaren *continuum*-ari buruzko daturik⁴. Informazioetan ez zen daturik aurkitu israeldarrek Gazako Zerrendan egindako eraso militarrek emakumeengan eta neskatoengan izan zuten eragin espezifikoari buruz, ezta emakumeen giza eskubideen atzerakadaren arazoari buruz. Gainera, ez zen azaltzen genero-mandatuak zer-nolako eragina zuten gizonengan, esate baterako borrokalarien rolean.

Azterketatik ondoriozta daitekeenez, argitaratutako albisteek ez zuten aipatu gizarte zibilak proposatutako konponbiderik. Halaber, ez dugu aurkitu palestinar edo israeldar emakumeek gauzatutako bake-ekimenei buruzko informazio-piezarik, salbuespen batekin: EITBren pieza batek bakearen alde lan egiten duten gizarte zibileko

emakumeen elkarteak aipatu zituen. Bestalde, ez dira nazioarteko tratatuak Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioko (NZHko) iturriak aipatzen, ezta giza eskubideen arloko beste iturri batzuk ere, hala nola CEDAW⁵ eta Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluaren 1325. ebazpena (NBSKE)⁶, “Emakumeak, Bakea eta Segurtasuna”, eta 2122. ebazpena (NBSKE)⁷.

ALBISTEAREN ITURRIAK

Emakumeak gizonak baino askoz gutxiagotan dira albistearen iturri; hain zuzen, iturriak aipatzen direnean, % 14 izaten da palestinar edo israeldar emakume bat. Kazetariak emakumeei galdetzen dietenean, biktimak edo lekukoak direlako galdetzen diete gehienetan. Gutxiagotan, gatazkako aktore nagusiak (politikariak edo liderrak) direlako galdetzen diete, eta, askoz gutxiagotan, gaian adituak direlako. Horrek ez du batere zentzurik palestinar emakumeen errealitatea kontuan hartuta; izan ere, emakume horiek prestakuntza- eta konpromiso-maila handiak dituzte, gizarte zibilaren kideak diren aldetik. Emakumeak ez daude behar bezala ordezkaturik erabaki-esparru publikoetan (ikus 3. Ibilbideko datuak), baina, gainera, hedabideek areagotu egiten dute pertzepzio hori, deformatu egiten dute. Bestalde, gizonen biktimak (batez ere) eta lekukoak direnean ere galdetzen bazaie ere, aditu eta aktore gisa ere galdetzen zaie; horrek areagotu egiten ditu lehen kontraste bidez aipatutako datuak. Zehatz-mehatz:

5 CEDAW: Emakumeen kontrako indarkeria desagerrarazteko hitzarmena, NBERen Batzar Nagusiak 1993an onartua. Hemen lor daiteke: <http://www.un.org/womenwatch/daw/cedaw/text/sconvention.htm>

6 1325. ebazpena, 2000ko urriaren 31koa. Hemen eskura daiteke: [http://www.un.org/es/comun/docs/?symbol=S/RES/1325%20\(2000\)](http://www.un.org/es/comun/docs/?symbol=S/RES/1325%20(2000))

7 2122. ebazpena, 2013koa. Hemen lor daiteke: [http://www.un.org/es/comun/docs/?symbol=S/RES/2122\(2013\)](http://www.un.org/es/comun/docs/?symbol=S/RES/2122(2013))

	GIZONAK	EMAKUMEAK
PRENTSA	103	28
Biktima	16	12
Lekukoa	22	6
Aktorea	48	6
Aditua	17	4
TB	103	38
Biktima	38	12
Lekukoa	24	19
Aktorea	21	4
Aditua	20	3

3. taula. Zenbat aldiz aipatzen diren emakumeak eta gizonak iturri gisa, kategoriaren arabera (egileek egina).

IRUDIAK

Irudien erabileran ere, emakumeak ikusezin bihurtu dira. Prentsan azter-tutako 1.152 argazkitatik, 352 argazkitan soilik ageri dira edozein adine-tako emakume palestinar edo israeldarrak. Bestalde, 371 telebista-har-tualditan agertzen dira edozein adinetako emakume palestinar edo israeldarrak; gizonen kasuan, 701 hartualdi dira. Baina nola eta non dago adierazita emakumeen % 30 hori? Israeldar zein palestinar emakumeak ez dira ia agertzen, antolatzen diren, egitura politikoetako kideak diren edo negoziazio-mahaietan parte hartzen duten herritar gisa. Gainera, palesti-narren kasuan, beste rol bat erakusten zaigu behin eta berriz: ama zain-tzailearena eta, azken batean, borrokariaren amarena. Bestalde, *hijab* jantziak zenbait gizartetan duen karga sinbolikoaren ondorioz, beloa edo zapia jantzita duen palestinar emakume baten irudiak mendeko rol bat iradokitzen digu. Palestinar gizonen irudikapen-logika nagusia biktima-rena da. Haien kasuan, ohikoa da zaintzaile gisa ikustea; izan ere, besotan hilda edo zaurituta dagoen ume bat daraman gizonaren irudia behin eta berrir errepikatzen da, eta horrek errealitatea deformatzen du, zalan-tzan jartzen baitu nork zaintzen dituen seme-alabak. Asko ikusten dugun beste irudi bat gizon borrokari edo militarrena da, edo gizon militante edota politikariarena. Taula honetan, gizonak eta emakumeak irudietan erakusteko moduen arteko desberdintasunak ikusiko ditugu.

	GIZONAK	EMAKUMEAK
PRENTSA	800	352
Ama/aita edo senarra/emaztea	12	32
Musulman tradizionala	8	73
Borrokalaria	82	10
Politikaria/langilea	102	14
Biktima	220	124
TB	701	371
Ama/aita edo senarra/emaztea	41	42
Musulman tradizionala	34	67
Borrokalaria	94	3
Politikaria/langilea	88	18
Biktima	171	97

4. taula. Zenbat aldiz ageri diren emakumeak eta gizonak albistean, rolaren arabera, aztertutako albiste guztietan (egileek egina).

EMAITZA KUALITATIBOAK

Monitorizatutako hedabideetan argitaratzen duten hiru kazetari-iei egindako elkarrizketa sakonetan, informazio-agenda aldatu eta kazetaritza-lanean genero-ikuspegia sartu beharra sentitzen dutela nabarmentzen da. Azterlanak agerian utzi du kezka bat dagoela, kazetaritza-lanbidean sexismoak bere horretan jarraitzen duelako. Hala ere, azterketa kualitatiboak erakusten du kazetari bakoitzak bere modura ulertzen duela genero-ikuspegia eta, hortaz, arbitrariotasunez erabiltzen duela. Horrek agerian jartzen du hedabideek argitalpen-konpromisoak eta kazetaritza-ohiturak hartu beharko lituzketela, eta euren langileei zabaldu.

8 Azterlanerako elkarrizketatutako kazetari-
—Fran Sevilla,
Isabel Pérez eta
Samara Velte—
erantzunak eta
iruzkinak ipini
dira komatxo
arte.

Elkarrizketatutako pertsonen kazetaritza-lana genero-ikuspegiarekin egiteko aitortzen dituzten mugak⁸:

* **Erredakzio-taldearen logika.** «Batzuetan, gatazka baten berri eman behar duzunean, ez dakizu ezer hari buruz, eta urrutitik egin beharreko lana oso handia da: kalitatezko informazioa bereiztea, iturriak...».

* **Baliabide-eskasia.** Baliabide gutxi dituzten egunkari-
en erritmoa dela eta, ezin dira denboran luzatzen diren gaiak landu.

* Korrespontsalen eta berriemaile berezien arteko **lehiakortasun-giroa.**

* **Gatazken hierarkizazioa.** Gatazka armatuak hierarkizatuta daude, eta, gatazka bakoitzean, argi dago zer hartzen den albistetzat eta zer ez. Esaterako: «"Islamiar estatuko buruzagia hil egin dute". Zergatik da hori garrantzitsuagoa unean bertan gertatzen ari dena baino? (...)Gatazka armatu baten erdian zaude, udako gaia da, eta zuk "Trans identitatea Palestinan" gaiari buruz idaztea proposatzen duzu. Bada, jakina, "Benetan? Hori da orain garrantzitsuena?" pentsatuz begiratuko dizute».

* **Emakume gutxi erantzukizun- eta bozeramaile-postuetan.** «Politikako norbaiti elkarrizketa egin nahi diozun bakoitzean, gizonak dira ia beti, ez dakit nongo enbaxadoreak eta abar».

* **Genero-ikuspegia** gai zehatzetara (abortura, sexualitatera) mugatzeko joera. Kazetari-
iek aitortzen dute ez dakitela ikuspegi hori nola landu zeharka; adibidez: «Nola azaldu Bruselako goi-bilera ekonomiko-
a genero-ikuspegia kontuan hartuta? (...) Nola hitz egin mundu guztiaren ahotan dabilenari buruz, baina genero-ikuspegiarekin?».

* **Zuzendaritzaren eta gizon kazetari gehienek kontzientzia-zio- eta konpromiso-eza.** Genero-ikuspegiak emakume kazetariak dagoeneko lantzen dituzten gai jakin batzuk hartzen dituela uste da. Erredakzioetan ez da genero-ikuspegia zeharka lantzeko moduari buruz eztabaidatzen: «Ez dugu hausnartu zer egin dezakegun, garrantzitsutzat hartzen dugun albistea genero-ikuspegiarekin lantzeko, aparteko erreportaje bat egin gabe: “Irango egoera” eta behean “Irango emakumeen egoera”. Ez dadila hori izan».

* **Genero-gaiak alde batera uztea.** Emakumeen egoera espezifikoak lantzen duten gaiak Gizartea atalera bideratzen dira, Nazioartea edo Politika ataletan sartu beharrean.

* **Gatazkei buruzko ikuspegi murriztua.** Ikuspegi belizista da nagusi, eta hori bat dator gizonezko protagonistaren ideiarekin. «Nire ustez, gatazkak zabalagoak direla ulertzen hasten bagara, beste protagonista batzuk ere hartuko ditugu kontuan, eta hitz nagusiak porrota, kolpea, arma, biztanlea eta etsaia dituen trama nagusia alde batera utzi ahal izango dugu».

* **Diskurtso feminista duten testigantzak aurkitzeko zailtasuna.**

* **Zenbait iturri erabiltzeko joera.** Emakume-elkarteengana jotzen denean, emakumeen eskubideei buruz galdetzeko da.

AZTERLANAREN ONDORIOAK

1. Aztertutako erasoen estalduran, hedabideek erasoen ondoriozko suntsipenean jarri zuten arreta, azken hamarkadetan eguneroko bizitzaren baldintza orokorrek pixkanaka okerrera egin dutela aipatu gabe.

2. Aztertutako erasoen estaldura etenduna eta azalekoa izan da hedabideen aldetik, eta, horren ondorioz, irudi lausoa sortu da palestinar biztanleen eguneroko arazoaren gainean. Ez da daturik ematen, ez gatazka kronifikatu horren dimentsio historikoa ulertzeko, ez Palestinako lurraldearen okupazioaren eta Gazako Zerrendako blokeoaren ondorioz sortutako egoera humanitarioa aintzat hartzeko.

3. Aztertutako estaldurek ez dute genero-ikuspeirik. Ez dira palestinar emakumeen eta neskatoen giza eskubideen egoeraz arduratzen, eta ez dute Plo-n jasaten duten indarkeria-continuumaren berri ematen.

4. Aztertutako estaldurek feminitate eta maskulinitate eredu hegemoni-

koak berresten dituzte, palestinar emakumeak biktima babesgabe gisa soilik erakusten baitituzte, eta ez aktore politiko edo aldaketa-eragile gisa. Israeldar emakumeak ez dira existitzen —ia ez dira aztertutako albisteetan azaltzen—, edo masa informe moduan hartzen dira. Emakumeek gatazkan duten zeregina itxuraldatuta geratzen da, rol guztien gainetik familia-buruarena, amarena eta biktimarena lehenesten dira eta. Halaber, emakumeek giza eskubideen defentsan edo komunitate-lanean egiten dutena ere ez da erakusten.

Bi eraso militarren estaldura mediatikoa aztertu ondoren, ondoriozta dezakegu **premiatzkoa eta beharrezkoa dela kazetaritzak genero-ikuspegia aintzat hartzea, gatazken eta krisi humanitarioen berri ematean. Hona hemen arrazoiak:**

- * Albisteak kontatzeko beste modu bat ematen duelako, jarraibide patriarkal nagusia albo batera utzita.
- * Gertaerak eta fenomenoak oreka handiagoz ikertzen dituelako (esaterako, sexu-indarkeriaren eragina errefuxiatuak diren edo Palestina barruan lekualdatzera behartuak izan diren emakumeengan).
- * Indarkeriazko krisi bakoitzak emakumeei nola eragiten dien eta arlo horretan gizonekiko zer alde dauden azaltzen duelako. Bereziki premiatzkoa da azaltzea horrek zer inpaktu humanitario duen eta genero-harremanetan zer eragin duen.
- * Hedabideen agendan beste gai batzuk sartzen dituelako (esate baterako, arma kopuruak etxeko indarkeriaren hazkundean duen eragina, pobrezia feminizazioa nekazaritza-eskualdeetan eta abar).
- * Giza eskubideekiko eta, bereziki, emakumeen giza eskubideekiko kontzientzia kritikoa eta mobilizazio soziala eragiten dituelako.

INFORMATZEKO BESTE IBILBIDE BATZUK

ZER DA GENERO-IKUSPEGIDUN INFORMAZIOA?

Honako ezaugarri hauek dituen:

- * Iturri eta istorio egokiagoak aukeratzen ditu, informazioetan emakumeak eta gizonak era orekatuan agertzeko.
- * Emakumeen eta gizonen araberako irudikapenak egiten ditu, genero-estereotipoak erabiltzeari utziz.
- * Hizkuntza ez-sexista erabiltzen du.
- * Genero-estereotipoak indartzen ez dituzten irudiak erabiltzen ditu.

Genero-ikuspegia duen komunikazioak hedabideetan (erredakzioetan eta argitalpen-batzordeetan zein administrazioetan eta zuzendaritza nagusietan) nagusi den joera desagerrarazi nahi du, emakumeen eta neskatoen bizitzan, iritzien eta kezken errealitatea itxuraldatzeko joera, alegia. Itxuraldaketa hori hedabideetan aspaldi-aspaldikoak diren dinamika batzuen ondorio da:

- * **Ikusezin bihurtzea.** Emakumeak ez dira albisteetan ageri, edo haiei buruzko informazio garrantzitsua ezkutatzen da.
- * **Hutsaltzea.** Emakumeak barregarri uzten dira, eta haien iritzia hutsaldu egiten dira. Adibidez, albistea emakume baten bizitza pribatura mugatzen denean, haren rol profesionala alde batera utzita.
- * **Neurri bikoitza.** Emakumeen kasuan, beste neurri bat erabiltzen da. Esate baterako, giza eskubideak babesten dituzten emakumeek generoarekin lotutako kritikak jasotzen dituztenean, eta ez egiten duten lanarekin lotutakoak.
- * **Errua egozte.** Jasandako erasoen ardura emakumeei egozten zaie. Sexu-jazarpenaren eta sexu-krimenen emakumezko biktima asko lotsarazi eta errudun bihurtzen dituzte hedabideek, esate baterako haien jarrera edo janzkera nabarmentzen dituztenean.
- * **Objektu bihurtzea.** Hedabideek objektuak balira bezala tratatzen di-

tuzte emakumeak. Adibidez, pertsonen salerosketari buruzko artikuluetan, emakumeen irudi sexualizatuak erabiltzen dira ia beti. Eskuarki, irudi horiek ez dute artikuluekin zerikusirik, eta emakumea gizarte-ekintza-ren objektua, eta ez subjektua, delako ideia indartzen dute.

Joera hori aldatzeko, **genero-ikuspegian oinarritutako komunikazioak** hau bilatzea proposatzen die kazetariei:

**Ikusgaitasuna – Aintzatespena – Neurri bakarra –
Erantzukizuna – Subjektibizazioa**

NOLA NABIGATU GIDAN ZEHAR

Jarraian, bost ibilbide aurkeztuko ditugu, genero-ikuspegian oinarritutako informazio-estaldurak proposatzen eta egiten laguntzeko. Ibilbide horietan, etika eta genero-ikuspegia aintzat hartuko dituzten informazio-estaldurak egiteko jarraibide zehatzak ematen dira, baita jarraibide horiek erabiltzeko ariketa praktikoak ere. Ibilbideak autonomoak baina osagarriak dira, eta, beraz, gida hau erabiltzen duten pertsonak eta profesionalek nahierara nabiga dezakete haietan zehar, euren beharren, ahulezien eta jakinguraren arabera. Hona hemen ibilbideak:

1. IBILBIDEA. GENERO-IKUSPEGIAREKIN INFORMATZEKO. Gatazka-testuinguruetan eta krisi humanitario kronikoetan informazioa genero-ikuspegiarekin bilatzen hasteko pausoak, informazio-produkzio bat (preprodukzioa) dokumentatzeko eta prestatzeko fasea egite aldera. Hiru etapa ditu:

- * 1. etapa: informazio-produkzioa **proposatzea**.
- * 2. etapa: dokumentazio-prozesua **egitea**.
- * 3. etapa: istorioetan genero-ikuspegia **egiaztatzea**.

2. IBILBIDEA. GENERO-IKUSPEGIAREKIN EMATEKO GATAZKEN ETA KRISI HUMANITARIOEN BERRI. Ibilbide honek lau etapa ditu, eta bakoitzak egungo kazetaritza konbentzionalak bere informazio-estalduretan aurkitzen dituen tranpak saihesteko helburua du. Tranpa horiek zein diren azaltzen da, baita nola saihestu daitezkeen eta genero-ikuspegia bermatzeko aukerak zein diren ere. Ibilbide honek kazetaritza propositibo bat proposatzen du, genero-ikuspegia barne hartzen duen informazio-agenda duena. Hauek dira lau etapok:

- * 1. etapa: bakera bideratutako informazio-**estaldurak**, genero-ikuspegian oinarrituak.

- * 2. etapa: gizarte zibilera bideratutako informazio-**estaldurak**, genero-ikuspegian oinarrituak.
- * 3. etapa: gatazkaren konponbidera bideratutako informazio-**estaldurak**, genero-ikuspegian oinarrituak.
- * 4. etapa: egiaira bideratutako informazio-**estaldurak**, genero-ikuspegian oinarrituak.

3. IBILBIDEA. BESTE KONTAKETA BATZUK SORTZEKO ETA ISILARAZITAKO ISTORIOAK KONTATZEKO. Ibilbide honek aukera ematen du idatzizko eta ikus-entzunezko beste kontakizun batzuk sortzeko, indarkeriari, gatazkari eta krisi humanitarioei buruzko beste istorio batzuk (batzuetan isilarazitakoak, kontatu gabeak) bilatzeko eta kontatzeko. Hau da, nagusia ez den beste kontakizun bat ematen zaio publikoari, askotariko istorio ikusezinak agerian jartzen dituen. Bost etapa daude:

- * 1. etapa: kontakizun errazetatik **ihes egitea**.
- * 2. etapa: kontakizun nagusiak **saihestea**.
- * 3. etapa: isilarazitako istorioak **bilatzea** eta kontatzea.
- * 4. etapa: isilarazitako istorioen testigantzak **erregistratzea**.
- * 5. etapa: gatazka kronifikatu bateko eguneroko bizitzaren **berri ematea**.

4. IBILBIDEA. HITZEN IBILBIDEA. Idatzizko eta ahozko hizkuntza egoki erabiltzeko jarraibideak ematen ditu. Lau etapa ditu:

- * 1. etapa: hizkuntza ez-sexistaren erabileraren defentsa arrazoitua eza-gutzea.
- * 2. etapa: hizkuntza maskulino generikoa saihesteko formulak erabiltzea.
- * 3. etapa: hizkuntza sexistaren beste akatsak eza-gutzea eta saihestea.
- * 4. etapa: hizkuntza inklusiboa erabiltzea.

5. IBILBIDEA. IRUDIEN IBILBIDEA. Irudiak nola filmatu, editatu eta landu azaltzen du, gomendio zehatzak emanez.

- * 1. etapa: genero-ikuspegia aintzat hartuta filmatzea eta argazkiak ateratzea.
- * 2. etapa: estaldura prestatzea.

BIDEZIDORRA. EZ AHAZTU... Tresnen zerrenda labur bat da, begiratu batean ikusteko zein diren gatazken eta krisi humanitarioen informazio-estaldura genero-ikuspegiarekin egitean ezinbestean aintzat hartu beharreko jarraibiderik garrantzitsuenak.

Gida honetako galderei eta hausnarketei erantzuteko, ibilbide guztietan zehar lasai nabigatzea gomendatzen dugu (Hantxe daude galdera guztien erantzunak!).

1 IBILBIDEA

GENERO- IKUSPEGIAREKIN INFORMATZEKO



Noiz edo noiz, gizarte-oztopoak gainditu dituen edo bere rolen aurrean amore emateari utzi dion emakume bati buruzko albisteak jaso eta hedabide bati eskaintzean, ez didate onartu. Telebistan, adibidez, programazio-parrilla beteta zegoela esan zidaten behin. Beste batean, zientzialari gazte batzuek bekak lortu zituzten Estatu Batuetara enpresa garrantzitsuetan praktikak egitera joateko. Israelek, ordea, ez zien Gazatik irteteko baimenik eman. Haiei buruzko istorio bat proposatu nuen, baina egunkariak esan zidan, irtete-debekuari buruzko albiste asko eginda zituenez, istorio horrek ez zuela merezi. Dirudienez, beti dago ezetz esateko arrazoren bat; gaia bera izango ez balitz bezala, beste arrazoi bat baizik. Hedabideek gero eta interes handiagoa dute ahaldundutako emakumeei buruzko istorioetan; baina hor dago arazoa: emakume indartsuak soilik nahi dituzte, horrek saltzen duelako. Nire ustez, maskulinorako joera dago kazetaritzan. Nire ustez, beti sartu beharko genuke genero-ikuspegia; ni ikasten ari naiz oraindik, eta erabiltzen saiatzen naiz.

Isabel Pérez, freelance kazetaria, Gazako Zerrendan bizi dena.



1 IBILBIDEAn, gatazka-testuinguruetan eta krisi humanitario kronikoetan **informazioa genero-ikuspegiarekin bilatzen** hasteko pausoak ematen dira, informazio-produkzio bat (pre-produkzioa) **dokumentatzeko eta prestatzeko fasea** egite aldera. Ibilbide horrek hiru etapa ditu:

1. ETAPA: INFORMAZIO PRODUKZIOA PROPOSATZEA

Kazetaritza-lan bat proposatu aurretik, gaia eta haren ingurunea ezagutzea da lehen urratsa: **produkzioa dokumentatzeko eta planifikatzeko etapa** da, dela artikulatu bat, dela erreportaje sorta bat, dela telebistarako dokumental bat. Jarraian, zenbait urrats proposatzen dira, **gatazka edo gertaera puntual batean sexuaren eta generoaren arabera desberdintasunak bilatzen** ikasteko, eta, horri esker, gatazka hori ikuspegi zabalago batetik kontatzeko, eta emakumeak eta neskatok ikusgai egiteko.

	JARDUERA	HELBURUA
1. URRATSA	Aurrekariak bilatzea	Egoeraren ikuspegi orokorra izateko, ezinbestekoa da istorioa ezagutzea, gatazkaren une historikorik garrantzitsuenak behintzat. Palestinako lurralde okupatuaren kasuan, gomendatzen da palestinar emakumeen mugimenduaren eta palestinar emakumeek Palestinaren eta Israelen arteko gatazkan eta negoziazio politikoetan duten rola hurbilketa historikoa egitea.
2. URRATSA	Gatazkak eta haien kausak identifikatzea	Gatazka bat elkarrekin lotutako zenbait gatazkaren eta haien bilakaeraren batura da beti. Ikertu mini edo mikrogatazka horietako bakoitzaren kausak, eta aztertu zer-nolako eragina (ondorioak) duten gizonen bizitzan eta emakumeen bizitzan. Adibidea: Gazako Zerrendako okupazioaren eta blokeoaren ondorioz, emakumeak ezin dira euren nekazaritza-produktuak saltzera irten, eta, beraz, ezin dira pobreziatik atera. Egia ala faltsua? Benetako gatazka bat da ala ez? Pentsatu hori berez gatazka bat den, eta erantzun: ...

2. URRATSA	Gatazkak eta haien kausak identifikatzea	... Norentzat da arazo bat? Emakumeentzat soilik? Zergatik? Eta saiatu galdera hauetara ere erantzuten: Zergatik sortu da gatazka hori? Eta zer kausa-ondorio erlazio du matxismoarekin? Albo-gatazka bat ala gatazka nagusi bat da emakumeen bizitzan? Informazio berria eman dezake palestinarren eta israeldarren arteko gatazkaren estaldura orokorrean?
3. URRATSA	Kausa eta ondorioen zuhaitza	Eskema bat izatea oso lagungarria da gatazkaren kausen eta ondorioen eragina argi eta garbi ikusteko generoaren arabera.
4. URRATSA	Produkzioaren aurreko azken eskema	Informazio-produkzioa proposatu aurretik, egiaztatu honako hau garbi daukazu: ZER. Zein den produkzioaren (albistearen, erreportajearen) gai nagusia. Zer gertaeraren edo mikrogatazkaren berri emango duzun. Eta nola kontatuko duzun zer lotura duen gatazka handiarekin (kasu honetan, Palestina eta Israel arteko gatazkarekin). NOIZ eta NON kokatzen den kontatuko duzun gertaera. NOR. Zure istorioko protagonista emakume bat den, emakume-kolektibo bat... NORTZUK. Nori egin behar diozun elkarrizketa, nor izango diren zure iturriak, genero-ikuspegiarekin. Zer galdetu behar diezun. NOLA. Zer datu espezifiko dituzun, edo zein jasoko dituzun lekuan bertan, gatazkaren eragin bereiziarekin lotuta. Gogoratu produzitu behar duzun albisteak erakutsi nahi duela gatazkak kausak eta ondorioak dituela, eta horiek guztiek zerikusia dutela genero-sistema patriarkalarekin (matxismoarekin); alegia, gizonentzako rola eta emakumeentzako rola daudela ezartzen duen sistemarekin. ZERTARAKO. Emakumeak (antolatuta zein banaka) beren familia/komunitate/gizarteetarako aldaketa-eragileak direla erakustea.

ARIKETA: Orain, Isabel Pérez kazetariak Palestinako genealogia feminista argitalpeneko *Bizitza-istorioak* bildumarako idatzitako artikulua zati daukazu⁹. Artikulu zatiak ematen duen informazioa kontuan hartuta, eta goiko urratsei jarraituz, proposatu erreportaje edo bideoalbiste baten produkzioa honako gai honekin: ekonomia segurtasun-gabekia Gazako Zerrendan.

Gazako Zerrendako landa-eremuan bizi izatea israeldarren okupazioarekin etengabeko kontaktua izatea da. Nekazaritza-eremu emankorrenak Lerro Berdetik hurbil daude eta israeldar soldaduak edozein unetan has daitezke tiroka; edota hondeamakina blindatuekin sar daitezke, lurra lautzeko aitzakiarekin nekazaritza-sailak suntsitzeko. Landan eta etxean lan egiten duten

palestinar emakume nekazariak jasan behar izaten dituzte gehien egoera horren ondorioak. Zenbait erakundek ureztatzeko eta ongariak lortzeko laguntza ematen diete, ez dute eta horretarako dirurik. Gainera, emakume askok eurekin eraman behar izaten dituzte seme-alabak sorora, txikiak direnean.

2. ETAPA: DOKUMENTAZIO PROZESUA GENERO-IKUSPEGIA AINTZAT HARTUTA EGITEA

LEHEN MAILAKO ITURRIAK

Egiaztatu estaldura orekatua egin ahal izateko beharrezko iturriak dituzula; horretarako, egin galdera hauek zeure buruari:

- * Zer iturri mota da? Ofizial baimendua, ofizial anonimoa, zibil antolatua edo indibiduala.
- * Zer informazio mota ematen du bakoitzak?
- * Zenbat dira gizonak eta zenbat emakumeak (direla erakunde zibil edo militarrek, polizia, judizialak eta abar, direla gizabanako edo erakunde zibilak edo erlijiozko erakundeak...)?
- * Zenbaterik eman dezake genero-ikuspegian oinarritutako informazioa (sexuaren arabera datuak, generoarekiko sentikorrak diren diskurtsoak...)?
- * Zer kontatzen du iturri bakoitzak, eta zer ikuspegitik?

Ondoren, egin lan-plan bat iturriekin, gomendio hauek kontuan hartuta:

- * Identifikatu generoarekiko sentikorrak diren iturriak eta jarri haiekin harremanetan, emakumeen eta neskatuen errealitateari eta generoaren dimentsioari buruzko ikuspegi orokorra (zorrotza eta ulergarria) eman baitezakete. Hasieran identifikagaitzak badira ere, iturri horiek oso baliotsuak izango dira.
- * Emakume hauek bila ditzakezu: emakumeen zuzenbideen defenda-tzaileak, politikariak, euren komunitateetako liderrak, GKE-etako zuzendariak, legelariak, kazetariak, akademikoak...
- * Erabili haien ikuspegiak, ez bakarrik «emakumeen egoera gatazkan» edo «egoera humanitarioa emakumeen ikuspegitik» erreportajeak egiteko, baizik eta baita gatazkaren ondorio sozial, politiko eta ekonomikoei buruz egiten dituzun kronika, erreportaje eta analisi guztiak aberasteko ere.

9 Isabel Pérezek artikulu honetatik ateratako informazioa: "Landako emakumeak hirikoak baino indartsuagoak dira", in UNRWA Euskadi: Palestina genealogia feminista: emakume anitzen istorioak, Bilbo, 2016ko iraila, 84. http://tejiendoredesdemujeres.org/images/genealogia/Unrwa_Genealogia_eus.pdf

* Elkarriketatu generoarekiko iturri sentikorrek testuingurua berreraikitzeo, sortu zure iturri adituen zerrenda eta erabili haien laguntza, palestinarren eta israelarren arteko gatazkari buruz beste ikuspegi bat lortzeko.

* Kontua ez da emakume batzuek besteen ordez hitz egitea; palestinar emakumeen gai eta kezka orokorrekin (ez espezifikoekin) ohitzea da kontua.

Nola aipatzen dira iturriak?

Objektibotik kanpo azterlanean, datu hauek bildu ziren: aipatutako 504 iturrietatik, 276tan soilik eman ziren haiek behar bezala identifikatzeko datuak. Datuak (kargua, izen-abizenak) eman zirenean, kasuen % 14 soilik ziren zuzen aipatutako emakume baten datuak. Genero-joera okerragotu egiten da emakumea behar bezala aipatzen ez bada edo, aipatuta ere, genero-joera areagotzen duten informazioak gehitzen badira: «Ola Salama, hauteskunde-batzorde zentralako langilea, ama » (...) edo «Ola Salama ama gaztea». Bien bitartean, albiste berean, honela aipatu ziren beste iturri batzuk: «Khalil Shahin, Giza Eskubideetarako Palestinako Zentroko langilea» (...) edo «Samir Skaik, hotel bateko kudeatzailea».

Helburua da artikuluko bateko iturriak identifikatzeko erabiltzen den informazio pertsonala kategoriatu berekoa izatea, eta iturri batzuk kanpo ez uztea edo ez baztertea. Hauek izan daitezke kategoriak: izen-abizenak eta kargua, erantzukizuna, jardura profesionala edo lanbidea (artikuluaren gaiari dagokionez garrantzitsuak badira). Adina edo jaioteguna ere aipa daitezke (gairako edo pertsona ezagutzeko garrantzitsua bada), bai eta sorterrria edo nazionalitatea ere (gairako edo pertsona ezagutzeko garrantzitsua bada).

Jarraibidea kontuan hartuta, goian azaldutako adibidea hobetu egin daiteke, hiru iturriak kategoriatu berarekin —izena eta lana— aipatuz:

Ola Salama, hauteskunde-batzorde zentralako langilea.

Khalil Shahin, Giza Eskubideetarako Palestinako Zentroko langilea.

Samir Skaik, hotel bateko kudeatzailea.

Edo honela (izena, lana eta familiako rola):

Ola Salama, hauteskunde-batzorde zentralako langilea eta bi umeren ama.

Khalil Shahin, Giza Eskubideetarako Palestinako Zentroko langilea eta hiru neskatoren aita.

Samir Skaik, hotel bateko kudeatzailea, seme-alabarik gabea.

3. ETAPA. ISTORIOETAN GENERO-IKUSPEGIA EGIAZTATZEA

Behin betiko koadroaren irakurketa bat egiteko unea da, genero-ikuspegian oinarritutako nahikoa informazio dagoela bermatzeko, hemen-dik aurrera sortzen den edozein gertaerari aurre egiteko. Esate baterako, egiaztatu ea behin betiko koadroak honako hauek dituen:

- * Biztanle guztientzat orokorrak diren gai, arazo eta kezken zerrenda bat, generoarekiko iturri sentikorrek aipatutako gaiak ere aipatzen dituen.

- * Emakumeen arazo espezifikoak, gatazkaren, indarkeriaren eta blokeoaren ondoriozkoak eta haien giza eskubideak urratzearen ondoriozkoak.

- * Emakumeak euren gizartean diskriminatzen dituzten faktoreen zerrenda bat: pobrezia, babesa, egoera zibila, sexu-orientazioa...

Emakumeen kontrako diskriminazio-moduen zerrenda, gatazka sozialak eragiten dituzten kausa gisa.

- * Istorio jakin batzuk jasotzeko leku espezifikoaren zerrenda.

- * Sexuaren arabera banakatutako datuen corpora (langabezia, osasun-zerbitzuen eskuragarritasuna, eskolatzea eta alfabetatzea, dibortzio kopurua, abusuen edo genero-indarkeriaren salaketak, lurren jabeak diren emakumeen kopurua, emakumeen eta lan-merkatuaren arteko lotura...).

- * Indarreko legedia nazionala, sinatutako edota berretsitako nazioarteko tratatuak, lege-esparrua eta ohiturazko esparrua (usadio eta ohiturak). Horri esker, jabetza-eskubideei, oinordetzari, justiziarako sarbideari eta ordezkaritza politikoei buruzko informazioa izango duzu, bestek beste.

- * Orain, **informazio-estaldura eta produkzioa planifikatzeko** ibilbideak ohiko bidea egingo du; hau da, lana egiteko, baliabideak, dokumentuak, kontaktuak, lekuen eta pertsonen identifikazioa eta abar erabili ahal izango dituzu; hau da, ibilbide horretan bildu dituzun datu guztiak. Gainera, beste elementu batzuk ere hartu beharko dituzu aintzat, hala nola hizkuntza, irudiak, testigantza eta kontakizuna.

1. AZTERKETA: Jarraian, prentsan argitaratutako albiste bat irakurtzea proposatzen da, eta gidak ibilbide honetan egiten dituen gomendioen arabera albiste horren edukia aztertzea; hots, emakumeak irudikatzeko moduak, ez birbiktimizatzea eta abar kontuan hartuta. Ibilbideetan proposatutako jarraibideak ere irakurtzea proposatzen da.

Palestinarrren exodoa bonbetatik ihesian



(...) Gazako Zerrendako palestinarrak israeldarren mezuak jasotzen ari dira duela zenbait egunetatik. Panfletoen, mezu elektronikoen edo telefono-deien bidez ari dira jasotzen. Baina, igande honetan, ebakuaziora deitzeko mezua desberdina izan zen, ordu zehatz bat ere emanen baitzuen: Gazaren iparraldeko eremu handi bateko biztanleek euren etxeak utzi behar dituzte, eguerdiko 12ak baino lehen, ordu horretan bonbardatuak izango dira eta. Hamasek beste komunikatu batekin erantzun zuen: «Nahasmena eta beldurra soilik sortu nahi dituen gerra psikologiko bat da. Geuk babestuko dugu herria».

Azken sei urteotan, hirugarren aldia da hau Tel Avivek Zerrendaren iparraldean mugatik hurbilen bizi diren biztanleei euren etxeak hustea agintzen diena, lurraldea husteko eta terroristen azpiegitura guztiak suntsitu ahal izateko. 2008an Berun Urtua operazioan eta 2012an Hegi Babesgarria operazioan zehar gertatutakoa ekartzen du egoerak gogora. Orduan bezalaxe, milaka palestinarrak Zerrendaren barruko exodo bati ekin diote, ezin baitira handik atera, Nazio Batuek edo beste erakunderen batek prestatutako zentro batean babesleku bila.

(...)

Gerra psikologikoa

Asteburua iritsi arte, inork ez zien mezuei jaramon handirik egin. Hegi Babesgarria operazioa hasi eta Israel ebakuazioak agintzen hasi zenean, Zerrendaren ipar-ekialdeko herri eta auzoe-tako biztanle eta familiak kaleetan biltzen ziren, Israelek izua zabaltzeko hasitako gerra psikologikoa bat zen ala ez eztabaidatzeko. Yabalia eta BeitLahiya hirien artean bizi da Ibrahim. Orain arte, BeitHanunen bizi diren anaien familiak babesten zituen etxean. «Zenbait dei izan nituen larunbatean, eta beste hainbat igandean. Ahots automatiko batek etxetik nola irten azaltzen zidan: «Hegoalderantz joan behar duzu, Yabalia herrira, al-Faluya kalea hartuta. Israelgo defentsa-armadaren aginduak betetzen ez badituzu, zeure gain hartuko duzu ondorioen erantzukizuna. Interes orokorraren onerako, alde egin behar duzu. Ez ditugu zibilak kolpekatu nahi, terroristak soilik», azaldu zion egunkari honi. (...)

Israeldarren bonbardaketak

Israelgo agintariek Gazan sartzea ukatu diete UNRWako zenbait ofiziali, igande honetan Israelen bonbardaketek kaltetutako eskola batean prentsaurreko bat ematera zihoazenean. Guztira, bonbardaketek elkarte horren 49 instalazio kaltetu dituzte. Anabertak, palestinar batekin ezkondata dagoen eta 2004az geroztik Beit Lahiya herrian bizi den kubatar emakume batek, beste bi gerra ezagutu ditu Gazako Zerrendan. Israeldarren mezuak jaso arren, etxea ez uztea erabaki dute berak, senarrak eta seme-alabek. «Izututa nago, ez beldurtuta. Baina, nora joango gara hau dena atzean utzita? Ezin dut ez jan ez lorik egin. Eta, Ramadan hilabete honetan, baraua egiten ari gara. Janaria egiteko indarrrik ere ez daukat», esan zion EL MUNDOri. Anabertaren etxean, kristalak duela egun batzuk lehertu ziren, bonbardaketa batean. «Ez dago ezer segururik. Ez dakizu non jausiko den hurrengo bonba. Kalera irteten bazara, traumatizatutako hiru edo lau urteko umeak ikusiko dituzu. Zarata ozen bat entzun eta lasterka egiten dute ihes. Guk bakea soilik nahi dugu, bakean bizi». Gaza hirian eta hegoalderago dauden beste herri batzuetan, dendetan elikagaiak eta ur botilak daude oraindik, baina, BeitLahiyako dendetan, janari gutxi dago. Farmaziak itxita daude, eta gaixo kronikoek ezin dituzte euren sendagaiak erosi. Anabertaren seme-alabetako bat asmatikoa da, eta haren egoerak okerrera egin du, kontatzen digunez, «israeldarrek Lerro Berdearen mugaren ondoan, iparraldean, gas pikante bat bota zutenetik». Mohamedek, BeitHanun herriko biztanle batek, ikusi eta usaindu egin du gas hori. «Ostiralean izan zen. Goizeko ordu batean, gas zuri bat agertu zen. Israeldarren aldetik zetorren. Behi-gorotzaren antzeko usaina zeukan, eta azkura sortu zigun begietan, eta itolarria. Goizeko zazpiak arte iraun zuen». Haren etxean, irratia eta telebistaren bidez ere jaso zuten ebakuazio-mezua. Israeldarrek seinalea atzean eta ebakuazioa ahalik eta azkarren egiteko bidea azaldu zuten.

ARTIKULUAREN ANALISIA, GIDA HONETAN ADIERAZITAKO GOMENDIOEI ERREPARATUTA:

Zenbait alderdi positibo:

- * Gatazkan bonbardaketa baten aurreko ebakuazioan zehar zer gertatzen den azaldu eta hondamen humanitarioaren ezaugarrien berri ematen du.
- * Erasoen ondorioak azaltzen ditu, etxeko burua den emakume baten testigantza-
ren bidez. Hala ere, iturri gehienak gizonak dira.
- * Aktore nagusiaren izena eta beste ezaugarriren bat ematen ditu: «palestinarrak
tekin ezkontuta dagoen eta 2004az geroztik Beit Lahiya herrian bizi den kubatar
emakume batek, beste bi gerra ezagutu ditu Gazako Zerrendan».
- * Eguneroko bizitzarako ondorioak zehazten ditu; esaterako, uraren, elikagaien
eta sendagaien gabezia.
- * Kontakizunak bakea aurkitzeko beharra azpimarratzen du: «Guk bakea soilik
nahi dugu, bakean bizi».
- * Argazkian, palestinar familia bat ikus dezakegu, gurdi batean Gazatik irteten.
Irudi zuzena da, odolaz eta pertsona zaurituez baliatzen ez dena; izan ere, ondo-
rioren *irudi bareagoa* da. Irudiak Gazako jendearen zailtasunak eta Gazatik ihes egi-
teko beharra adieraztea lortzen du (ikus Irudien Ibilbidea).

Alderdi negatibo bat hizkuntzari dagokio. Goiko albistean, jatorriz gaztelaniaz, ge-
nero maskulinoa erabili da generikoan (vecinos, los civiles, los enfermos crónicos),
genero neutroa erabili beharrean, hala nola «la vecindad», «las personas civiles»
edo «las personas enfermas crónicas» (informazio hori zabaltzeko, ikus 4. ibilbi-
dea. Hitzen Ibilbidea).

1. ARIKETA: Irakurri *Noticias de Gipuzkoa* egunkariko albiste hau (2014ko abuztuaren
28koa), aztertu genero-ikuspegitik eta erantzun ondoren datozen galderei:

Gaza Israel eta Hamas arteko akordioaren ondorioak nabaritzen hasi da

Atzo, lehen aldiz duela zazpi urte Israelen blokeoa hasi
zenetik, 4.000 arrantzalek arrantza-lonjak bete zituzten

Asteazken gauean, israeldarren blokeoaren urteen ondoren, ia 4.000 gazatar arrantzalek euren
sareak askatu eta, atzo, lonjak bete zituzten azken zazpi urteetan amets arriskutsu bat baino izan

ez den arrain batekin. «Bart gauetik duela ordu batzuk arte, Gazako arrantzaleek 20 tona arrain baino gehiago harrapatu dituzte, Israelek debekua kendu eta lehen hiru milietatik harago joatea baimendu baitu», azaldu du Nizar Ayyash Zerrendako arrantzaleen kofradiako presidenteak (...).

Arrantzaleak itsasoratzean, optimismoa zabaldu zen atzo Gazan, eta pertsona asko, pozarren, azoketara joan ziren janari freskoaren bila. Hanan Saleh ere, 45 urtekoa eta sei seme-alabaren ama, poz-pozik zegoen, baina beste arrazoi batzuegatik. Duela aste batzuk senitarteko batzuen etxera joan behar izan zuen, eta senarra langabezian dago, eta UNRWak bi anoa eman zizkion (janari ontziratua, olioia, azukrea eta arroza). «Senarrak ez du lanik egiten, eta, azken hilabeteetan, ez dugu diru-sarrerarik izan. Auzokideen karitateari eta karitatezko erakundeei esker bizi izan gara», adierazi zuen Daraj auzoan, Gaza erdian. (...) «Barealdi honek iraun dezala eta senarrak lana aurkitu dezala, inoren laguntzarik behar ez izateko», gehitu zuen poza disimulatu gabe.

Kalteak

NBEren datuen arabera, 450.000 pertsonak baino gehiagok utzi behar izan dute euren etxea Israelen bonbardaketen ondorioz, eta eskoletan, ospitaleetan eta senitartekoen etxean bilatu behar izan dute babesa. (...) Haietatik, 17.000 familia inguru ezin izango dira etxera itzuli, guztiz suntsituta baitaude edo egiturazko kalte larriak baitituzte (...). 150.000 palestinarrek baino gehiagok elikagai-laguntza behar dute (...).

Hausnartzeko galderak (gida honetan proposatutako ibilbideak irakurri ahala, erantzunak aurkituko dituzu):

- ★ Nola eman daiteke albistean aipatutako erasoak eta su-etenak emakumeen bizitzan duten eraginari buruzko albiste bat?
- ★ Zure ustez, Hanan Saleh behar bezala aipatuta eta adierazita dago? Zergatik?
- ★ Zure ustez, genero-ikuspegia adierazten duen daturik jar zitekeen Kalteak tartekiarren ondoren?

2 IBILBIDEA

GATAZKEN ETA KRISI
HUMANITARIOEN
BERRI EMATEKO
GENERO-IKUSPEGIAREKIN



2 **ibilbideak** produkzio-etapa egiteko beste bide bat proposatzen du; hau da, azaltzen du nola planifikatzen eta egiten diren gatazken, krisi humanitarioen eta indarkeriaren informazio-estaldurak, genero-ikuspegia aintzat hartuta. Lau etapa daude, eta bakoitzak egungo kazetaritza konbentzionalak bere informazio-estalduretan aurkitzen dituen tranpak saihesteko helburua du. Tranpa horiek zein diren azaltzen da, baita nola saihestu daitezkeen eta genero-ikuspegia bermatzeko aukerak zein diren ere. Ibilbide honen kazetaritza asmo bat proposatzen du, genero-ikuspegia barne hartzen duen informazio-agenda duena.

10 Galtung, J.: *"Peace journalism: What, why, who, how, when, where"*, in TRANSCEND: What are Journalists For? Lantegia, 1998ko irailaren 3tik 6ra, Taplow Court, Erresuma Batua.

1. ETAPA: BAKERA BIDERATUTAKO INFORMAZIO ESTALDURAK, GENERO-IKUSPEGIAN OINARRITUAK

Zer da bake-ikuspegia duen komunikazioa? 1998an, Johan Galtung¹⁰ norvegiar irakasleak beste kazetaritza-eredu bat proposatu zuen. Eredu horrek bake-ekimenak sustatu eta gatazken konponbideak iradokiko zituen, indarkeria eta gatazka soilik nabarmendu beharrean. Kazetaritza-eredu hori Bake Kazetaritza zen. Eredu horren arabera, kazetaritza-estaldurek honelakoak izan beharko lukete: **bakera, egia, gizarte zibilera** eta **gatazkaren konponbideetara bideratuak**.

Bestalde, bakea eraikitzeko ereduarekiko kritika feministak azpimarrazten du modu bakarra dagoela bake iraunkorra lortzeko: gatazka bati amaiera emateko negoziazio orotan, genero-justizia eta genero-berdintasuna aintzat hartzea; izan ere, genero-desberdintasuna milaka emakumeri eta neskatori bakean bizitzea galarazten dien indarkeria-iturri bat da. Horretarako, beharrezkoa da ulertzea belizismoa mundu-ikuskera patriarkalaren zutabeetako bat dela.

2. IBILBIDEAK bi planteamendu horiek gurutzatzea proposatzen du: alde batetik Galtungen ereduak, Bake Kazetaritza, eta, beste batetik, genero-ikuspegia. Horren helburua da bakea eta genero-berdintasuna neurri berean aintzat hartzea informazio-estaldura bat planifikatzean eta egitean.

1. URRATSA. KAZETARITZA BELIZISTAREN/GERRAZALEAREN TRANPA HAUEK SAIHESTEA:

- * Gatazka irabazten duenaren ikuspegitik azaltzea (nork jarduten duen, etapak, zioak).
- * Gatazka oso modu sinplistan aurkeztea (erlijioen arteko gerra, etnien arteko liskarrak...).
- * Iturri bati lehentasuna ematea beste baten gainetik.
- * Indarkeriazko gertaeren berri soilik ematea.
- * Indarkeria eta gatazka armatua naturalizat hartzea.
- * Gizonak indarkeriarekin eta ekintzarekin eta emakumeak bakearekin eta biktimizazioarekin lotzen dituzten deskribapenetara jotzea.

1. ARIKETA: Adibide honetan, testuan zein irudian, kazetaria kazetaritza belizistaren/gerrazalearen tranpa batzuetan erori da. Irakurri albistea eta ondorengo analisisa, eta bilatu beste adibide batzuk.

Nazioarteko presioa Hamas eta Israel arteko goraldia eteteko

Atzo, israeldarrek airez eraso zioten Gazari etengabe, eta, hildako zibilen kopuruak gora egin ahala, su eten hitza pixkanaka azaltzen hasi zen, Israelen eta Hamas palestinar talde islamistaren arteko indarkeria-goraldiaren hiztegiari, nazioarteko presioaren eta Egiptok eta Qatarrek zirriborratutako su-etinari buruzko ekimenaren aurrean. Atzo, berriro ere, euren hildakoak deitoratu zituzten gazatarrek. Bien bitartean, palestinar fakzioen eraso nagusiaren lekuko izan zen Tel Aviv. Zenbait minututan, misil sorta batzuk bota zituzten, baina israeldarrek atzeman egin zituzten. Ohar ironiko eta dramatiko gisa, Zisjordaniako Hebron hiri palestinarreko kaleek Gazako anai-arrebek Israelen kontra jaurtitako misil baten inpaktua hartu zuten.

Gazako talde armatuen kontrako Hegi Babesgarria operazioaren ondorioz, seigarren eguna hastear dagoela, ia 130 hildako —palestinar iturrien arabera, bi herenak zibilak dira— eta mila zauritu inguru daude, eta, gainera, erasoek ehunka etxe eta tunel suntsitu dituzte. **Israelgo Aire Armadak, dagoeneko 1.200 eraso egin dituenak**, mesquita bat bonbardatu zuen larunbatean Nusseiraten, Gaza erdian, ustez «misilak gordetzeko eta jaurtitzeko» erabiltzen baitzen. (...)

Shifa ospitalean, emakume batek oihu egiten zuen bere semearen aurrean: «Zergatik jaurti diote misil bat?». «Gerra-krimen bat da. Ez dakit zer egin duten erasoak jasotzeko», gehitu zuen beste emakume batek Gazaren iparraldeko elbarrien zentrotik hurbil, gutxienez bi

neskaren heriotza egiaztatu ostean. Eraso horren inguruan galdetuta, Peter Lerner armadako bozeramaileak hauxe adierazi zion EL MUNDORI: «Kausak ikertzen ari gara, baina zibilak hiltzea deitoratu egiten dugu. Hamas biztanleen artean babesten da guri erasoak jotzeko». Bien bitartean, Gazan esaten dute **Aire Armadak oraingoan erabilitako suarekin alderatuta 2011ko erasoa ume-jolas bat izan zela**. Bart gauean, Israelgo lurraldearen % 80ko hiritan sirenak entzun ziren, eta Burdinazko Kupulako zazpi baterietako bat saihestea lortzen zuten misilek lurra jotzean egindako soinua. (...)



Su eten-zirriborroa

Hain zuzen, atzo, **Egiptok eta Qatarrek egindako su eten-zirriborro baten** berri eman zuten arabiar eta israeldar hedabide batzuek. Zenbait iturriren arabera, borrokan dauden alderdiak aztertzen ari dira proposamen hori. Besteak beste, zirriborro horrek Hamasen zenbait eskaera hartzen ditu barne: 2011ko trukean kartzelatik ateratako eta duela gutxi berriro atxilotutako 56 preso askatzea, israeldarren blokeoa amaitzea eta Tel Avivek Gazako Zerrendaren inguruan segurtasun-eremu gisa ezarritako perimetra txikitzea.

Eskaintza horren harira, nazioarteko diplomaziak ere bere mugimenduak areagotu ditu. Pasa den ostiralean, Egiptoko zerbitzu sekretuek 2012an Mohamed Mursi presidentearen babesean lortutako **su-etenera itzultzeko deialdia egin zuen NBEaren Segurtasun Kontseiluak**. Orduan, zortzi eguneko erasoaren ondoren, 155 palestinar eta 5 israeldar hil ziren. Gainera, aurreikusita dago datorren igandean AEBko, Erresuma Batuko, Frantziako eta Alemaniako diplomazia-buruek su-eteneraren gaiari heltzea, Vienen Iranekiko negozioazio nuklearra bultzatzeko egingo den bileran.

Nazioarteko presioa handitu arren, israeldarrek eta palestinarrek zuhurtziaz hartu dute borroka eteteko proposamena. Tel Avivek ez zuen ezer esan, baina susmoa dago asko falta dela akordioak onera egiteko. «Helburu handia da etengabeko lasaitasuna lortzea, ez mugatzea hilabete batzuetara. Diplomaziaren bidez lor daiteke, edo erasoak areagotuz», argudiatu zuten gobernuko iturriek. Palestinarren aldean, Yihadaren lider nagusietako batek, Ziad Najalek, baztertu egin zuen indarkeria amaituko zela: «**Oraindik ez gaude su etenerako prest.** Erresistentziako borrokalariek adierazten dute zer egin, eta beraiek erabakiko dute noiz den su etenaren unea».

El Mundo, 2014ko uztailaren 12a

ARTIKULUARI BURUZKO ANALISIA, LEHENAGO AIPATUTAKO TRANPAK KONTUAN HARTUTA:

- * Artikuluak politikariei eta akordioei ematen die garrantzia, eta askotan aipatzen dira erakundeak eta akordioak.
- * Egoera dramatizatzeako erabilitako adjektiboak eta kalifikatzaileak kazetarien iritzikoak dira.
- * Gerra-Terminologia belikoa nagusi da. Besteak beste, hitz hauek asko azaltzen dira artikuluan: tregoa, borroka, borrokalaria...
- * Gizonak eta emakumeak irudikatzeako, adierazpen birbiktimizatzaile gehiegi erabiltzen dira: «Atzo, berriro ere, euren hildakoak deitoratu zituzten gazatarrek».
- * Generoak estereotipatuta adierazi dira: emakumeak biktima pasiboak dira, eta gizonak negoziatzaile aktiboak.

2. ARIKETA: Pentsatu zer iturrik edo esperientziak eman dezaketen bake-kazetaritzan eta genero-ikuspegian oinarritutako diskurtso bat.

2. urratsa. Indarkeriaren eragin ikusezinei erreparatzea

Ez esan inoiz «ulertzen dut nola sentitzen zaren», ez da egia eta, ezta zuk zeuk ezbeharra bizi izan baduzu ere (...) Horixe da kazetariak egin dezakeen akatsik handiena. Ikuspuntu hobea da «zure istorioa kontatzea gustatuko litzaidake»; horrek esan nahi du haren istorioa dela, eta kontrola ematen diozu.

Steve Buttry

(Louisianako Estatuko Unibertsitatea, AEB)¹

Hauxe da kazetaritzaren arazo nagusietako bat: indarkeriaren eragin ikusgaietan (hildakoak, zaurituak, kalte materialak...) arreta handiagoa jartzen du eragin ikusezinetan (fisikoa, psikologikoa, sinbolikoa, kulturala...) baino, nahiz eta azken horiek milioika pertsonari kalte egin. Jarraian, Plo-ko indarkeriaren eragin ikusezinei buruzko adibide bat proposatzen da: **trauma psikosoziala eta palestinar biztanleengan dituen eraginak (emakumeak eta neskatoak berariaz aztertuta).**

Bizitzako une traumatiko baten ondoren, biktima eta bizirik irten diren pertsona gehienek izugarritzko mina sentitzen dute; batzuetan, denborak aurrera egin ahala edota terapien ondorioz, arindu egiten da min hori; baina, beste batzuetan, haren indarra ez da inoiz txikitzen. Hedabideek pertsona horiek edo haien senideak jazartzen badituzte, trauma larriagotu egin daiteke. Nola iritsi gaitezke pertsona horiengana, kaltea areagotu barik? Zer saihestu dezakete kazetariak? Plo-aren kasuan, trauma eta kalte psikosozialak ez dira une bakar baten ondorio, eguneroko bizitzaren ondorio baizik; traumak bata bestearen gainean jartzen dira ondoz ondoko gertaeren ondorioz, eta, adinekoen kasuan, zenbait hamarkadatarako gertaeren ondorioz. Nazio Batuen zenbait agentziak dokumentatu dute¹¹ nola eragiten dien traumak palestinar biztanleei:

11 In Ricchiardi, Sherry: "IJNet Shares Advice for Interviewing Victims of Trauma", in Data Center, 2016-11-09. Hemen eskura daiteke: <https://dartcenter.org/blog/2016/11/ijnet-shares-advice-inter-viewing-vic-tims-trauma>. Lehen aldiz, hemen argitaratu zen: International Journalists' Network.

12 Taularen datuak UNRWA Euskadin. Op. Cit., pag., 51.

* Antsietate-maila handiak eta ezegonkortasun soziala eragiten ditu indarkeria sistematikoak biztanleen artean. Bestalde, bat-bateko aireko erasoak direla eta, hilik edo zauriturik geratzeko beldurra dute palestinar gehienek, eta antsietate-sintomak pairatzen dituzte.

* Ohikoak dira genero-indarkeria eta emakumeen kontrako beste indarkeria-eta diskriminazio-egoera batzuk, eta trauma sakonak eragiten dizkiete adin guztietako emakumei. Emakume horiek alargunak edo nekazariak badira, etxea utzi behar izan badute edo urritasuna badute, egoera askoz txarragoa da.

* Neskato-mutiko gehienek jasan dute gatazka, gehiago edo gutxiago, eta senitarteko edo ezagunen bat hil diete; hori dela eta, antsietate-maila handia izan ohi dute.

Ezin da neurtu zenbateko oinazea eragin zuen Hegi Babesgarria operazioaren 50 eguneko erasoaldiak: senideen heriotza, zauriak, anputazioak, etxe-suntitzeak... UNICEFen kalkuluen arabera, trauma larriak dituzte 360.000 neska-to-mutikok, eta berehalako laguntza psikosoziala / urgentea behar dute.

3. ARIKETA: Orain, gai horri buruzko prentsa-artikulu baten zenbait zati proposatuko ditugu. Artikulu zatiak irakurri ondoren, adieraz dezakezu palestinar emakumeen kontrako zer motatako genero-indarkeriak deskribatzen diren? Zer iruditu zaizkizu egoeraren larritasunaren berri emateko erabilitako hizkuntza eta tonua? Zure ustez, izenburua egokia da? Zure iritzian, emakumeak biktima bihurtzen ditu artikulua? Nola idatziko zenuke informazio hori, emakumeak ahaldunduta eta aktore erakusten dituen ikuspegi batetik eta biktimizazioa alde batera utzita?

Palestinar emakumeen infernua

Nazioarteko komunitateak palestinarrek euren estatua izan ote dezaketen eztabaidatzen duen bitartean, emakumeek sufrimenduak eta erasoak jasaten jarraitzen dute, eta, horren ondorioz, depresioa izaten dute. Kausak askotarikoak dira, baina haiei aurre egiteko baliabide gutxi daude, gatazkak bere horretan jarraitzen baitu. Nazio Batuek adierazitakoaren arabera, gaixo mental gehienak emakumeak dira, euren bizitzako presioen eta tentsioen ondorioz. Gazan edo Zisjordanian, emakume guztiek senarra edo seme-alabaren bat espetxean edo hilda dute. Jaiotza-tasa oso altua da (5,8koa), eta, horrez gain, kontuan hartuta oso lan gutxi dagoela, Israelgo armadak haien etxeak suntsitu dituela, osasun-sistema eskasa dela eta mugitzeko aukera gutxi dagoela (gainera, checkpoint delakoetan, kontrol-postuetan, larderia-egoerak jasaten dituzte), emakumeen bizitzak mugamugan daude. Emakume gehienak euren familia-taldeko arduradunak dira, bai ikuspuntu ekonomikotik, bai seme-alabak eta adinekoak zaintzeari dagokionez. Haien egoera sozioekonomikoa kaskartuz doa egunik egun, eta pobrezia- eta langabezia-indizeak oso handiak dira (hurrenez hurren, % 67koa eta % 40koa); ondorioz, emakumeen energia txikitzen ari da.

Lana lortzea zaila da, baina are zailagoa da lurrak, familiak eta herriak banatzen dituzten 500 segurtasun-kontrolak edo 400 kilometro luze den horma zeharkatzea. Gehienek desnutrizio kronikoa dute eta, ondorioz, seme-alaben erdiak baino gehiago galtzen dituzte. Baina, Libanoko, Siriako edo Jordaniako palestinar errefuxiatu-esparruetan bizi badira, egoera ere okerragoa izan daiteke. Halaber, ezin ditugu ahaztu preso dauden emakumeak; asko ez badira ere, inolako errespeturik gabe tratatzen dituzte. (...) Nazioarteko erakunde askok dokumentatu dutenaren arabera, torturatutako eta umiliatutako emakumeen kasuak ere badaude. (...) Kartzelan dauden emakumeen osasuna ez da ona izaten, Nazio Batuen txostenek diotenez. Anemia dute, eta hilerokoaren arazo handiak, eta, haurdun badaude, egoera larriagotu egiten da, amaren desnutrizioak kalte egiten baitio fetuari. Kartzelan erditzeaz dauden palestinarrek eskuak eta oinak kateatuta eramaten dituzte ospitalera, eta, umea izan ondoren, kateak ipintzen dizkiete berriro. Emakume horien senitartekoek ezin dituzte askatasunez bisitatu, eta espetxe-agintarien baimen berezia behar dute. Hala ere, oso gutxitan ematen dute baimen hori, are gutxiago hamasei

eta berrogeita bost urte bitarteko gizonen kasuan, Gurutze Gorriak salatu duenez. Egoera oso larria da; izan ere, MGMren (Mugarik Gabeko Medikuen) psikiatria-txostenen arabera, Nablus hirian pazienteen % 40 emakumeak dira eta beste % 40 umeak.

Hiri horretan, beste hainbatetan bezala, indarkeria nonahi dago. Askotan, gauez, israeldar soldaduak palestinarren etxeetan sartzen dira. Beste batzuetan, kolonoak (palestinarralaldean bizi diren israeldarrak) palestinarren herrien erdigunera joaten dira otoitz egitera, Israelgo armadak babestuta; eta, horrelakoetan, kolonoen mehatxuak eta indarkeria jasan behar dituzte palestinarrak. Emakumeen patologiarik ohikoenak loezina, antsietatea, depresioa eta suminkortasuna dira. Eta haien seme-alaben kasuan: gernu-inkontinentzia, eskola-porrota eta oldarkortasuna. Azken hori amen eta seme-alaben arteko transmisio-kate moduko bat da, UNRWaren (Palestinako Errefuxiatuentzako Nazio Batuen Agentziaren) ikerketen arabera; izan ere, etengabeko estres-egoeran bizi direnez, emakumeek seme-alabekin husten dute barrena konturatu gabe, eta umeek frustrazioa eta oldarkortasuna garatzen dituzte. Samah Jabr emakume psikiatra eta idazleak (Palestinako Psikiatrien Elkarteak) beti gogoratzen du emakume bat bat-batean itsu geratu zelako joan zela larrialdietara; seme-ari bala bat begi batetik sartu eta buruaren atzetik atera zitzaiola ikustean gertatu zitzaion. Baina, indarkerian murgildutako bizitzaren ondorio horiez guztiez gain, palestinarralaldean prostituzioa eta hiesa zabaltzen ari direla ikusi dugu, azken aldi honetan.

El País, 2012ko otsailaren 1a

3. urratsa. Indarkeriak eta gatazkak emakumeengan eta neskatoengan duen eraginaren ikuspegia aintzat hartzea

Gerrak ez du eragin bera emakumeengan eta gizonengan, genero-desberdintasuna gatazka hasi aurrekoa baita. Esan dezakegu gatazka armatuak eta krisi humanitarioek eragin handiagoa dutela neskatoengan eta emakumeengan. Gainera, gizonek eta emakumeek ez dute ahalmen bera indarkeriazko egoera batean bizirik irauteko eta ondoren osatzeko.

Indarkeriak eta gatazka armatuak bestelako eragina dute emakumeengan eta neskatoengan, arrazoi hauengatik: indarkeriak modu desberdinean nabaritzen dituztelako gorputzean; gizonek eta emakumeek gauza desberdinak sinbolizatzen dituztelako; zauriek eta lesioek ondorio desberdinak dituztelako; emakumeek eta gizonek erantzukizun desberdinak dituztelako euren familietan eta komunitateetan, eta, beraz, jasaten duten eragina ere desberdina delako; eta bizimodu desberdinak, dirua eskuratzeko eta erabiltzeko modu desberdinak, eta jabetza erreklamatzeko, izateko eta oinordetzan hartzeko ahalmen desberdinak dituztelako.

GATAZKA ARMATUAREN ETA INDARKERIAREN, ETA GENERO ALDERDIEN ARTEKO ELKARGUNEA

GATAZKAREN/INDARKERIAREN/ERASOAREN ELEMENTUAK	GENERO-DIMENTSIOAK
Soldaduak mobilizatzea eta errekrutatzea, eta miliziak sortzea.	* Pertsonen salerosketa eta prostituzioa areagotzea, base militarren eta kanpamentuen inguruan. * Sexu-erasoak, jazarpena, tortura, haurduntzak eta behartutako abortuak, sexu-esklabotza eta etxeko indarkeria areagotzea. * Gizonek nahitaez errekrutatu behar izatea, eta gerra egiteko agindua betetzen ez dutenak jazartzea.
Tokiko aktibista eta erakunde bakezaleak mobilizatzea; hildako eta desagertutako pertsonak bilatzea.	* Tokiko taldeek, giza eskubideen defendatzaileek eta mugimendu bakezaleek, gehienetan emakumeak buru dituztela, jarrera hartzea (elementu hau gatazkan zehar edo ondorengo etapa batean ager daiteke).
Trauma, indarkeria fisikoa, heriotza eta lesioak.	* Sexu-krimenak gerra-krimenak eta gizateriaren aurkakoak izan daitezke; gainera, genozidio-eragileztat ere har daitezke (Erromako Estatutua¹³, Nazioarteko Zigor Auzitegia).
Egitura soziala eta familiarra eraldatzea.	* Emakumeak etxeko buru bihurtzen dira, eta zaintza-lanak areagotu egiten dira. Logika bera gertatzen da neskatoen kasuan. * Borrokatzen ari ez diren edo mendekoak diren gizonek familia barruko gatazka-maila handiagotu dezakete, euren rol tradizionala (etxeko burua, hornitzailea) betetzerik ez dutela ikusten dutenean. * Batzuetan, genero-rolak aldatu egiten dira.
Lan-bizitza eta eguneroko bizitza eraldatzea.	* Generoaren arabera lan-banaketak aldatzea edo emakumeek lan-merkatuan sartzeko aukera galtzea. * Militarizazio-testuinguruek gizartea kontrolatzea eragiten dute, eta, hortaz, gizarteak ez ditu erraz onartzen genero-berdintasuna eta sexu- eta genero-aniztasuna ahalbidetzen dituzten aldaketak.

Oinarrizko premiak estaltzeko mugak.

* Emakumeek elikagaiez, babesaz eta zaintzaz hornitzeko rola dute, eta, horren ondorioz, gehiegizko lana dute, eta ahultasun-egoeran daude.

Babesa eta lekualdaketa.

* Lekualdatu behar izateak eta errefuxiatu bihurtzeak ondorio desberdinak eta espezifikoa dituzte gizonentzat eta emakumeentzat. Lekualdatuak eta errefuxiatuak diren emakume eta neskatok asko sexu-krimenak jasateko eta ahultasun handiagoko egoeran egoteko arriskuan daude.

* Gizonek kriminalizatuak izateko arriskua dute, aurreiritzi xenofoboaren ondorioz delitugile edo sexu-erasotzaile potentzialtzat hartzen baitituzte.

GATAZKA ARMATUAREN ETA INDARKERIAREN ERAGIN BEREIZIAREN BERRI EMATEKO ARRASTOAK

* Identifikatu gatazkan edo indarkeria-egoeran dauden **elementu** gurutzatuak.

* Egin **gako-hitzen** zerrenda bat, indarkeriak eta gatazka armatuak emakumeengan eta neskatokengan duten eragina dokumentatzeko iturri, istorio eta testigantzak bilatzeko lagungarri izan dadin.

* Aukeratu 3-5 **funtsezko gai** eta proposatu ardatz tematiko batzuk.

* Dokumentatu funtsezko gai horiek eta proposatu **pieza** baten edo serie baten —artikulua, erreportajea, dokumentala...— **produkzioa**.

13 OCHA: "The Gaza Strip: The Long Term Impact of the 2014 Hostilities on Women and Girls | December 2015", 2016-01-06an argitaratua. Hemen eskura daiteke: <http://www.ochaopt.org/content/gaza-strip-long-term-impact-2014-hostilities-women-and-girls-december-2015>

4. ARIKETA: ARRASTOAK ERABILTZEA: PALESTINAKO LURRALDE OKUPATUAREN KASUA

Jarraian proposatzen den jardueran, arrastoak Plo-aren kasuan aplikatu dira. Orain deskribatzen ditugun 4 ARRASTOAK kontuan hartuta eta txostenetik abiatuta, idatzi Gazako Zerrendari edo Zisjordaniako palestinar emakumeen egoerari buruzko artikulua bat.

1. Identifikatu gatazkan, indarkeria-egoeran edo krisi humanitarioan dauden elementu gurutzatuak.

Palestina eta Israel arteko gatazkak eta Plo-ko krisi humanitarioak eragin desberdina dituzte gizonengan eta emakumeengan; mutikoengan eta neskatoengan. Gizonek euren osotasun fisikorako mehatxu bidegabeak jasan ditzakete, eta emakumeek elikagaien inguruko segurtasun-gabezia handiagoa dute gizonek baino; zailtasun handiagoak dituzte ikasteko eta osasun-arretako zerbitzu espezifikoak jasotzeko; eta genero-indarkeriako egoerak, zeharkako indarkeriaren ondoriozko traumak eta beste jarduera sozial kaltegarri batzuk jasaten dituzte, hala nola oinordetzarako edo jabetzarako eskubidea ukatzea edo mugatzea eta mugikortasuna murriztea.

2014ko udan Israelek eraso militar bat egin zuen Gazako Zerrendan. Eraso horrek neskatoengan eta emakumeengan eragindako indarkeria- eta gatazka-testuinguruan, argi eta garbi ikusten da nola gurutzatzen diren generoa eta bizitzaren dimentsioak. Nazio Batuen Gai Humanitarioen Koordinaziorako Bulegoak (OCHAK) 2016ko urtarrilean argitaratutako txostenaren arabera¹⁴, 2014ko Hegi Babesgarria operazioak blokeoaren ondoriozko ahuleziak handitu eta Gazako Zerrendako palestinar gizarteko genero-diskriminazioa areagotu zuen, honela:

- * Palestina barruan (harrera-familietan, alokatutako apartamentuetan, bat-batean egindako babeslekuetan, etxeen hondarren artean...) lekualdatutako neskatoak eta emakumeak genero-indarkeria eta sexu-jazarpena jasateko arrisku handiagoan daude eta arrisku horretatik babesteko arazoak dituzte, euren bizitza-baldintzen ondorioz.

- * Jabetza-eskubideak (baita eraso militar hartan suntsitutako edo kaltetutako etxeenak eta lurrenak ere) tradizionalki gizonenak direnez, emakumeek zailtasunak dituzte laguntza juridikoa eta babesa lortzeko.

- * Eraso hartan azpiegitura zibiletan eragindako kalteen ondorioz, gutxitu egin da oinarritzko zerbitzuak (bereziki, ura eta elektrizitatea) eskuratzeko aukera. Ondorioz, gutxitu egin da, halaber, emakumeek eta neskatoek diru-sarrerak lortzeko jardueretan parte hartzeko edo euren beharretarako denbora izateko ahalmena.

- * Erasoaldi horretan nekazaritzako eta artzaintzako lurrek jasan dituzten kalteek, bestalde, murriztu egin dituzte emakumeentzako enplegu-aukerak.

- * Bizimodu eskasak, pilaketak eta bizibiderik ezak bultzatuta, pertsona askok mekanismo negatiboak hartzen dituzte arazoei aurre egiteko, hala nola neskakilak eskolara ez bidaltzea edo oso gazterik ezkonaraztea. Batez ere, Palestina barruan lekualdatutakoaren artean gertatzen da hori.

2. Egin gako-hitzen zerrenda bat, indarkeriak eta gatazka armatuak emakumeengan eta neskatoengan duten eragina dokumentatzeko iturri, istorio edo testigantzak biltzeko lagungarri izan dadin.

Hona hemen genero-diskriminazioaren *continuum* bat adierazten duten esaldi eta hitz batzuk, hau da, Plo-ko emakumeek soilik jasaten dituzten egoeren iraunkortasuna adierazten dutenak, edozein adinetan edo bizitzako etapatan, eta besteak beste erlijioa-, ekonomia-, heziketa- eta etnia-jatorria alde batera utzita:

HAUR EZKONTZA
 OINORDETZA
 LURRAREN JABETZA
 IKASTEKO AUKERAK
 OSASUN ZERBITZUAK JASOTZEKO AUKERA
 SEXU ETA UGALTZE ESKUBIDEAK
 ABORTUA – HAURDUNALDIA
 MUGIMENDUEN MURRIZKETA
 GENERO INDARKERIA FAMILIAREN BAITAN
 ALARGUNTZA – DIBORTZIOA
 JUSTIZIARA HELTZEKO AUKERA
 LANGABEZIA
 SEGURTASUNA
 JAZARPEN MATXISTA ESPARRU PUBLIKOAN
 AUTONOMIA EKONOMIKOA

Hausnartu. Ezagutzen duzu horietako bakoitzaren esanahia? Eman duzu inoiz horien berri?

3. Aukeratu funtsezko 3-5 gai eta proposatu ardatz tematiko batzuk:

Generoa-indarkeria/gatazka elkargunea Plo-aren kasu zehatzerako dokumentatu eta gero, aukeratu 3-5 gai nagusi, Palestina eta Israel arteko gatazkako eta palestinarrek jasaten ari diren krisi humanitarioko arazoak eta mikrogatazkak kokatzeko eta antolatzeke. Hartu gai horiek zure produkzioko ardatz tematikotzat. Jarraian, Plo-ko palestinar emakumeen eta neskatuen bizipena azaltzeko baliagarriak izan daitezkeen bost gai aurkezten ditugu:

1. GATAZKA KRONIFIKATUA ETA KRISI HUMANITARIOA
2. BAKEA ETA SEGURTASUNA
3. EMAKUMEEN KONTRAKO GENERO INDARKERIA
4. JUSTIZIARA HELTZEKO AUKERA
5. PARTAIDETZA SOZIALA ETA POLITIKOA

4. Dokumentatu funtsezko gai horiek eta proposatu pieza baten edo serie baten —artikulua, erreportajea, dokumentala...— produkzioa.

Dokumentaziorik gabe, ez dago produkziorik; alegia, datuak, iturriak, adibide deskribatzaileak eta testigantzak bilatu behar dira goian azaldutako gai bakoitzeko, erreportaje bat edo gehiago egiteko materiala lortzeko.

2. ETAPA: GIZARTE ZIBILERA BIDERATUTAKO ESTALDURAK EGIN, GENERO-IKUSPEGIAN OINARRITUTA

Oro har, kazetaritza konbentzionalen, istorioak termino dikotomikoe-tan azaltzen dira; hain zuzen, biztanleria zibilak erasoak jasaten ditu, eta eliteak bake-ekintzen arduradunak dira. Istorioak kontatzeko modu horretan, ez da kontuan hartzen gizarte zibila antolatu egiten dela, kri-tika- eta iritzi-ahalmena duela eta bakea eraikitzeko eragilea izan dai-tekeela. Kazetaritza konbentzionalaren joera hori areagotu egiten da emakumeak gizarteko subjektu aktibotzat hartu behar direnean. Ez da harritzekoa zenbait kazetari tranpa honetan erortzea: palestinar biztan-leak eta, hortaz, palestinar emakumeak gatazkaren eta indarkeriaren biktima pasiboak direla pentsatzea.

1. urratsa. Gizarte zibileko erakundeen lana eta, bereziki, emakumeen lana agerian jartzea.

Kasu honetan, oso garrantzitsua da ez ezereztatzea eta emakumeekin etorkorra ez izatea (aurrerago azaltzen da «emakume onak *versus* gizon bortitzak» dikotomia nola hautsi, sistema patriarkalak sortutako irudi faltsu bat baita). Palestinar emakumeak eta haien erakundeak dira al-daketen eta tokiko borroken protagonistak, baina egiten duten lanaga-tik, ez emakumeak izate hutsagatik.

14 OCHA: "The Gaza Strip: The Long Term Impact of the 2014 Hostilities on Women and Girls | December 2015", 2016-01-06an argita-ratua. Hemen eskura daiteke: <http://www.ochaopt.org/content/gaza-strip-long-term-impact-2014-hostilities-women-and-girls-december-2015>

1. ARIKETA: Irakurri artikulua hau eta hausnartu galdera honi buruz: agerian jartzen du palestinar emakumeen lana?

Nork geldiaraziko du Israel?

Emakume Artisten Plataformak, bere bidaiaren azken egunean, bakearen aldeko ekintzak antolatu ditu, eta Gazako biktimentzat odola emateko ekitaldi bat. Bien bitartean, palestinarrek erasoak amaitzea eskatzen dute.

Emakume Artisten Plataformak, bere bidaiaren azken egunean, bakearen aldeko ekin-tzak antolatu ditu, eta Gazako biktimentzat odola emateko ekitaldi bat. Bien bitartean, palestinarrek erasoak amaitzea eskatzen dute. Gaur goizean, neguko eguzki batek agurtu du Palestina. Eguzkia izan da zorigaiztoko egun honetako argi-puntu bakarra. Gazako bonbardaketak eguneroko gosaria izan dira, Genero Indarkeriaren Kontrako Emakume Artisten Plataformarekin Palestinara eta Israelera joan diren 186 emakume politikariek, GKE-etako ordezkariak eta hedabideek osatutako espainiar ordezkari-tzentzat. Gaur zen azken eguna, eta, agendan, Tel Aviven erakunde humanitarioekin eta Israelgo gobernuko

kideekin topaketak egitea zegoen aurreikusita, preso dauden palestinar emakumeak askatzea eskatzeko. (...).

Tel Avivera iristean, Israelgo GKE-etako kideek ongietorri tristea eman digute. Eguerdiko ordu bata baino zertxobait beranduago zen, eta jakin dugu erasoek ehun hildako eragin dituztela gutxienez. GKE-ekin bilerak egin ondoren, lau eta erdietan, gobernuko kideekiko bilerak eta kontzertua bertan behera geratu dira, dolu modura. Ordurako bagenekien erasoak 1967az geroztik odoltsuena izan dela. Betleemera itzuli gara, isil-isilik autobusetan. Atzo, barreak eta itxaropena zeuden autobusetan; gaur, ordea, kazetarien telefono bidezko kronikak soilik entzuten ziren. Guk itxaropena galdu badugu, zer esanik ez palestinar herriak. Hotelera iritsi garenean, arratsaldeko zazpitan, bakearen aldeko ekintza bat antolatzen hasi gara, hori baitzen bidaiaaren helburua, azken batean. Lehenik, odola eman dugu Gazako biktimentzat. (...).

Betleemgo ospitale kalamastran, hotz handia egiten zuen, baina ongietorri beroa egin digute. «Guretzat, oso garrantzitsua da zuen keinua», azaldu digu Fayeze Saqqak, Al Fatahko Palestinar Kontseilu Legegileko kideak, bidaian gurekin datorren ordezkariatzako kideak. «Moratinos jauna, maitekiro Mr. Anestesia deitzen dioguna (...) bakeaz eta politikaz mintzatu zaigu, baina zuek bihozberatasunari buruz hitz egin diguzue, eta bihotzarekin, eta, orain, guretzat, oso garrantzitsua da epeltasun hori sentitzea, gure borrokan bakarrik ez gaudela jakitea, ahaztu ez gaituzuela jakitea».

Odola emateko ilara luze samarra da. 30 lagun inguru daude euren txandaren zain. Esaterako, Camila Fernandez, 21 urtekoa; Madrilgo Erkidegoko Gazte Orkestrako biolin-jotzailea da, No Vacancy rock minimaleko taldeko kidea eta kazetaritza-ikaslea, eta, bizitza bat gutxienez salbatzeko balio dezakeela pentsatu ondoren, odola ematea erabaki du. Haren kasuan, ez da arazorik egon, baina 18 urteko Goretti Alonso Fernandez, Asturiasko Candaseko gaita-jotzailea, haserretu egin behar izan da, odola ematen utz ziezaioten. 18 urte dituen eta gorpuzkeraz txikia denez, ospitaleko medikuei ez zaie egoki iruditu (Palestinan, 20 urtetik beherako emakumeek ezin dute odolik eman). «Haserretu egin behar izan naiz utz ziezadaten, baina badakit nire odol-taldea, A-, ez dela batere ohikoa, eta norbaitek behar izango du agian. Biktimaren bati laguntzea badaukat, asko poztuko naiz». Gorettiri bi besoetan bilatu behar izan diote zaina. Azkenean lortu dute, eta medikuek zein palestinar ordezkariatzako kideek zoriandu egin dute bere ausardiagatik. (...)

Gaueko hamaikak dira. Dagoeneko, 225 dira hildakoak, eta 750 lagun daude zaurituta; baina, esan digutenez, klinikoki hilda daude haietako asko. Eta hondeamakinak ezin izan dira oraindik etxe-hondakinen artean sartu. Eta bonbardaketak ez dira oraindik gelditu. «Orain, "apatxeak" ari dira erasoan. Piloturik gabeko hegazkinak dira, eta jomuga zehatzak bilatzen dituzte, intentsitate txikiko suarekin erasotzeko. Hala ere, gaueko hamabietan eta bihar goizean goiz, gupidarik gabe bonbardatzen hasiko dira berriro. Israeldarren taktika da. Gaur, kalean jende gehien zegoen unean egin dute. Jomuga militarrek bilatzen ari direla diote, baina ez da egia. Ez zaie ardura emakumeak eta umeak hiltzea, askotan erakutsi dutenez», esan du Fayeze Saqqak. (...)

ARTIKULUAREN ANALISIA, ADIERAZITAKO GOMENDIOEI ERREPARATUTA:

* Plataformako emakumeak aktoreak diren aldetik albistearen erdigunean jartzen baditu ere, palestinar emakumeak atzerriarrekiko mendekotasun- edota biktimizazio-egoera batera baztertzen ditu.

* Artikuluaren egileak zenbait talde aurkezten ditu: atzerriarrak, palestinar biktimak, medikuak... eta emakumeak, plataformakoekin bildu behar zuten emakume-talde bat. Atzerriar emakumeak (albisteko aktoreak) solidarioak eta gazteak dira, konpromisoa dute eta elkartasuna eskatzen dute: «gaur, emakume guztiak ahizpak gara». Gizonak politikariak, GKE-etako kideak, kazetariak, Palestinar Kontseiluko kideak, «Moratinos jauna», koronel erretiratu bat eta medikua dira.

* Artikuluaren egileak ez ditu palestinar emakumeak identifikatzen, eta ekintzaren aktore nagusiak informazioaren erdian jartzeko aukera galtzen du, alegia bakearen alde eta indarkeriaren kontra borrokatzen duten palestinar emakume antolatuenak. Haien biktima babesgabearen rola ematea erabakitzen du.

* Hizkuntzak iritzi-artikulu baten doinua dauka, ez informazio-albiste batena. Adibidez, bisitarien beldurra aipatzen da eta palestinarren beldurrarekin parekatzen da: «Gazako bonbardaketak eguneroko gosaria izan dira espainiar ordezkari zarentzat» edo «Israelgo GKE-etako kideek ongietorri tristea eman digute». Doinu horrek nola-baiteko dramatismoa ematen dio hizkuntzari, eta hobeto dagokio iritzi-generoari albiste bati baino.

* Gainera, genero-ikuspegiari dagokionez, hizkuntzaren dramatizazioak beste alderdi negatibo bat du, palestinarren birbiktimizazioa indartzen baitu: «Betleemera itzuli gara, isil-isilik autobusetan. Atzo, barreak eta itxaropena zeuden autobusetan; gaur, ordea, kazetarien telefono bidezko kronikak soilik entzuten ziren. Guk itxaropena galdu badugu, zer esanik ez palestinar herriak».

Hausnartu kazetaritza-generoen garrantziari buruz eta genero-ikuspegia duten informazioak kazetaritza-sail guztien erdian kokatzeari buruz; pentsatu nola aldatuko litzatekeen goiko artikulua genero-ikuspegiari dagokionez, testua argitaratzen duen hedabideak kazetaritza-generoak zuzen erabiliko balitu; hau da, irakurleek jakin egin behar dute iritzi-artikulu bat edo informazio-artikulu bat irakurtzen ari diren.

Gogoratu: kazetaritza, funtsezkoa izan da eta oraindik ere funtsezkoa da iritziak eta datuak bereiztea. Genero-ikuspegia duen informazioan ere, bete egin behar da oinarrizko arau hori.

2. ARIKETA. Irakurri artikulua hau eta erantzun galderei:

1. Agerian jartzen du emakumeek bakea eraikitzen eta mantentzen egiten duten lana?

2. Zure ustez, artikulua irakurrita, irakurleak uler dezake giza eskubideen alde lan egiten duten palestinar emakumeen mugimendua?
3. Nola deskribatzen du gatazkak emakumeengan duen eragina?
4. Positiboa da tokiko mugimendua beste emakume-mugimendu batzuekin alderatzea?

Bakea bada emakumeen kontua ere

Jerusalemgo Udalak aurreikusten du Lerro Berdetik harago beste 5.600 etxebizitzaren eraikuntza onartzea, nahiz eta pasa den astean Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluak palestinar lurraldean kokaleku gehiago egitea salatu. (...)

Beste gertaera bat, gero eta enkistatuago dagoen gatazka baten historia luzean, bi estatuen konponbidea arriskuan jartzen duena. Israelen eta Palestinaren arteko berdinketa amaigabearen traba kentzeko, emakume juduek, musulmanek eta kristauk —Jerusalemgo hiru erlijio monoteistak— martxa jendetsua egin zuten urrian, lider politikoen arteko elkarriketa sustatzeko. Women Wage Peace (bakea egiten duten emakumeak) taldeak egin zuen deialdia. Duela bi urte sortu zen, Israelek Gazan egindako eraso militar basati baten ondoren. Giza eskubideak babesten dituzten elkarteek deskribapenaren arabera, aire zabaleko izugarriko espetxe bat da Gaza, eta, han, milaka familia palestinar pilatzen dira. Hegi Babesgarria operazioa justifikatzeko, Hamasek Zerrendatik jaurtitako misilak izan ziren Israelgo gobernuaren aitzakia. Operazioak ehunka hildako eta zauritu eragin zituen palestinarren artean. Lehenago, eskala handiko erasoei dagokienez, Babes Zutabea eta Berun Urtua operazioak egin zituzten israeldarrek.

Emakume horiek kredo desberdinekoak dira, eta gizarte-klase guztietakoak, eta Ekialde Hurbileko indarkeria-kiribiletik irteeta dute helburu bakar. «Dela ezkertiarra edo eskuindarra, dela erlijiosoa edo sekularra, dela arabiarra edo judua, normala eta oparoa den eta giza eskubideak errespetatzen dituen gizarte batean bizi nahi dugu», adierazi dute. Mugimendua herrialde osoan zabaldu da, baina Jerusalemen egiten dira ekitaldi gehienak. (...)

Egia esan, emakumeek aurrea hartu dute indarkeriazko gatazka askotan, eta haien ahotsa gero eta gehiago entzuten da. Maiatzaren Plazako Amen elkarteak 1977an sortu zen, Videlaren diktadurari aurre egiteko eta giza eskubideak defendatzeko. (...)

Beste sentsibiltate bat dute? Enpatia-ahalmen handiagoa dute? Hobeto gainditzen dituzte gorrotoa eta mendeku hartzeko gogoak? Kontua da emakumeak (eta umeak) lehen kalte-tuak direla gerretan, eta minari aurre egin eta familia aurrera atera behar dutela. Gaur egun, emakumeak dira errefuxiatu-esparruetan bizi diren pertsonen erdiak. Nazio Batuen datuak dira. 2010ean, pauso historiko bat eman zuen: NBE Emakumeak sortu zuen, genero-berdin-

tasunerako eta emakumea jabetzeko erakundea. Erakunde horrek jakinarazi duenez, 1992tik 2011ra bitartean bake-akordioak sinatu dituzten pertsonen % 4 soilik dira emakumeak, eta, bake-mahaietako negoziatzaileen % 10 baino gutxiago. Argi dago emakume gehiagok izan behar dutela bakerako eta gatazken konponbiderako prozesuetako liderrak. (...).

El Correo, 2016ko abenduaren 28a

2. urratsa. Informazioetako protagonista nagusiak izaten ez diren pertsonengan arreta berezia jartzea.

Lehen pertsonako ahozko testigantza edo bizitza-istorioa kazetaritzaren tresna oso baliagarria da, eta gero eta gehiago erabiltzen da. Elkarriketetan, bi pertsona adimentsu izaten dira solaskide. Testigantzetan, pertsona baten edo talde baten bizitza-istorioa jasotzen da. Abiapuntu gisa, zenbait galdera egiten dira, eta, gero, beste batzuk egin daitezke, kontakizunaren hariari berriro lotzen laguntzeko. Ondo prestatzen bada, kazetariaren esku-hartzea oso txikia da. Testigantza lehen mailako informazio-iturria da, interpretaziorik gabea; fenomenoak ulertzen eta kontakizuna osatzen laguntzen du.

Eskuarki, gatazkei eta krisi humanitarioei buruzko informazioetan, oso jaramon gutxi egiten zaie zenbait kolektibori, hala nola nekazariei, irakasleei, gizarte-hezitzaileei, gazteei —oro har, elkarriketa gutxi egiten zaizkie—, eta zurgintzan, mekanikan eta antzeko lanbideetan aritzen diren pertsonen. Adinekoei oso elkarriketa gutxi egiten zaizkie, zahartzaroarekin zerikusia duten artikuluetarako izan ezik, bai eta, besteak beste, lesbiana, gai, transexual eta bisexualen komunitateari, urritasuna duten pertsonen, migratzaileei eta errefuxiatuei ere. Askoz pertsona gehiago sartzen dira multzo horretan, eta, kolektibo horietako bakoitzean, emakumeak dira elkarriketarik gutxien egiten dituztenak.

Plo-aren kasuan, zaila izan daiteke palestinar emakumeen eta, zehazki, palestinar emakume errefuxiatuen testigantza jasotzea, haiengana heletzea ez baita erraza izaten. Hala ere, hori ezin da gizonen testigantzak sistematikoki lehenesteko aitzakiatzat hartu. Garrantzitsua da iturriak aldez aurretik aukeratzea, haien testigantzak egiazkoak izan eta errealitatearekin bat etor daitezen. Egiaztatu testigantza emango duen pertsonari buruz beharrezko informazioa duzula, eta ez ahaztu testigantzari testuinguru-informazioa ematea, egoera orokor baten esparruan koka-tzen dela uler dadin.

3. ETAPA: GATAZKAREN KONPONBIDERA BIDERATUTAKO INFORMAZIO ESTALDURAK, GENERO-IKUSPEGIAN OINARRITUAK

Bakera bideratutako kazetaritzak jende arruntak bakea eraikitzeko egiten dituen ahaleginak berreskuratu eta haien berri ematen du; alegia, emakumeek bakea eraikitzeko prozesuan duten zeregina ere hartu behar du aintzat. Bake-tratatuak sinatzen direnean eta horri buruz informatzean indarkeria edo gatazkak berriro pizten badira, ezinbestekoa da horren berri ere ematea. Gatazka sorrarazi duten egiturazko kausekin (ez gatazkaren berehalako ondorioekin) lotutako gertaerei edo arazoei buruz informatzean soilik egin daiteke hori. Beharrezkoa da gerraosteko berreraikuntzaren eta haren gertaeren berri ematea, eta erreparazio-, berreraikitze- eta adiskidetze-prozesuari buruz genero-ikuspegitik informatzea. Garrantzitsua da gaiei jarraipena egitea: gertaera edo topaketa horretan zer gertatu zen, zer ondorio izan zituen, zerbait lortu ote zen eta abar kontatzea, isolatutako gauzatat ez aurkezteko.

Genero-ikuspegitik konponbidera bideratuta dauden estaldurek urrats hauek bete behar dituzte:

1. urratsa. Emakumeen lana agerian jartzea, bakearen eraikuntzan eragile aktiboak eta gizarte zibileko kideak diren aldetik.

Gizarte zibila sendotzen laguntzeko, funtsezkoa da berreraikuntza zaintzen duten gizarteko erakundeetan eta nazioarteko organismoetan gizonen eta emakumeen parte-hartzea oso desberdina dela salatzea eta emakumeen elkarteek bakea eraikitzeko agendetan eragina izateko duten ahalmena nabarmentzea. Bi gauza horiek egiteko, ezinbestekoa da:

- * Emakumeen eskubideak babesteko eta bakea eraikitzeko tresnak zein diren jakitea —gida honetako 7. atalean ikus ditzakezu, Bibliografia eta Lege Mapa izenekoan—.
- * Gaiari buruzko kontzeptuekin eta terminologiarekin ohitzea.
- * Lege- eta araudi-testuingurua ezagutzea.
- * Albistearen lekuan lan egiten duten emakumeen mugimenduen berri izatea.

BALIABIDE BALIAGARRI BAT PLO-AREN KASUAN

Palestinarr emakume-mugimenduaren eta mugimendu feministaren iturri historiko eta gaur egungoak

XIX. mendearen amaieratik gaur egunera arteko palestinar emakume-mugimenduari eta mugimendu feministari buruzko ikuspegi oso bat (historikoa eta egungoa) izateko, gomendatzen da hau irakurtzea: Muhiar Muñumer, Hanady Awni: *“Palestinako emakume mugimenduaren eta mugimendu feministaren bilakaera. Hurbilpen historikoa”* in Palestinako Genealogia Feminista: emakume anitzen istorioak, UNRWA Euskadi **15**.

2. urratsa. Gerraosteko berreraikuntzari buruzko istorioak kontatzean, gizonek eta emakumeek nork bere aldetik bakearen eraikuntzan dituzten zereginetan arreta jartzea.

Gizonek eta emakumeek ez dituzte berdin bizitzen bake-prozesuak, bakea eraikitzeko prozesuan (esaterako, bake-negoiazioetan) parte hartzeko aukera ere ez baita berdina. Zehatz-mehatz:

15 UNRWA Euskadi: Op. Cit. 51

GERRAOSTEKO BERRERAIKUNTZAREN ETA GENERO-IKUSPEGIAREN ARTEKO LOTURAREN ADIBIDEAK

GERRAOSTEKO ERAIKUNTZAREN EDO INDARKERIAREN OSTEKO ALDIAREN ELEMENTUAK	GENERO-DIMENTSIOAK ¹⁶
Elkarriketa, bake-negoiazioak eta inplementazio-planak	Emakumeek parte hartu beharko lukete gatazka amaitzeko eztabaida formaletan eta bake-akordioak lortzeko negoziazioetan, gatazkaren aurretik eta ondoren erabakiak hartzeko prozesuetan oso parte-hartze txikia izan badute ere edo parte hartu ez badute ere.
Egia-, justizia- eta erreparazio-instantziak (batzorde nazionalak eta nazioartekoak) sortzea	Egia bilatzeko prozesuetan eta justizia- eta erreparazio-politikan, gerrak edo indarkeriak emakume eta neskatengan izan dituzten eragin espezifikoak hartu behar dira kontuan.
Eskualde-ikerketako taldeek edo Nazio Batuen eta abarren organismo espezializatuek jardutea.	Besteak beste berreraikitze- eta egonkortze-programa eta -politikak ezartzeko prozesua lantzeaz eta bideratzeaz arduratutako pertsona adituek (zibilek zein militarrek) beharrezko prestakuntza eta sentikortasuna izan behar dituzte genero-gaien inguruan ...

Eskualde-ikerketako taldeek edo Nazio Batuen eta abarren organismo espezializatuek jardutea.

...Horri esker, egoeraren azterketak eta landa-laneko jarduerak kalitatezkoak direla bermatuko dute. Azken hamarkadan, Nazio Batuek bakea jagoteko bidalitako misioetako nazioarteko langileek emakumeen eta neskatuen kontra egindako sexu-krimenen kasu asko ezagutarazi dituzte.

Demokratizazio-prozesua eta hauteskundeak

Emakumeek oztopo espezifikoak dituzte bozkatzeko, hautagaiak izateko edo euren eskaerak hauteskunde-programetan sartzeko. Emakumeek oztopo asko dituzte gerraosteko edo trantsizioko prozesuetan politikan edo hauteskundeetan parte hartzeko, eta, beraz, parte-hartze hori ez da handitzen. Ildo horretan, egiaztatuta dago emakumeen kontrako genero-indarkeria oztopo nagusietako bat dela. Gaur egun, Plo-ko emakume-mugimendua emakume politikarien kuota % 30era igotzea ari da eskatzen.

Inbertsio-programak, azpiegitura, oinarrizko zerbitzuak eta abar sortzeko programak

Programa horietan, emakumeen premia espezifikoak aintzat hartu eta lehenetsi beharko lirakeke, honako arlo hauetan: hezkuntzan, osasunean, sexu- eta ugaltze-eskubideetan, segurtasunean...

Borrokalariai desmobilizatzea, armagabetzea eta bizitza zibilera itzultzea (DAI programak)

DAI programek, gizonak gizarteratzeaz gain, harago joan behar dute. Esate baterako, emakumeek gerraren ekonomian dituzten rolak ere — batzuetan, borrokalariai dira, edo bigarren mailako zereginak dituzte— hartu behar dituzte aintzat, baita borrokalariai ohiak (senarrak, bikotekideak) hartzen dituzten emakumeen premia bereziak ere.

GERRAOSTEKO BERRERAIKUNTZARI BURUZ GENERO IKUSPEGIAREKIN INFORMATZEKO PAUSUAK

* Identifikatu gatazka edo indarkeria osteko egoeran dauden elementu gurutatsuak.

* Dokumentatu gai horiek.

* Egin gako-hitzen zerrenda bat, indarkeria osteko berreraikuntza dokumentatzeko iturri, istorio eta testigantzak bilatzen lagungarri izan dadin.

16 Gai horri buruz gehiago jakiteko, Emakumeak, Bakea eta Segurtasuna arloan Nazio Batuek emandako ebazpenak kontsulta daitezke.
7. Bibliografia eta Lege Mapa atalean daude.

* Jo generoarekiko sentikorrak diren iturrietara zure kazetaritza-piezak egiteko (ikus 1. IBILBIDEA).

ARIKETA: Proposatuz palestinar emakumeek bakearen eraikuntzari egindako ekarpenari buruzko erreportaje bat. Sartu bi emakume-erakunderi egindako elkarrizketak eta testigantza bat.

4. ETAPA: EGIARA BIDERATUTAKO INFORMAZIO ESTALDURAK, GENERO-IKUSPEGIAN OINARRITUAK

Hedabideen eta kazetarien informazio-estalduretan, kliseak, erdipur-diko egiak, zurrumurruak eta abar (alegia, eufemismoak eta egiaztatu gabeko informazioak) galdetu gabe zabaltzea edo errepikatzea da tranparik ohikoenetako bat, batik bat asko irauten duten gatazken kasuan. Normalean, gatazkako eragile batek edo gehiagok erabiltzen dituzte horrelakoak, gatazkak aurrera egin ahala eta askotariko interesei jarraituz. Horrelakoak identifikatzen jakiteko, denbora behar da, eta testuinguru historikoa ezagutzea (ikusi 1. IBILBIDEA).

Haiek deuseztatzeko eta automatikoki ez errepikatzeko, *egiara bideratutako kazetaritza* bat egitea proposatzen da. Horretarako, hau egin behar da: gatazkako alderdi guztien propaganda deuseztatu, eta ezkutatu nahi dena aurkitu, erakutsi edo agerian jarri. Genero-ikuspegia aplikatuz gero, proposamen hori askoz interesgarriagoa da; izan ere, gatazka armatuaren eta indarkeriaren testuinguruaren atzetik dauden gai askok genero-zapalkuntzaren dimentsio bat daukate. Adibidez, bake-negoziaziorako prozesu askotan, sexu-krimenak zigorrik gabe geratzen dira, horrelako krimenak gatazkako alderdi batzuei ezkutatzeari interesatzen baita.

Egiara bideratutako eta genero-ikuspegian oinarritutako informazio-estaldurak diseinatzeko eta egiteko, hauxe proposatzen da:

*** Erakundeak ez diren iturrietara jotzea, informazioa lortzeko edo informazioak egiaztatzeko.**

Garrantzitsua da informazioaren profesionalak iturri ofizialetatik datorren informazioarekin kritikoak izatea, iturri horiek edozein direla ere (gubernukoak, estatukoak, gatazkako aktoreak, militarren misioetakoak...). Horretarako, dokumentazio-lan ona egin behar da, eta harreman ona sortu ordezko iturriekin. Puntu honetan, ez baduzu genero-ikuspegia galdu nahi, zaindu iturriak (1. ibilbidean eta 2. ibilbideko 2. urratsean proposatzen denez).

*** Herritarren kazetaritzaren gai, iturri eta ikuspuntuak sartzea.**

Zurumurrak deuseztatzeko zeregin horretan, herritarren ekintzek gero eta eragin handiagoa dute. Herritarrek kazetaritza egiten dute, eta hedabideek albisteak egitea eskatzen diete. Hori da edo esaten zaio *herritarren kazetaritza*. Gomendatzen da herritarren kazetaritza jarduera profesionalera ekartzea, herritarrek proposatzen dituzten gai, iturri eta ikuspuntuak kontuan hartuta.

Jarraian, Gazako Zerrendako Farah Baker izeneko emakume txiolarari baten istorioa jasotzen duen kazetaritza-pieza bat aurkeztuko dizugu. Herritarren kazetaritza ulertzeko adibide interesgarria da, baina, gainera, genero-ikuspegia duen artikulua bat era bai; alde batetik, emakume bat delako ekintzako protagonista eta subjektua eta, beste batetik, zailantzan jartzen dituelako hedabideek palestinar emakumeekin lotu ohi dituzten estereotipoak.

“Hauxe oihukatu nahi nuen: *bakean bizi nahi dut*”

**Farahk, Gazatik erasoaldia kontatu duen
16 urteko txiolaria, 172.000 jarraitzaile ditu.**

Bere atzamar bizkorrekin eta *smartphonea* erabiliz, 16 urteko Farah Baker gazatarra jarraitzaile gehien dituen herritar-kronikaria da. Haren Twitter kontuak 800 jarraitzaile eskas zituen erasoaldi militarra hasi baino lehen, eta, orain, 170.000tik gora. Farah ez da kazetaria, ez da intelektuala edo inoren bozeramailea. Begi urdineko nerabe bat da, 16 urtekoa, beloaren ordeztatik elastikoak janzten dituen, eta ingelesez dakiena. Azken hilabetean, zer ikusten eta entzuten duen jakinarazi dio munduari (ingelesez). Setioa barrutik nola bizitzen den deskribatu du, bitartekaririk gabe, munduko sare sozialik zabalduenetako bat erabiliz, hizkuntza unibertsal batean, argazki, bideo eta emotikonoak erantsiz. Hau da, gazatar emakumearen irudi estereotipatua hautsi du.

Twitterreko mezu pribatuaren bidezko elkarrizketa batean, Farahk —@Farah_Gazan— azaldu du harrituta dagoela bere testuen jarraipen izugarria dela eta. Al Shifa ospitaleko, Gazako garrantzitsueneko, neurokirurgialari baten alaba da eta medikuntza-zentrotik hurbil bizi da. Ondorioz, inguruan gertatzen ari zena hitz errazekin eta nabarmenkeriarik gabe

kontatzea erabaki zuen. «*Nik ezin dut armarik hartu, ni ez naiz politikaria; hortaz, ikusten dudana kontatzea da laguntzeko daukadan modua*», dio. Haren istorioa azkar-azkar barreiatzen da, jarraitzaileek mila aldiz birtxiokatzen baitute mezu bakoitza, batez beste. 160 herrialdetan ditu jarraitzaileak. (...)

Mezuek askotariko mintzagaiak dituzte. Esaterako, beldurraren beldurrez idatzitako go-goeta frenetikoak («Ezin diot negar egiteari utzi. Gaur gauean hil ninteko»), eta eraso batek bere bizimoduan duen eraginaren deskribapenak. Sei urteko ahizpari min ematen dioten kristalak edo, zarata moteldu nahian, burua estaltzeko erabiltzen duen burkoa. Sirenak non entzuten diren adierazten du; «anbulantzia» hitza zenbait aldiz idazten du, hizkuntzaren ekonomia hutsez, Al Shifa ospitalera beste zauritu bat iritsi dela esateko. (...) Bideoetan, jaurtigaiak -auzotan erori diren azaltzen du, edo zer arma-mota erabili diren galdetzen dio bere buruari. **Kazetari bati baino gehiagori etorri zaizkio ondo haren adierazpenak.** Barealdietan, Farahk ez du amore ematen. Bonbak entzuten ez direnean, Gazako setioa nolakoa den azaltzen du, *inoiz* ezin izan duela Zisjordaniara edo Jerusalem-era bidaiatu, «beste leku batera joateko aukerarik edo ezkutatzeko babeslekurik gabe» nola bizitzen den. Fenomenotzat hartua, munduko hedabide nagusiek elkarrizketa egin diote gazteari. Baina lasai darama goian egote hori. «Gazari nola erasotzen dioten kontatu dut, besterik ez», dio. Eta ez du berriro egin nahi. «Ez dudalako beste gerra baten lekuko izan nahi».

El País, 2014ko abuztuaren 11

3 IBILBIDEA

KONTATZEKO MODU ETA
ISTORIO BERRIAK ERABILIZ
EGITEKO KAZETARITZA
ESTALDURAK



Orain arte eman ditugun jarraibideek balio izan dute: genero-ikuspegia kontuan hartuta iturriak bilatzeko eta auke-ratzeko, testuingurua eratzeko, gatazka genero-ikuspegitik ulertzeko eta gaiak genero-ikuspegian oinarrituta aukera-tzeko. Horren guztiaren helburua zen genero-ikuspegiarekin lotu-tako nahikoa tresna izatea, kalitatezko informazio-estaldurak plani-fikatu eta egin ahal izateko. Orain, genero-ikuspegiaren berariazko kontakizunak eta hizkuntza erabiltzen jakiteko unea da. 3. ibilbideak kontakizunean jartzen du arreta. Gauzak kontatzeko modu berriak sortzen ikasi behar da, baita isilarazitako istorioak eta bizitza-testi-gantzak profesionaltasunez bilatzen eta jasotzen ere.

1. ETAPA. KONTAKIZUN ERRAZETATIK IHES EGITEA

Pertsonek euren bizitzari eta inguruneari zentzua emateko sortzen dituzten istorioak dira kontakizunak. Mundua hautemateko modua eta gure jardunbidea moldatzen laguntzen dute. Kontakizunek uler-men-esparru bat dute eta ikuspegia moldatzen dute arazoa denaz —esaterako, berreraikuntzarako finantzaketarik eza— eta arazoa ez denaz —adibidez, blokeoa eta oinarritzko ondasunak eskuratzeko aukerarik eza. Esparru horiek, gainera, eragina dute hautemango diren eta informazio-estaldura emango zaien —adibidez, erasoaldi militarrik— eta emango ez zaien —adibidez, emakumeen kontrako indarkeria eta genero-indarkeria— arazoetan. Gainera, arazo horiek nola interpretatu behar diren adierazten digute (nazioarteko eran-tzuna beharrezkoa den edo arazo nazional bat den). Denborak aurre-ra egin ahala, kontakizunak eta esparruak naturalizatu egiten dira, eta onargarriak diren bakarrak direla ematen du. Hori dela eta, kontaki-zun errazek botere handia dute.

Baina, zergatik proposatzen eta hedatzen dira kontakizun errazak? Hedabideek istorio errazak aurkitu behar dituzte, lerro edo minutu gutxitan konta daitezkeenak (hitzetan edo iruditzen), irakurle, entzule

edo ikusleek erraz uler eta gogora ditzaten. Krisi kronifikatuen kasuan (esate baterako, palestinarren eta israeldarren arteko gatazkan), oso garrantzitsua da kontakizun erraz bat izatea, oro har uste baita oso gatazka korapilatsua dela eta, horren ondorioz, *ezin landuzko gatazka* bihurtu dela.

ARIKETA: Kausak identifikatzen, arazoak detektatzen eta konponbideak ematen dituzten kontakizun errazak agerian jartzeko, pieza bat aukeratu dugu. Ariketa hau proposatzen dizugu:

1. Irakurri pieza.
2. Adierazi ea emakumeak gerraren eta baliabideekin arintzen ez den suntsipenaren biktimatzat hartzen dituen edo kontakizun mota hori deuseztatu egiten duen, okupazioa eta blokeoa Plo-ko krisi humanitarioaren oinarritzko kausak direla ondorioztatzen duelako.
3. Aurkitu testuaren tesia eta adierazi ea piezan proposatzen den kontakizunak genero-ikuspegia duen.
4. Identifikatu genero-ikuspegia duen komunikazioaren definizioarekin bat datozen iturriak, datuak, hizkuntza eta ikuspuntuak.

Palestinar emakumeen horma bikoitza: Israelen okupazioa eta matxismoa

Palestinar emakumeen istorioa bi hormaren kontrako borrokaren istorioa da. Aitak atzerrian beka batekin ikastea debekatu zionean aurkitu zuen Mariamek lehena, baina ez zuen amore eman. Gazako Zerrendako palestinar gazteak aita konbentzitu zuen, nebaren eta lehengusuaeren laguntzarekin. Orduan, maletak hartuta, Erezeko igarobidean azaldu zen, Israelen sartzeko prest. Patriarkatuaren horma gaindituta, bigarren horma topatu zuen Mariamek: okupazioarena. Israelgo soldaduek ez zioten irteten utzi, eta etxera itzuli behar izan zuen. Etxera bueltan, aitak neska ezkontzea erabaki zuen.

«Palestinar emakumeak ezin dira patriarkatutik irten, blokeoak eta okupazioak basaki elika-tzen dutelako», adierazi du Isabel Pérezek. Ekialde Ertainean espezializatutako kazetaria da Isabel, eta Gazako Zerrendan bizi da. Egunero, Mariamenaren antzeko istorioak biltzen ditu, «okupazioak palestinar emakumeengan dituen eraginak» erakusteko. «Emakume palestinarren borroka hirukoitza bistaratu beharra dago: patriarkatuaren aurkako, Israelen okupazioaren kontrakoa eta, emakumeak etxeko zereginetara mugatzeko joera duelako, Mendealdeko ikuspegiaren kontrakoa», adierazi dute bederatzia ema-

kume adituk. Madrilen bildu dira aste honetan —haietako batzuk bideokonferentzia bidez— «Palestina, hango emakumeen begietatik» eztabaidarako.

Errealitate horretaz ohartzeko, israeldarren mugimendu koloniala Palestinara iritsi zenekoa ekarri behar da gogora; izan ere, Palestinan 1948ko Nakba hondamendiaren aurretik zenbait emakume-elkarte lortzen hasiak ziren aurrerapenak geldiarazi egin zituen.

«XX. mendearen amaieran, palestinar emakume-mugimendu batzuk bat egin zuten britainiarren kolonizazioaren mehatxuari aurre egiteko. Gerora, beste mugimendu batzuek mugimendu sionistaren kontrako jarrera hartu zuten», azaldu du Mar Gijónek, Arabiar eta Islamiar Ikasketetan doktorea eta *Historias del movimiento de mujeres en Palestina* liburuaren egilea denak.

El Diario.es, 2017ko martxoaren 7a

2. ETAPA. KONTAKIZUN NAGUSIAK SAIHESTEA

Kontakizun nagusiak finkatuta daude kazetarien imajinarioan, baina beti dago sinplistik ez diren ordezeko kontakizunen bidez haiei aurre egiteko aukera. Hurrengo adibideak argi eta garbi erakusten du zein den kontakizun nagusia, emakumeek eta neskatoek indarkeria nola sentitzen duten ulertu behar denean.

KONTAKIZUN NAGUSIAREN ADIBIDEA: EMAKUMEA BAKETSUA DA – GIZONA BORTITZA DA

* **KONTAKIZUN ERRAZA:** Palestinar emakumea bakearen eremuan —harmonia, bitzita, zainketa, zirrarak...— mugitzen da; palestinar gizonak gatazkaren eremuak —indarra, indarkeria, boterea, nagusikeria...— bultzatuta jarduten du.

* **KONTAKIZUN EZKUTUA:** Kontakizun horretan, emakumeak gatazkako biktimak dira; gizonak, berriz, heroiak edo zitalak izan daitezke. Eskema horretan, gizonak gatazkaren konponbidean hartzen dute parte, bai indarraren legezko erabilera gauzatzen dutelako, bai bakea lortzea erabakitzen dutelako. Emakumeak, berriz, bake-akordio horien hartzaile pasiboak dira; alegia, indarkeria erabiltzen edo eteten duen eragilea izateko ahalmena ukatzen zaie.

* **ORDEZKO KONTAKIZUNA:** Emakumeek indarkeriaren aurkako eta bakea eraikitzeko prozesuetan egiten duten lanaren berri ematea da kontua. Halaber, gizonen aniztasuna adierazteko helburua ere badago; esaterako, gerra egiteko agindua betetzen ez duten gizonak ere badaudela jakinaraztekoa.

OHIKO ADIERAZPENAK KONTAKIZUN NAGUSIAREN ARABERA

Okupazioaren biktimak dira, Plo-ko gainerako biztanleak bezala.

ORDEZKO ADIERAZPENAK GENERO IKUSPEGIA OINARRI HARTUTA

Gatazka armatuak eta okupazioaren ondorio den krisi humanitarioak berariazko eraginak dituzte emakumeengan.

Plo-ko biztanleria talde homogeneo gisa aurkezten da, indarkeriak, gatazka armatuak eta krisi humanitarioak emakumeengan eta neskatoengan dituzten eragin espezifikoak dokumentatu gabe.

Kontakizun hori aldatzeko, indarkeriak eta gatazkak emakumeengan eta neskatoengan dituzten eragin espezifikoak ikertzea proposatzen da.

Palestinarrak emakumeak pasiboak, ezgaiak, otzanak, manipulatuak, antigoalekoak eta familia ugarien amak dira.

Okupazioa hasi zenean aldatu zen genero-sistema, eta, orain, Plo-an bizi diren emakumeak zapaltzen ditu.

Era sinplista batean, ahaztu egiten dira edozein sistema patriarkali dagozkion kausak, eta israeldarren okupazioak emakumeen kontrako genero-indarkeria nola areagotzen duen ere alde batera uzten da. Indarkeria matxista, patriarkatua justifikatua, existitzen da bake-garaietan; baina, gatazka dagoenean, areagotu eta dibertsifikatu egiten da. Mundu musulmanari irrazionaltasuna eta indarkeria leporatzen zaizkio. Horretarako, topikoak aipatzen dira, hala nola beloa eta negarra.

Kontakizuna aldatzeko, okupazioak rolen banaketa tradizionalako genero-roletan nola eragiten duen aztertzea proposatzen da.

Emakumeak pertsona babesgabeak dira, ez dira gizarteko subjektu aktiboak.

Emakumeak politikoki antolatzen dira, eta parte hartzen dute, Plo-ko emakume-mugimenduan bezala.

Gatazka armatu baten berri ematen denean, mugimendu feministak edo emakume-kolektiboak ez dira normalean hedabideetan azaltzen. Beraz, emakumeen aldarrikapenak garrantzitsuagotzat hartzen diren beste alderdi batzuen —politikoak, estrategikoak, makroekonomikoak...— mende daude. Hedabideek azken horietan jartzen dute arreta.

Kontakizuna aldatzeko, informazioaren iturri eta subjektu gisa emakumeak dituzten ekintzak eta gertaerak bistartzea proposatzen da.

3. ETAPA. ISILARAZITAKO ISTORIOAK BILATZEA ETA KONTATZEA

Kazetaritza orokorrean, ikuspegi androzentrikoa da nagusi; hori dela eta, kanpoan geratzen dira kontakizun nagusiarekin bat ez datozten istorio guztiak. Beste edozein errealitatetan bezalaxe, isilarazitako istorio asko daude emakumeen kontrako diskriminazioarekin lotuta; hona hemen hainbat adibide: sexu-krimenak, emakume borrokala-

riak, alargunen gizarte-egoera, diskriminazioa gizarte-egoerarik ahulenean dauden taldeetan —gutxiengo etnikoak, sexu-gutxiengoak, elbarri dauden emakumeak, adinekoak...— eta oinarritzko eskubideak urratzea (lurra izatekoa, familia-oinordetzarakoa edo seme-alaben kopurua planifikatzekoa). Egoera horietako batzuk gatazkaren erdi-erdian sortzen dira. Beste batzuk, ordea, ez dira inoiz desagertzen, indarkeria armatua egon ala ez; horri, indarkeriaren *continuum*a deritzo. Garrantzitsua da istorio horiek bilatzea eta kontatzea; alde batetik, estereotipoak hausteko eta, beste batetik, gatazkaren eta krisi humanitarioaren testuinguruaren konplexutasuna ezagutarazteko, genero-ikuspegia kontuan hartuta.

Taula honetan, isilarazitako zenbait istorio ageri dira — ohiko hedabideek ez dute haiei buruz ezer kontatu edo oso gainetik landu dira—. Gainera, estaldura egiteko arrastoak ematen dira.

EMAKUMEEN ETA NESKATOEN KONTRA EGINDAKO KRIMENAK

GATAZKA ARMATU BATEAN Gatazka armatuan zehar egiten diren krimenak, inpunitatearen edo gatazka osteko amnistien eraginez bazter utz daitezkeenean. Krimen horiek behar bezala izendatzeko, gerrari eta nazioarteko zigor-justiziari buruzko nazioarteko tratatueta jo behar da.

ISILARAZITAKO ISTORIOAK

* Armada erregularrek edo bake-taldeek egindako sexu-krimenak (bortxaketak, esklabotza, salerosketa).

* Sexu-indarkeria lekualdatutako pertsonen edo errefuxiatuen kanpamentuetan.

* Gizonen eta mutikoen kontrako sexu-indarkeriako krimenak.

* Familia barruko genero-indarkeria.

ESTALDURA EGITEKO ARRASTOAK

* Terminologia zaintzea: biktimak ala bizirik irten diren pertsonak?

* Bizirik irten diren pertsonen elkarriketa zaintzea eta planifikatzea.

* Sentsazionalismora ez jotzea: publikoari testuingurua ulertzen laguntzea, genero-krimenak nazioarteko zigor-zuzenbidean eta nazioarteko zuzenbide humanitarioan sartuz.

* Krimenak naturalizatzeko saioei aurre egitea, «salagarria da, baina ulergarria ere bai» eta antzeko adierazpenak saihestuz.

* Jarraipena egitea: nola egin dute aurrera? Nola pertsegitzen dira delituak?

* Badago justiziarik edo erreparaziorik?

BAKE GARAIA Gatazkan eta indarkeria armatuan areagotzen diren abusuak. Abusu horiek behar bezala izendatzeko, dena delako herrialdeak sinatutako nazioarteko tratatueta jo behar da, baita emakumeen kontrako genero-indarkeria zigortzeko, prebenitzeko eta desagerrarazteko lege nazionaletara ere.

ISILARAZITAKO ISTORIOAK

* Gizarteek emakumeen aurka onartzen dituzten krimenak, hala nola ohorezko edo zigortzeko krimenak.

* Bikotekideak, senitartekoeak edo beste gizon batzuek eragindako sexu-indarkeria.

* Haur-ekontza.

* Familiaren lurretara sartzeko debekua.

* Oinordetza jasotzeko debekua.

* Zenbait gestio egiteko gizon baten tutoretza izateko betebeharra.

* Poligamia.

ESTALDURA EGITEKO ARRASTOAK

* Abusu horien berri emateko ulertu beharra dago zenbait lege nazionalak eta ohiturazko zuzenbideak babestu egiten dituztela giza eskubideen kontrako jardura kaltegarri horiek.

* Ezinbestekoa da iturri espezializatuak aurkitzea, jardura horiek emakumeen bizitzan eta gorputzetan dituzten eraginak azaltzeko.

Mugimendu feministak edo emakumeen kolektiboak ez dira komunikabideetan agertzen gatazka egoeretan. Modu honetara, emakumeen errebindikazioak bigarren plano batean uzten dira, beste aspektu politiko, estrategiko edo makroekonomikoei garrantzia eta komunikabideetan estaldura emanez.

EMAKUMEAK GATAZKA ARMATUAREN GARAIA**ISILARAZITAKO ISTORIOAK**

* Emakumeak gerraren ekonomian.

* Emakumeak matxino-taldeetan: emakume borrokalariak, garraiolariak, sexu-esklaboak...

* Emakumeak segurtasun-indar erregularretan (polizian eta armadan).

* Desarmatze-, desmobilizatzeko- eta gizarteratze-prozesuen (DDR-en) istorioak (emakumeenak).

* Gerrako alargunak eta umezurtz adingabeak.

ESTALDURA EGITEKO ARRASTOAK

* Zergatik sartu ziren?

* Euren borondatez batu ziren?

* Emakumeek errekrutatutako izateko arrisku handiagoa dute gizonak baino?

* Beste moduren batean tratatzen dituzte, gizonekin alderatuta?

* Arazo espezifikoak dituzte, DDR-ari dagokionez?

* Gizarteak alargunei egiten dien presioa ikertzea.

* Nola antolatzen dira ekonomikoki?

* Zein eskubide dituzte alargunak izateagatik? Eska ditzakete eskubide horiek?

* Alarguntasunak edo zurzutasunak ahaldundu egin ditu? Nola?

EMAKUMEAK ETA BAKEAREN ERAIKUNTZA

BAKEAREN ERAIKUNTZA

Bake-prozesuak:

- * Bake-negoiazioak.
- * Bake-akordio formalak.
- * Bake-akordio informalak.

ESTALDURA EGITEKO ARRASTOAK

- * Nor dira negoziatzaileak? Nor ordezkutzen dute?
- * Bake-prozesuek hartzen dute aintzat genero-ikuspegia?
- * Bake-akordio formalek objektu bihurtzen dituzte emakumeak?
- * Bake-akordio informaletan, hartzen dira aintzat emakumeen ekarpenak?

4. ETAPA. ISILARAZITAKO ISTORIOEN TESTIGANTZAK ERREGISTRATZEA

Testigantza on baten bitartez, inoiz ezagutarazten ez diren giza eskubideen urratze guztiak kontatu ditzakezu; hots, abusuak izan arren halakotzat hartzen ez diren urratzeak. Gainera, abusetatik eta krimenetatik bizirik irten diren pertsonen bizitza-istorioen berri ematea funtsezkoa izan daiteke emakumeek euren bertsioa segurtasunez eman dezaten eta mesede egin diezaien beraiei jabetze-prozesuetan. Biktimak batzuentzat, askatzailea eta terapeutikoa da hitz egitea; beste batzuentzat, berriz, elkarriketa bat atzerapauso bat izan daiteke sendatzeko edo mina gainditzeko prozesuan.

Kontuan izan genero-indarkeriatik bizirik irten den emakume bat ez dagoela edo ez dela bizi nahitaez traumatizatuta (hainbat faktore daude: prozesu pertsonala, izaera, bizipena, kanpoko laguntzak eta epaiketa-prozesua, egonez gero). Halaber, egia eta erreparazioa bilatzeko prozesua ere hartu behar kontuan, besteak beste. Gainera, jazarpen mediatikoak pertsona horien edo senitartekoen egoera larriagotu dezake, Isabel Pérez kazetariak deskribatzen duen egoeran bezala.

Aspalditik karabana humanitarioetan bizi diren pertsonak elkarriketatzeraz bazoaz eta, Israelgo armadak bonbardatu ondoren, euren etxea berreraiki gabe dagoela ikusten baduzu, eta, 20 elkarriketa egin eta gero, euren esparrutik botatzen bazaituzte, hauxe esaten dizute: «ez etorri berriro, ez dugu elkarriketa gehiagorik eman nahi eta; haserre gaude munduarekin». Orduan, zure etika pertsonala eta profesionala uztartu egiten dira (...).Duela bi aste, hauxe gertatu zitzaidan: emakumeak oihuka hasi zitzaizkien kazetari guztiei, arkumearen jaia egiteko janaria zekarren talde bat iritsi zen eta denok batera joan ginen, izan

ere, kazetariok, nire ustez, indarkeria handiz iristen gara leku horietara. Argazki bat hemen, argazki bat han... «Tira, egin elkarrizketa gurekin!»... Jendearengana besterik gabe hurbiltzen gara, aurkeztu gabe: «Kaixo, zer moduz? Urlia naiz»... Ezinbestekoa da norberaren burua aurkeztea. Eta emakumeak oihuka hasi zitzaizkigun, handik bota nahian, eta normala da. Orduan, hurbildu egin nintzairen. Eta, hurbiltzeaz bat, irribarre egiten dizute, norbaitek behintzat aurrez aurre hitz egiteko begirunea izan duelako, ez garrasika edo hiru edo lau metro harantzago. (...) Eta azaltzen diezu: «Nik zuen egoeraren berri eman besterik ezin dut egin. Nahi baduzue, elkarrizketa egingo dizuet. Gonbidatzen bagaituzue, zuen karabana suntsituetan sartuko gara, eta, nahi ez baduzue, ez zaituztegu grabatuko». Eta, ondoren, ulertu egiten dute eta hitz egiten dute, arazo barik, nekatuta egon arren.

Isabel Pérez, freelance kazetaria, Gazako Zerrendan bizi dena

Bada beste arrazoi bat emakumeek hedabideetan aditu, bozeramaile edo lekuko gisa gutxiago parte hartzeko: etsaitasun-esparrutaz hartzen dituzte, emakumeak eroso sentitzen ez diren lekutaz.

Orduan, nola presta dezakegu elkarrizketa bat zer aurkituko dugun jakin gabe? Eta nola jaso abusu larriei edo krimenei buruzko bizitza-istorioak edo testigantzak, jendeari kalte handiagorik egin gabe?

INDARKERIAREN ETA GATAZKA ARMATUAREN TESTUINGURUETAN TESTIGANTZAK JASOTZEKO JARRAIBIDEAK

- * Aurkeztu zure burua begirunez, azaldu zer asmo duzun, materiala erabiliko duzun ala ez eta argitaratzeko aukerarik dagoen.
- * Azaldu nola egingo duzun elkarrizketa, edo nola jasoko duzun testigantza. Adostu pertsonarekin elkarrizketaren baldintzak. 1. Galdetu ea anonimatuari eutsi nahi dion (egiaztatu hori bermatzeko baliabideak dituzula). 2. Lehenik, hitz egin emakumearekin; gero, atera kamera, mikrofonoa edo grabagailua.
- * Gogoratu elkarrizketatuko duzun pertsonak jartzen dituela kaze-taritza-lanaren baldintzak: non, noiz eta nola kontatu nahi duen bere istorioa. Berdin jokatu argazkiak egiteko edo grabatzeko ere.
- * Askatasun osoz hitz egiten utzi behar diozu biktimari edo haren senitartekoari, eta eman nahi duen informazioa aukeratzen.
- * Oro har, pertsona horiek trauma-maila handia dute: tratatu duintasunez, errespetuz eta adeitasunez. Izan enpatikoa galderak egiten dituzunean, ez daitezen inbaditzaileak edo zakarrak izan: nola sentituko zinateke zuri egoera horietan galdetuko balizute? Beharrezkoa bada, eten elkarrizketa (elkarrizketatuak atsedena eskatu edo behar badu, negarrez badago eta abar).

- * Kontuan izan kazetaritza-lanaren mugak: elkarrizketatutako pertsonen osasuna eta duintasuna dira lehentasunezkoak, ez zuk jaso nahi duzun istorioa. Ez luzatu elkarrizketa beharrezkoa baino gehiago.
- * Jarri arreta etengabe eta entzun aktibotasunez. Gogoratu: isiltasuna urrea da.
- * Ez behartu eta ez engainatu. Halaber, ez egin bete ezin edo nahi ez dituzun promesak (dirua biltzea, kanpaina bat egitea...).
- * Ez saiatu errukitsua izaten; bilatu enpatiaren eta profesionaltasunaren arteko oreka, konfiantzaren eta distantzia errespetutsuaren artekoa.

Eta... genero-krimenen (hala nola sexu-indarkeriaren) biktimak izan diren emakumeak elkarrizketatzen badituzu, gogoan izan:

- * Nola gainditu *biktima* kategoria? Galdetu emakumeari zer pentsatzen duen krimenarekin loturarik ez duten gaiei buruz; ez ahaztu biktima oraindik ere pertsona, emakumea eta herritarra dela.
- * Informazioan, adierazi nor diren abusuaren erantzuleak, krimenaren erantzukizuna egileari esleitzeko, *egilerik gabeko krimen* bat ez aurkezteko.
- * Elkarrizketa egitean eta zure pieza idaztean, ez erabili «gaixoa» eta antzeko adjektiboak, edo eman nahi duzun informazioari inolako ekarpenik egiten ez dioten adierazpenak.



5. ETAPA.

GATAZKA KRONIFIKATU BATEKO

EGUNEROKO BIZITZAREN BERRI EMATEA

Luzatzen den gatazka batean, garrantzitsua da eguneroko bizitzari buruz informatzea. Horretarako, gatazkan bizi eta hura jasan arren beren ohiturei eta eguneroko borrokei —esaterako, uraren bila joatea, erosketak egitea, lanera joatea, azokan erostea eta eskolara joatea— eusten dieten pertsonen iritziak eta istorioak jaso behar dituzu. Kazetaritzak jendeari gatazkan zer gertatzen zaion kontatu behar du, baina baita gatazka gorabehera zer gertatzen zaion ere. Gomendio horri jarraituz lan egiteko, hauxe proposatzen dizugu:

1. urratsa. Zerrenda batean, idatzi emakumeei eta neskatoei gatazkaren eta indarkeriaren ondorioz eguneroko bizitzan eragiten dieten gaiak.

Garrantzitsua da emakumeei eta neskatoei eguneroko bizitzan sistematikoki eragiten dieten arazoak eta oztupoak identifikatzea; izan ere, haiek ezagututa, indarkeriak haiengan duen eragina deskriba eta irudika daiteke (testua edo argazkiak erabiliz gero). Arazo eta oztupo horietako bakoitza bizitza-testigantza edo elkarriketa baten bidez kontatu daiteke.


Plo-aren kasuan, hona hemen arazoaren edo gaien zerrenda bat, neskatoei eta emakumeei elkarriketak egitean eta piezak produzitzean erabiltzeko:

Gaia

- * Gaixotasun larria edo kronikoa duten pertsonen osasun tratamendua lortzeko duten zailtasuna edo ezintasuna
- * Enplegua, gazteen langabezia eta soldata-arraila
- * Diskriminazioa lanean
- * Lan-bizitza eta familia bateragarri egitea (esaterako, amatasuna eta lana)
- * Sexu- eta ugaltze-osasuna (haurdunaldia, kontrazepzioa...)
- * Emakumeen autonomia eguneroko bizitzan
- * Dibortzioa
- * Tokiko erakundeen lana gatazkaren edo krisi humanitarioaren testuinguruan
- * Landako bizimodua versus hiriko bizimodua
- * Ohitura diskriminatzaileak
- * Lurra eskuratzeko arazoak
- * Alarguntasuna
- * Autonomia ekonomikoa
- * Parte-hartze politikoa

2. urratsa. Proposatu gatazkaren eta krisi humanitarioaren testuinguruetan bizi diren pertsonen euren ohiturei eta eguneroko borrokei eusten dietela ulertarazteko piezak.

Oso garrantzitsua da emakumeek eta neskatoek kronifikatutako krisi egoeretan erakusten duten erresilientziaren berri ematea, hedabideen kontakizun nagusia indargabetzeko. Normalean, krisi-garaian, muturreko egoeretan dauden biztanleei buruz informatzen dute hedabideek; azken batean, agoniaz. Horretarako, adibide egokiak bilatu behar dira: erresistentziak, bizirik irauteko estrategia indibidual edo kolektiboak, eguneroko borrokak... Dena den, horrez gain, gatazkaren erdian eguneroko bizitzako edozein unetan egiten diren gauzak nabarmendu behar dira: eskolara joaten direnean, unibertsitatean graduatzen direnean, kirol bat egiten dutenean...




2016an, UNRWA Euskadik Susanna Martinen komikia argitaratu zuen: *Gaza Amal: Gazako Zerrendan emakume ausarten istoriotxoak*. Komiki horretan, Amal, Hura, Khadira eta Hazeem emakume gaztarren istorioak kontatzen dira, palestinar emakumeekin erlazionatuta dauden kultura- eta genero-este-reotipoak deuseztatzeko.

ARIKETA: Proposatu erreportaje bat, gatazka armatu baten testuinguruan eguneroko bizitzaren berri emateko.

4 IBILBIDEA

HITZEN IBILBIDEA



Hitzen Ibilbidean, hedabideek erabilitako hizkuntza aztertu, eta sexismoa, hizkuntza matxista, emakumeak iraintzen dituen hizkuntza eta kontakizun baztertzailerak ez erabiltzeko adibideak eta jarraibideak emango ditugu. Lau etapa ditu:

Irakurri titular hau, gaztelaniaz. Gero, itxi begiak eta imajinatu zein diren protagonistak:

Dos israelíes muertos y cinco heridos en el ataque de un palestino en Jerusalén

Titular hori irratiko albistegi batean entzungo bazenu, imajinatuko zenuke hildako eta zauritutako israeldarren artean emakumeak daukela? Gaztelaniaz maskulinoan hitz egiten dugunean, maskulinoan pentsatzeko joera daukagu. Gida hau egin aurreko ikerketan aztertutako albisteetan —gaztelaniazkoak dira—, bi sexuak barne hartu nahi dituen plural maskulinoa da nagusi: «los palestinos y los israelíes», «los muertos y los heridos», «los expertos» eta abar. Formula horiek indartu egiten dute gatazkako protagonistak gizonak direlako pertzepzioa. Gaztelaniazko artikuluko batean «los muertos» adierazpidea erabiltzen bada eta irudietan gizonen gorpuak ikusten badira, ondorio inplizitua da erasoetan gizonak soilik hiltzen dituztela.

Hizkuntzaren erabilerak tratu-berdintasuna areagotzen lagun dezake, edo, aitzitik, emakumeak ikusezin bihurtzen. Gaztelaniaz modu inklusiboan komunikatu beharra zalantzan eta barregarri utzi da aspertu arte. Baina zer gertatzen ari den kontatzeko maskulinoa generikotzat erabiltzen badugu, herritarrek informazio horiek androzentrismotik kodetzea ari gara eragiten. Ibilbide hau zeharkakoa da gainerakoekin, eta hauxe proposatzen dizugu hedabideen joera hori saihesteko.

1. ETAPA.**HIZKUNTZA EZ-SEXISTAREN ERABILERAREN
DEFENTSA ARRAZOITUA EZAGUTZEA**

ZALANTZAN JARTZEN DENA	ERANTZUNA
Gaztelaniaz, maskulinoak bi generoak hartzen ditu barne. Ez da kontu ideologiko bat, arau gramatikal bat baizik.	Boterea duenak dauka gauzak (eta pertsonak) izendatzeko boterea. Gizona subjektu unibertsaltzat hartzen duen gizartean, uste izaten da «el hombre» adierazpidean gizonak eta emakumeak sartzen direla edo genero maskulinoak bi sexuak hartzen dituela barne.
Gaztelaniazko maskulino generikoaren ordeztu erabiltzen diren errepikapenak nekagarriak dira irakurleentzat eta entzuleentzat. Gainera, ez dute betetzen hizkuntzaren ekonomia oinarritzko printzipioa.	Askotariko baliabideak daude hizkuntzan emakumeak ere aintzat hartzeko, forma bikoitzekin nekatu gabe. Ondorengo taulan, zenbait adibide ematen dira.
Feministek hizkuntza hondatzen dute hiztunentzat arrotzak diren hitz arraroak erabiliz, adibidez: «miembra», «actora» eta «médica».	Hizkuntza bizirik dago, eta gizarte-aldaketak islatzen ditu. Emakumeak esparru maskulinizatueta sartu diren neurrian, «presidenta», «abogada», «jueza», «concejala» eta beste hitz batzuen erabilera zabaldu da gaztelaniaz. RAEk onartu egiten ditu hitz horiek guztiak. Feminismoan, beste hitz batzuk feminizatzea sustatzen da; besteak beste, «miembras», «actoras» [gatazka armatuetan] eta «sujetas» (eskubide-subjektuak).
Emakumeek sentitzen dute maskulino generikoak barne hartzen dituela, gaztelaniazko sistema gramatikalean finkatutako erabilera bat delako.	Julia Lopez Giraldezek dionez, «Hizkuntza irakatsi eta ikasteko prozesua heziera-prozesu bat da. Hartan, emakumeok eta neskatook izendatuak ez izaten ohitzen gara, eta ez egote hori naturaltasunez adierazten». «Gizonaren eskubideak» [derechos del hombre] ordeztu «gizakiaren eskubideak» [derechos del ser humano] esan behar zela ulertu zen bezala, kontzientzia kolektiboan aurrera egiten ari da gizona (el hombre) subjektu unibertsal edo neutrotzat hartzen duten erabilerak baztertu beharra.

2. ETAPA. HIZKUNTZA MASKULINO GENERIKOA SAIHESTEKO FORMULAK ERABILTzea

BALIABIDEAK	ERABILERA ANDROZENTRIKOA	ERABILERA INKLUSIBOA
«Personas» hitza	* 50 muertos	* 50 personas muertas
Benetako generikoak	* Los palestinos * Los redactores * Los alumnos	* El pueblo palestino * La redacción * El alumnado
Forma pertsonalak aldatzea	* Los palestinos * Escritores, pintores y actores	* En Palestina, en tPo. * Personalidades de la cultura (de la literatura, el arte y el cine)
Forma bikoitzak	* Jóvenes y niños * Los expertos	* Jóvenes, niñas y niños, menores, la juventud, la infancia * Las y los expertos
Subjektua ez aipatzea	“Nosotros exigimos al Estado de Israel...”	“Exigimos al Estado de Israel”

ARIKETA: Alderatu bi hedabidek albiste berari buruz argitaratutako artikuluen titular hauek eta haien sarrerak. Zure ustez, zeinek lortu du ondoen hizkuntzaren bidez emakumeak agerian jartzea? Nola berridatz genezake titularra maskulino generikoa kentzeko?

Cuatro muertos al ser arrollados por un camión en un atentado en Jerusalén

Un joven palestino embistió con un camión este domingo a un grupo de soldados israelíes y causó la muerte de cuatro de ellos, además de heridas a otros 17. El ataque fue perpetrado en el paseo de Armón HaNatziv, en el este de Jerusalén, cerca del cuartel general de las fuerzas de la ONU en Oriente Próximo. Tres de las víctimas eran mujeres que cumplían el servicio militar en el cuerpo femenino de las fuerzas armadas, el Tsahal. El cuarto muerto era un varón, también soldado del Ejército. Los cuatro tenían entre 20 y 22 años.

(El País, 2017ko urtarrilaren 8a)

Cuatro soldados israelíes muertos y 15 heridos en un atropello con un camión en Jerusalén

Uno de los atentados más letales de los últimos meses en Jerusalén acabó este domingo con la muerte de cuatro jóvenes israelíes, una oficial y tres soldados (entre ellos, dos mujeres) y heridas a otros 17. Entre ellos, dos en estado crítico.

(El Mundo, 2017ko urtarrilaren 9a)

3. ETAPA. HIZKUNTZA SEXISTAREN BESTE AKATSAK EZAGUTZEA ETA SAIHESTEA

Maskulino generikoa da argien identifikatzen den erabilera sexista, baina badaude kontuan hartu beharreko beste akats batzuk:

1. Emakumeak kolektibo homogeneo bat balira bezala aipatzea:

Ohikoa da hau bezalako titularrak aurkitzea: «*Emakumeak eta laboristak funtsezkoak izan daitezke Eskozian*». Kasu hauetan oso baliagarria da García Meseguerrek proposatzen duen araua, alderantziz esatea: Idatziko lukete «*Gizonak eta laboristak funtsezkoak izan daitezke Eskozian*»? Gizonak oso gutxitan aipatzen dira kolektibo gisa, araua direla onartuta baitago.

Illo berean, emakumeak pluralean aipatzea gomendatzen da, «emakumea» saihestea: «**Palestinar emakumearen egoera**» barik «**Palestinar emakumeen egoera**» erabiltzea.

Gaztelaniazko kazetaritzan, behin eta berriz erabiltzen diren formulatoko bat «ellas» da, eta saihestu egin beharko litzateke, emakumeek ingurune maskulinizatuan gauzatzen duten jarduera nabarmendu nahi denean: «*Ellas pintan mucho*» (komikiak egiten dituzten emakumeei buruz hitz egiteko) edo «*Ellas también golpean*» (boxeoan diharduten emakumeei buruz hitz egiteko).

Juana Gallegok adierazten du «Ellas son muy peligrosas», «Ellas hacen guardia» eta antzeko titularrek ez dutela zentzurik, baldin eta «nosotros» bati aurre egiteko erabiltzen ez bada; izan ere, «nosotros» horren azpian, subjektu unibertsal maskulinoa da, eta femeninoa bestetasuna.

2. Asimetriak emakumeak eta gizonak aipatzeko moduan:

Gida hau egin aurreko ikerketan aztertutako albisteetan ikusi zen gizonen kargua eta izen osoa erabiltzeko joera zegoela eta, emakumeen kasuan, ez zela gauza bera egiten. Hizkuntzaren erabilera sexistari buruzko gidetan, hedabideetan behin eta berriz erabiltzen diren asimetria hauek aipatzen dira:

Gizonak abizenaren bidez eta emakumeak izenaren bidez aipatzea: «Rajoy eta Soraya». Hori oso ohikoa da giza eskubideen defendatzaileri bati elkarrikeria egiten diogunean, emakumea bada. Galdetu zeure buruari: gizona izango balitz, izena erabiliko zenuke aipatzeko?

Gizonak abizenaren bidez soilik eta emakumeak izen-abizenaren bidez aipatzea: «Obama Angela Merkelekin bildu da».

«Gizonak» vs. «neskak» («Athleticeko gizonak» vs. «Athleticeko neskak»).

Lanbideetan, gaztelaniaz: «los médicos y las enfermeras». Genero bat edo bestea erabiltzea imajinarioekin dago lotuta, eta ez gizonak eta emakumeak lanbide horietan benetan duten proportzioarekin. Bestela, zergatik ez dugu femenino generikoa erabiltzen emakume gehien dauken lanbideetan, esaterako, irakaslerian, Humanitateetako titulazioetan eta medikuntzan bertan?

3. Komunztadura-akatsak: Gaztelaniaz, maskulino generikoaren erabilera orokorrak akats bat eragin ohi du: pertsonen hitz egitean maskulino erabiltzea. Esaterako: «Las personas más afectadas por la crisis son los desempleados de larga duración» (zuzena «son las desempleadas» izango litzateke).

4. Jauzi semantikoak: «Etorkinek eskubideak dituzte, baina baita be-teberrak ere: euskara ikastea eta emakumea errespetatzea». Maskulinoaren erabilera nahasi egiten du irakurlea, hasieran generikotzat hartzen baitu, nahiz eta azkenean argi dagoen esaldia gizonezkoei soilik dagokiela.

5. Estereotipo sexistak indartzen dituzten leku komunak: «55 muertos, incluidos mujeres y niños». Horrelakoak irakur ditzakegu gaztelaniaz. Genero-ikuspegia erabiltzeko saiotea har daitekeen arren, makulu-hitz horrek estereotipo hau indartzen du: emakumeak ez dira aktoreak, izaki babesgabeak baizik, eta ama-rolari lotuta daude. Gainera, maskulino generikoari eusten zaio, «niños» hitzak neskato-mutiko guztiak hartzen baititu. Zein dira aukerak? Datuak baditugu, zenbat emakume, gizon, neskato eta mutiko diren zehaztu dezakegu: «55 perso-

nas muertas: 30 hombres, 15 mujeres y 10 niñas y niños». Daturik ez badugu, bi generoetako eta zenbait adinetako zibilak direla adierazi beharko genuke.

Hona hemen estereotipoak indartzen dituzten beste topiko batzuk:

Ohorezko krimenak. Adierazpide hori ez erabiltzea gomendatzen dugu, edo, bestela, «ohorezko krimen deritzen horiek» edo antzekoak erabiltzea, emakumeen kontrako indarkeria naturalizatzen edo justifikatzen duen formula hori zalantzan jartzen dugula adierazteko.

Prostituzioa, munduko lanbiderik zaharrena.

Ama koraje.

Mahaian ukabilkada bat eman.

Amaitzeko, egokia den azken hausnarketa bat: Eta, genero-indarkeria jasan duten emakumez hitz egitean, zergatik ez dugu esaten bizirik irten direla, biktimak direla esan beharrean? Indarkeria-egoeretan dauden emakumeak formula horren alde daude, arreta ez baita jasandako sufrimenduan ipintzen, aurrera ateratzeko duten ahalmenean, indarrean eta ausardian baizik.

4. ETAPA. HIZKUNTZA INKLUSIBOA ERABILTzea

Emakume autore askok «hizkuntzaren erabilera inklusiboa» erabiltzen dute «hizkuntzaren erabilera ez-sexista» ordeztu, erabilera sexistaz gain heterosexistak, arrazistak eta diskriminatzaileak ere zaindu behar direla adierazi nahian. Zehar-ikuspegi hori ez da lantzen komunikazio ez-sexistari buruzko gida gehienetan.

Sexu-aniztasunari dagokionez, erabilera sexista da homosexualak generikotzat erabiltzea, lesbianak eta LGBTI komunitate osoa (lesbianak, gayak, transexualak, bisexualak eta intersexualak) aipatzeko. Heterosexista izan daiteke «bikote gazteen barruko indarkeria» jorratzea, bikote gazte heterosexualen errealitatea soilik landuko dela zehaztu gabe.

Halaber, oso ohikoa da hedabideetan nahaste handia egotea pertsona transgeneroei eta transexualei buruzko albisteen bat ematean. Espainiako Kazetarien Elkartearen Federazioak albiste bat zuzentzeko eskatu zien 11 hedabideri. Emakume transexual baten hilketari buruzko albistean, hedabide horiek maskulinoan aipatu zuten («un transexual» edo «un joven»); hau da, ez zuten haren genero-identitatea errespetatu, eta ez zuten indarkeria matxistaren biktima zela adierazi.

Garrantzitsua da kapazitista ez den hizkuntza bat erabiltzea; hau da, dibertsitate funtzionala edo gaixotasun mentalak dituzten pertsonak baztertzan ez dituen eta haiei buruzko estereotipoak elikatzen ez dituen. Esaterako, «minusbaliatuak» edo «ezinduk» hitzak erabiltzeari utzi eta, haien orde, «dibertsitate funtzionala duten pertsonak» erabil dezakegu. Orobat, garrantzitsua da gaixotasun mentalak zorrotz aipatzea, «ero», «eskizofreniko» edo antzeko adjektiboak arinkeriaz erabili gabe.

Hizkuntza inklusiboak esan nahi du hitzak ganoraz erabili behar direla; batik bat, kultura-testuinguru batzuetan, iritzi publikoaren pertzepzioa aurreiritziek lausotuta badago. Esate baterako, ez ditugu «arabiar», «musulman» eta «islamiko» kontzeptuak nahastu behar. Belo islamikoaz ari bagara, *hijaba*, *burka* edo *niqaba* ez dira gauza bera (ikus definizioak 6. Glosarioa atalean).

Galdetu Fundéuri

Gaztelaniari dagokionez, Fundación del Español Urgente delakoak Espainiako Errege Akademiak baino arinago eta malgutasun handiagoz onartzen ditu teoria eta mugimendu feministaren hitzak. Adibidez, RAEk ez du «sorodidad» (sororitate) onartzen; Fundéuk, berriz, hitz egokitza hartzen du mugimendu feministan emakumeen arteko elkartasun-harremanaz aritzeko. RAEk «feminicidio» soilik onartzen du, eta Fundéuk «femicidio» ere bai, kontuan hartuta ñabardura desberdinekin erabiltzen direla biak Latinoamerikan. Eta, hitz bat onartzen ez badu, fundazioak ez du hain zorrotz jokatzeko: «Aunque la variante miembro no estaría mal formada de acuerdo con el sistema morfológico español, se trata de una forma no recomendada por la Academia». Webguneaz (fundeu.es) gain, Fundéuri kontsultatzeko modu oso dinamiko bat Twitteren bidez galderak egitea da —@fundeu—.




5 IBILBIDEA

IRUDIEN IBILBIDEA



1 ETAPA

GENERO-IKUSPEGIA AINTZAT
HARTUTA FILMATZEA ETA
ARGAZKIAK ATERATZEA



2 ETAPA

ESTALDURA PRESTATZEA

A skotan, pantaila bat begien aurrean daukagula bizi gara; ezin da irudien indarra gutxietsi. Eguneroko irudi-jario etengabeen ere, estereotipo sexistak daude, emakumeak biktimizatzen, objektutatzen, ama sakrifikatutzat, sexu sentikortzat eta mendekotzat erakusten dituztenak. Ibilbide honetan, bi etapa daude:

1. ETAPA. GENERO-IKUSPEGIA AINTZAT HARTUTA FILMATZEA
ETA ARGAZKIAK ATERATZEA

Irudiak errealitatea irudikatzeko mekanismo sinbolikoak dira, eta ahalmen handia dute gizarte baten imaginario kolektiboa eratzeke. Hori kontuan hartuta, ondoriozta dezakegu garrantzitsua dela emakumeak modu gehiagotara irudikatzea eta indarkeria ez handiagotzea, emakumeen estereotipoak errepikatzen dituzten mezuak deuseztatzeke.

Albisteetan eta informazio-estalduretan, irudiek komunikazio-indar handia dute. Ohiko joera da irudi bat eta harekin lotutako ideiak errealitate objektiboarekin parekatzea. Hortaz, beharrezkoa da manipulazio-arriskuei eta erakusten ditugun irudien ondorioei buruz hausnartzea. Zintzotasunari eustea da helburua.

LANA	HELBURUA	ARRASTOA
Testuingurua adieraztea	Emakume-erakundeen eta emakume protagonisten bulegoen edo etxeen kokalekua bilatzea.	Egin albistean aipatzen diren iturri nagusien hartualdiak. Eskatu baimena emakumeei euren lantokietan edo elkarrizketaren xede den jarduera nagusia egiten duten lekuan grabatzeko.
Gatazkak azaltzea	Gatazka nagusia osatzen duten gatazken berri ematea.	Emakumeek esaten badizute azokan eta checkpointetan segurtasun-gabezia handia sentitzen dutela, zoaz leku horietara emakumeak daudenean irudiak grabatzera.
Kausak azaltzea	Artxiboko irudiak bilatzea.	Eskatu elkarrizketatzen dituzun emakumeei argazkiak emateko, baldin badituzte.
Eman berdintasunezko irudiak	Tratamendu grafikoan genero-asimetriak saihestea.	Erabili antzeko angeluak emakumeei eta gizonei argazkiak egitean edo grabatzean (gizonen kasuan kontrapikatua...

Eman berdintasunezko irudiak

Tratamendu grafikoan genero-asimetriak saihestea.

... eta emakumeen kasuan pikatua erabili beharrean]. Emakume bati posatzea eskatzen diozunean, galdetu zeure buruari pose hori gizon bati eskatuko ote zeniokeen.

2. ETAPA. ESTALDURA PRESTATZEA

Argazkiak egitean edo irudiak grabatzean, GALDETU ZEURE BURUARI:

* Norbaiten pribatutasuna inbaditzen ari naiz? Hala bada, badut auke-
tarik neure burua aurkeztu, baimena eskatu edo distantziak txikitzeko?

* Sufrimendu-une pribatu horrek zer ekarpen egingo dio informazioari?
Garrantzitsua da publikoak hori ikustea?

* Argazki/hartualdi horrek kontatzen du publikoari kontatu nahi diodan
istorioa, edo egokiagoa da beste argazki bat?

* Inbaditzailea edo birbiktimizatzailea izan daitekeen distantzia batetik
ari naiz grabatzen?

* Protagonista gizon bat izango balitz, modu berean grabatuko nuke
edo egingo nizkioke argazkiak?

* Alderantzikatzeko-araua baliagarria da kasu horietan: imajinatu gizon
bat grabatu edo haren argazkiak egin behar dituzula. Zer emaitza lor-
tzen duzu? Testuinguru-informazioa ematen duelako hartualdi hori be-
harrezkoa dela pentsatzen duzu oraindik?

Informazio-pieza bat argitaratu edo emititu aurretik, GALDETU ZEURE BURUARI:

* Informazio gehiago behar dut gertaerei edo testuinguruari buruz?

* Nahikoa informazio dago argazkiaren edukia identifikatzeko?

* Zer motibazio dago argazkia argitaratzeko edo bideoa emateko?

* Zer ondorio izan ditzake argazki hori erabiltzeak?

* Nola erreakzionatuko nuke argazkian egongo banintz?

* Badago informazioa emateko beste modurik, kaltea ahalik eta txikiena
izateko eta istorioa zehaztasunez kontatzen jarraitzeko?

ARIKETA: Begiratu palestinar emakumeen edo Plo-ko emakumeen irudi hauei; zenbait hedabidetan argitaratu ziren Berun Urtua erasoaldian (2008-2009 epealdian). Horiekin batera argitaratutako testua ikusi gabe, hausnartzeko zenbait galdera proposatzen dizkizugu:

- * Nola daude irudikatuta palestinar emakumeak irudi horietan?
- * Irudi horietatik, zein da ohikoena hedabide konbentzionaletan?
- * Zein da irudi horietan ageri diren palestinar emakumeen ezaugarriak aipagarriena?
- * Zure ustez, irudi horien arabera, palestinar emakumeek egiten diete aurre amaren, emaztearen edo biktimaren rol tradizionalak?



BIDEZIDORRA. EZ AHAZTU...

Hona hemen zenbait jarraibide, azkar eta erraz egiaztatzeko zure estaldurak genero-ikuspegia eta giza eskubideen ikuspegia barne hartzen ote dituen. Ezin dira beti ideia guztiak sartu; baina, idazteko, argazkiak egiteko edo grabatzeko buruan izan badituzu, argi dago genero-ikuspegia erabiltzen hasi zarela.

- ✓ Badakit zein diren gatazkaren edo krisi humanitarioaren aurrekariak eta historia; artikulua testuinguruan jarri dut.
- ✓ Kontuan izan dut ea gatazkak eragin desberdina duen emakumeengan eta gizonengan, eta, eragin desberdinak aurkitu baditut, aipatu egin ditut.
- ✓ Askotariko iturriak erabili ditut: iturri ofizialek, zibilek edo militarrek emandako informazioa erabiltzeaz gain, gizarte zibilera, gizarte-erakundeetara eta GKE-etara ere jo dut. Informazioak egiaztatu egin ditut, eta baditut egoera agerian jartzen duten frogak.
- ✓ Gatazkaren konponbidera bideratutako analisi bat ematen saiatu naiz.
- ✓ Emakumeen ahotsak ere sartu ditut, eta subjektu aktibo gisa aurkeztu, ez soilik biktima gisa.
- ✓ Iturriak zuzen aipatu ditut, asimetria sexistak alde batera utzita.
- ✓ Genero-ikuspegiari oinarritutako analisia eman dezaketenean iturriak bilatu ditut.
- ✓ Emakumeen lana eta ekarpenak erakutsi ditut, ez emakumeen egoerari buruzko pieza espezifikoetan bakarrik, baizik eta baita gizarte zibilaren kide eta bake-eraikitzaile gisa ere.
- ✓ Generoaren araberako datuak bilatu ditut, eta, neskatoen kasuan, adinaren araberakoak ere bai.

- ✓ Oro har kontatzen ez diren edo isilarazi diren istorioak bilatu ditut. Errespetuz eta enpatiaz hurbildu naiz pertsonengana, eta emakumeen biziraupena eta jabetzea nabarmendu ditut.
- ✓ Gaien berri ematerakoan, genero-ikuspegian oinarritzen saiatu naiz, eta eguneroko bizitzako istorioak kontatu ditut, gatazkan egon arren jendea nola bizi den azaltzeko.
- ✓ Hizkuntza ez-sexista eta inklusiboa erabili dut, eta klixeak, esamoldeak eta leku komunak baztertu ditut.
- ✓ Erabili ditudan irudietan, egin ditudan argazkietan eta grabatu ditudan bideoetan, protagonistak errespetatu ditut, emakumeen eta gizonen aniztasuna irudikatu dut eta biktimizazioa eta morboa alde batera utzi ditut.

Azken batean, betaurreko moreak jantzita egin dut kazetaritza-pieza

GLOSARIOA

Ahalduntze - Jabetze

Terminoak ingelesezko *empowerment* hitzaren itzulpena da, eta pertsona edo talde gisa «ahaldunen edo botere handiagoa izatea» edo maila sozial-lean, ekonomikoan eta politikoan sendotzea esan nahi du. Emakume eta gizonen berdintasunaren testuinguruan, emakumeek bakarka eta kolektibo gisa kontzientzia hartzeko prozesua adierazten du, eta parte-hartze handiagoa ahalbidetzen die emakumeei, erabakiak hartzeko, ahala edo boterea erabiltzeko eta eragiteko ahalmena lortzeko prozesuetan. Halaber, emakumeen maila soziala, ekonomikoa eta politikoa sendotzea adierazten du. Nolanahi ere, sexuen arteko botere-harremanak murriztea edo desagerraraztea da ahalduntzearen helburua. «Botere» (edo «ahaldunen») terminoa ez da beste pertsona batzuen «gaineko boterearen» zentzuan erabiltzen, «zerbaitetarako boterearen» zentzuan baizik (adibidez, norberaren gaitasun eta trebetasunak aitortzeko, gizarte-harreman batzuetan edo guztietan eragina, boterea eta lidergoa erabiltzeko eta aitorpen horren arabera jokatzeko)¹⁸.

Androzentrismo

Androzentrismoa ez da ikuspuntu maskulinoan oinarritutako mundu-ikuskera bat, besterik gabe. Gizona gauza guztien erdian kokatzen duen ikuspegi bat da, eta onena, posible bakarra eta unibertsala balitz bezala dago ezarrita. Androzentrismoari jarraikiz, ikuspuntu maskulinoak balioa eta onarpena ematen du, eta gizonarentzat ona dena ona da gizaki guztientzat. Gauzak gizonen ikuspuntu partzialaren arabera dira garrantzitsuak, onak edo txarrak. Emakumeen aurkako diskriminazio sexistak mota bat da. Mundu-ikuskera horrek ikusezin bihurtzen ditu emakumeak eta haien lorpenak, neurri handiagoan balioesten baititu emakumeak baztertu ondoren gizonentzat geratu diren eremuak. Gainera, emakumeen protagonismoa eremu pribatura mugatzen du: bertan ematen zaie balio soziala emakumeen jardura eta jardunbideei¹⁹.

Autonomia

Autonomia emozional eta fisikoa²⁰: norberaren balioa eta autoestimaren sentimendua aitortzea, eta gorputzarekin eta osasunarekin zerikusia duten prozesu eta erabaki guztiak kontrolatzea.

Autonomia ekonomikoa: baliabide eta ondasun ekonomikoak lortzeko eta kontrolatzeko aukera.

17 2000 (Hemen lor daiteke: <http://www.dicc.hegoa.ehu.es/>), Pikara Magazineren Glosario Feminista (Hemen lor daiteke: <http://glosario.pikara.com>) eta EMAKUNDEREN genero-inpaktuko terminoen glosarioa (Hemen lor daiteke: http://www.emakunde.euskadi.eus/u72-contema/es/contenidos/informacion/glosario/es_gizonduz/glosario.html).

18 Emakunde-ren glosarioa. Hemen eskura daiteke: http://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/politicas_evaluaciones_2/es_def/adjuntos/GLOSARIO%20DEFINITIVO%20web.htm#_Toc336604477

Autonomia politikoa: oinarritzko eskubide politikoak lortzeko eta baliatzeko aukera (erakundeetan, erabaki-eremuetan eta alderdi politikoetan parte hartzeko eskubidea barne), eta prozesu horietan eragiteko ahalmena.

Autonomia soziokulturala: kultura-baliabideak eta informazioa lortzeko eta kontrolatzeko aukera.

Barne-lekualdaketa

Gatazka armatu batetik, orokor bihurtu den indarkeriatik, giza eskubideen urraketatik edo hondamendi naturaletatik ihes egiteko bere etxea utzi behar izan duen pertsona edo pertsona taldea. Lekualdaketai "barneko" esaten zaie, ihesaldia estatu beraren barruan gertatzen delako eta ez delako nazioarteko mugarik zeharkatzen. Errefuxiatuen Nazio Batuen Goi Komisarioak dioenez²¹, munduko pertsonarik kalteberenak dira, besteak beste beren gobernuaren babespean jarraitzen dutelako, nahiz eta gobernu bera ihesaldiaren arrazoietako bat izan.

Bizirik irten den pertsona

Egoera zailak gainditu duen eta bere bizitzarekin jarraitzen duen pertsonaren protagonismoa deskribatzen du. Bizirik atera diren pertsonak askotan biktima pasibo soiltzat hartzen dira, baina azpimarratu behar da, pertsona horiek (emakumeek batez ere) gaitasuna dutela beren inguruabarrak aldatzeko eta beren bizitzaren jabe izateko beharrezkoak diren neurriak aktiboki hartzeko, une zailak eta zapalkuntza edo abusuak bizi arren.

Burka

Emakume batzuek erabiltzen duten tunika; gorputza oso-osorik (burutik oinetaraino) estaltzen du eta begien aurrean saretxo bat baino ez du ikusteko. Afganistanen erabiltzen da nagusiki.

Emakumeen giza eskubideak

Emakumeen eta neskatoen eskubideak giza eskubideak dira. Nazioarteko zuzenbidearen barruan, Emakumeen aurkako Diskriminazio mota oro Desagerrarazteko Hitzarmena (CEDAW, 1979) da emakumeen giza eskubideei dagokienez izaerarik lotesleena duen tresna. Tresna horrek eremu zibil, politiko, sozial, ekonomiko eta kulturean emakumeen aurka ager daitezkeen sexu-diskriminazioko alderdi guztiak hartzen ditu kontuan, eta, ezarri duen kontrol-mekanismoaren bidez, bertan jasotako xedapenen betetze-mailari buruzko txostenak egin behar dituzte hitzarmena berretsi duten estatuak. Emakume eta neskatoen giza eskubideak nazioarteko beste hitzarmen batzuetan ere landu dira, hala nola Haurren Eskubideen Nazioarteko Hitzarmenean edo Pertsonen

19 Josetxu Riviere, Pikararen Glosario Feminista. Hemen lor daiteke: <http://glosario.pikaramagazine.com/glosario.php?lg=es&let=a&ter=androcentrismo>

20 Emakunde-ren glosarioa. Hemen eskura daiteke: http://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/politicas_evaluaciones_2/es_def/adjuntos/GLOSARIO%20DEFINITIVO%20web.htm#_Toc336604477

21 UNHCR/ACNUR: «Desplazados internos». Hemen lor daiteke: <http://www.acnur.org/a-quien-ayuda/desplazados-internos/>

22 Edurne Bengoetxea Sorozabal ikertzaileak dioenez, termino horrek adierazten du «giza eskubideen nazioarteko zuzenbidea emakumeek aurre egin beharreko arazorik premiazkoenak kontuan hartzen ez zituen ikuspegi androzentriko batean oinarritu-

Salerosketaren aurkako Nazioarteko Hitzarmenean. Giza eskubide uni-bertsalen alderdi besterenezina, integrala eta zatiezina da²² Bestalde, Pekingo Adierazpena eta Ekintza Plataforma²³, bere 12 ekintza-eremuekin, planik aurrerakoiene da emakumeen eskubideak sustatzeko, eta giza eskubideak babestea eta sustatzea gobernuen lehen erantzukizuna eta Nazio Batuen lanaren ardatza dela berresten du.

Emakumeen kontrako indarkeria

Nazio Batuen Batzar Nagusiak 1993. urtean onartutako Emakumeen aurkako indarkeria ezabatzeari buruzko Adierazpenean, honela definitu zen indarkeria mota hori: «sexu femeninokoa izateagatik jasaten den eta emaitza gisa emakumeen sufrimendu fisikoa, sexuala edo psikologikoa duen edo izan dezakeen indarkeria-ekintza oro, eta ekintza horien mehatxuak, hertsapena eta askatasunaren gabetze arbitrarioa, bizitza publikoan zein bizitza pribatuan»²⁴.

Emakumeen kontrako indarkeria kultural eta sinbolikoa

Indarkeriaren adierazpen ez-fisikoa, ezinbestekoa antolamendu mentalerako eta, hedaduraz, antolamendu sozialerako. Indarkeria mota horren bidez antolatzen da imaginario kolektiboa, nagusi den gizarte-ordena ulertu, legitimatu eta ulertzeko. Horretarako, baliabide guztiak, kultura-produkzioak eta orotariko erakundeak (erlijio-erakundeak barne) erabiltzen ditu. Izan ere, parekidetasun-eza *naturalizatu* egiten da haiei esker²⁵.

Erresilientzia

Gertaera kaltegarriak gainditzeko eta inguruabar kaltegarriak gorabehera garapen arrakastatsua izateko gaitasuna²⁶.

Feminizidio edo femizidio:

Giza Eskubideen aldeko Nazio Batuen Goi Komisarioaren Bulegoak (GENBGKBk) eta NBE Emakumeak erakundeak genero-arrazoien ondoriozko emakumeen indarkeriazko heriotzak (feminizidioak/femizidioak) ikertzeko landutako Latinoamerikako protokolo-ereduan²⁷ adierazten denez, ez dago kontzeptu horiei buruzko definizio adosturik, eta oraindik eztabaidatzen ari dira. Hala ere, ondorio praktikoetarako, honela ulertzen da: «genero-arrazoien ondoriozko emakumeen indarkeriazko heriotza, edozein pertsonak familiaren barruan, etxekoan unitatean, pertsonen arteko beste edozein harremanetan edo komunitatean eragindakoa, edota estatuak eta estatuko agenteek egitez edo ez-egitez eragindakoa edo onartutakoa».

Gatazka armatua

Gobernuko indar armatuen eta talde armatuen arteko (edo talde arma-

ta garatu dela». Eskuragarri Pikararen Glosario Feministan: <http://glosario.pikaramagazine.com/glosario.php?lg=es&let=d&ter=de-rechos-humanos-de-las-mujeres>

²³ NBE Emakumeak, Pekingo Adierazpena eta Ekintza Plataforma. Hemen lor daiteke: http://beijing20.unwomen.org/~media/headquarters/attachments/sections/csw/bpa_s_final_web.pdf

²⁴ Nazio Batuen Batzar Nagusia: «Emakumeen kontrako indarkeria desagerrarazteari buruzko Adierazpena», A/RES/48/104, 1994-02-23. Hemen lor daiteke: <http://www.un.org/es/comun/docs/?symbol=A/RES/48/104>

²⁵ Maitena Monroy, Pikararen Glosario Feminista. Hemen lor daiteke: <http://glosario.pikaramagazine.com/glosario.php?lg=es&let=v&ter=violencia-simbolica>

tuek beren arteko) etsaitasuna, talde horiek nolabaiteko antolamendu-maila dutenean eta indarkeria-maila ere handia denean; era berean, herriek askatasun osoz erabakitzeke duten eskubidea baliatuz (Genevako Hitzarmenak²⁸) menderatze kolonialaren, atzeritarren okupazioaren edo erregimen arrazisten aurka borrokatzen direnean sortzen diren egoerak. Escola de Cultura de Pau izenekoak adierazi duenez, «talde armatu erregularrek edo irregularrek bateraezintzat hartzen diren helburuekin egiten duten borroka oro da; borroka horretan, indarkeriaren erabilera jarraitu eta antolatua: a) urtean gutxienez 100 hildako eragiten ditu, edo inpaktu larria lurraldean —azpiegituren edo naturaren suntsipena— eta gizakien segurtasunean —populazio zauritua edo lekualdatua, sexu-indarkeria, elikadura-segurtasunik eza, osasun mentalaren eta gizarte-sarearen gaineko inpaktua, oinarritzko zerbitzuen etetea eta abar—; eta b) delinkuentzia arruntaren helburuekin zerikusirik ez duten helburuak lortu nahi ditu (normalean, autodeterminazio- eta autogobernu-eskaerei, identitate-helburuei, estatu bateko sistema politiko, ekonomiko, sozial edo ideologikoaren edo gobernu baten barneko edo nazioarteko politikaren kontrako borrokari —bi kasuetan boterea eskuratzeko edo higatzeko borroka sortzen da— edota baliabideen edo lurraldearen kontrolari lotutako helburuak dira)». Nolanahi ere, gatazka armatu baten arrazoiak asko eta askotarikoak dira.

Generoa

Sexu-desberdintasunaren kultura-eraikuntza, hau da, emakume eta gizonen jokabide, jarduera eta funtzio desberdinak biologikoki ezarrita egon ordez kulturalki eraikita daudela azpimarratzen duen kategoria²⁹. Naturalki eta sozialki eraikita dagoena identifikatzea ahalbidetzen duen eredu teorikoa da sexu/genero-sistema, eta, horren arabera, sexua ez da, berez, emakumeen parekidetasun-ezaren arrazoa, sozialki eraikitako genero-posizioa baizik³⁰.

Genero-ikuspegi edo -ikuspuntua

Nazio Batuen Ekonomia eta Gizarte Kontseiluak (EGK-k) dioenez, planifikatutako jarduera orok (legeak, politikak eta programak barnean hartuta) sektore eta maila guztietan emakumeentzat eta gizonentzat dituen ondorioak ebaluatzeko prozesua. Estrategia bat da, helburutzat dituena esparru politiko, ekonomiko eta sozial guztietako politika eta programak landu, aplikatu, ikuskatu eta ebaluatzen direnean emakumeen eta gizonen kezak eta esperientziak kontuan hartu beharreko elementuak izatea, emakumeek eta gizonen onura berak jasotzea eta parekidetasun-eza ez luzatzea. Azken helburua, nolanahi ere, generoen arteko berdintasuna [benetakoa] lortzea da (EGK, 1997)³¹.

26 BECOÑA, Elisardo: «Resiliencia: definición, características y utilidad del concepto», *Revista de Psicopatología y Psicología Clínica, Psikologia Kliniko eta Psikopatologiako Espainiako Elkarte*, 11. lib, 3. zk., 2006., 125. Hemen lor daiteke: [http://aepcp.net/arc/01.2006\(3\).Becona.pdf](http://aepcp.net/arc/01.2006(3).Becona.pdf)

27 GENBGKB eta NBE Emakumeak: Genero-arrazoiaren ondoriozko emakumeen indarkeriazko heriotzak (femizidioa/feminizidioa) ikertzeko Latinoamerikako protokolo-eredua. Hemen lor daiteke: <http://www.un.org/es/women/endviolence/pdf/Modelo%20de%20Protocolo.pdf>

28 Informazio gehiago: <https://www.icrc.org/es/guerra-y-derecho/tratados-de-dih-y-el-dih-consuetudinario/convenios-de-ginebra>

Genero-ikuspegia/ *Mainstreaming*

«*Mainstreaming*» edo «genero-ikuspegi» kontzeptua 1995ean Pekinen egindako Nazio Batuen Emakumeei buruzko Laugarren Mundu Konferentziaren Ekintzarako Plataformak hartu zuen bere gain esplizituki. Zehazki, politika eta programa guztietan genero-ikuspegian oinarritutako politika aktibo eta ageriko bat sustatzeko eskatu zuen, erabakiak hartu aurretik emakumeengan eta gizonengan izango zituzten ondorioak azter zitezen.

Genero-justizia

NBE Emakumeak erakundearen arabera, genero-justiziaren xedea da familiar, komunitatean, merkatuan eta estatuan emakumeen eta gizonen artean gertatzen diren parekidetasun faltak desagerraraztea. Horretarako, erakundeek (justizia administratzen dutenek zein politika ekonomikoak diseinatzeko dituztenek) kontuak eman behar dituzte emakume asko pobrezian eta bazterkerian uzten dituen justiziarik ezari eta diskriminazioari eskaintzen dioten arretaren inguruan³².

Genero-rolak

Sexu jakin bateko pertsonentzat egokiak diren gizarte-portaeren inguruko betebeharrak, onarpen, debeku eta aurreikuspenen multzoa. Ideal maskulino edo femeninoaren tipifikazioari arau-balioa ematen zaio estereotipora iristeraino, garapen pertsonalean etorkizuneko emakumeak edo gizonak bere generoaren berezkitzat hartzen diren balio multzoaren barruan bere aukeraketa pertsonala egiten badu ere. Edonola ere, genero-rolak eta genero-estereotipoak (emakumeei zein gizonei dagozkienak) hain sakonean daude errotuta, generoaren funts biologikoan adierazpentzat hartzen dira³³.

Gerraosteko berreraikuntza

Gatazka armatu baten ondorengo birgaitze- eta erreforma-prozesua. Ageriko premia materialez gain, aurre egin beharreko beste erronka batzuk daude, hala nola bakegintza, gudularien desmobilizazioa, errefuxiatuak aberriratzeko eta berriz gizarteratzeko prozesua, erakundeen eta gizarte zibilaren berreraikuntza eta indarkeriaren kultura gainditzeko prozesua. Herrialde askotan, gerratik bakerako, estatu-eredua aldatzeko edo sistema ekonomikoa aldatzeko trantsizio zaila egitea eskatzen du birgaitzeak. Hori dela eta, ez dago unibertsalki baliozkoa den gerraosteko birgaitze-eredurik³⁴.

Haur-ekontza

Ezkontza formal edo informal batean ezkontide bat edo biak 18 urtetik beherako mutikoak edo neskatok direnean gertatzen da haur-ekontza (normalean neska izan ohi da). UNICEFek dioenez³⁵, giza eskubideen

29 Hegoa - Diccionario de Acción Humanitaria. Hemen eskura daiteke: <http://www.dicc.hegoa.ehu.es/listar/mostrat/108>

30 Mujeres Fundazioa: «La primera discriminación: la teoría sexo-género». Hemen lor daiteke: http://www.mujeresenred.net/IMG/pdf/la_primera_discriminacion-2.pdf

31 NBEren Ekonomia eta Gizarte Kontseiluaren E/1997/100 Ebazpena. Hemen lor daiteke: <http://www.un.org/documents/ecosoc/docs/1997/e1997-66.htm>

32 NBE Emakumeak: «Justicia de género: clave para alcanzar los Objetivos de Desarrollo del Milenio». Hemen eskura daiteke: <http://www.unwomen.org/es/digital-library/publications/2012/4/gender-justice-key-to-achieving-the-millennium-development-goals>

urraketa da, eta, gainera, neskatoen sexu-abusu eta esplotazio motarik zabalduena. Ezkontza askatasun osoz aukeratzeko eta onartzeko eskubidea Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalean dago aitortuta. Bertan adierazten denez, baimena ezin da librea eta erabatekoa izan inplikaturako aldeetako bat bere bikotekidearen inguruko erabaki bat zentzuz hartzeko bezain heldua ez denean.

Hijab

Emakume batzuek ilea eta, zenbaitetan, lepoa estaltzeko erabiltzen duten zapia. Aurpegiaren obaloea agerian uzten du erabat, eta, beraz, ez du komunikazioa eragozten. Hijabaren tamaina, kolorea eta ipintzeko modua komunitate, herrialde edo lurralde bakoitzak dituen ohituren eta janzten duen pertsonaren asmoaren arabera da.

Errefuxiatua

Arazagatik, erlijioagatik, nazionalitateagatik, gizarte-talde jakin batekoa izateagatik edo iritzi politikoengatik jazarpena jasateko beldurraren ondorioz bere herrialdetik kanpo dagoen eta bere herrialdearen babespean egon ezin duen edo adierazitako beldurragatik bere herrialdearen babespean egon nahi ez duen pertsona, edota nazionaltaterik ez duen, adierazitako arrazoiengatik ohiko bizilekua zuen herrialdetik kanpo dagoen eta herrialde horretara itzuli ezin den edo beldurragatik itzuli nahi ez duen pertsona (Errefuxiatuen Estatutuari buruzko Konbentzioaren 1A (2) artikulua, 1967ko Protokoloan ere jaso). Herrialde batzuetako legeria nazionalen eta gizarte zibileko erakundeen proposamenen arabera, genero-identitatea, lehenespen sexuala eta genero-indarkeria asilo-arrazoitzat har daitezke "gizarte talde" bateko pertsonen taldearen barruan³⁶.

Indarkeria ekonomikoa

Legeria nazional eta eskualdeko batzuetan jasota dagoen indarkeria mota. Emakumearen eta haren seme-alaben ongizate fisiko nahiz psikologikorako baliabideak nahita eta legez justifikatu gabe kentzea edo bikotearen esparruan bienak diren baliabideak erabiltzeko diskriminazioa izango litzateke. Indarkeria mota horren ekintza-esparrua bikotea dela ezartzen duen definizio hori Emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko Nafarroako 14/2015 Foru Legean³⁷ jasota dago. Adierazi beharra dago termino hori jasotzen duen lege- edo arau-testu gutxietakoa eta lehenetako bat dela lege hori. Izan ere, NBEk ez du termino hori erabiltzen emakumeen kontrako indarkeriaren definizioan. Mugarik Gabe GKEak adierazi duene³⁸, eremu ekonomikoez hitz egiten denean, indarkeria-kasua izan ordez diskriminazio-kasua dela pentsatzen da.

33 Hegoa - Diccionario de Acción Humanitaria. Hemen lor daiteke: <http://www.dicc.hegoa.ehu.es/listar/mostrart/115>

34 Hegoa - Diccionario de Acción Humanitaria. Hemen lor daiteke: <http://www.dicc.hegoa.ehu.es/listar/mostrart/188>

35 UNICEF: «Hojas informativas sobre la protección de la infancia. Matrimonio infantil». Hemen eskura daiteke: https://www.unicef.org/spanish/protection/files/FactSheet_child-marriage_sp.pdf

36 CEAR: Discriminación y persecución por orientación sexual e identidad de género: El camino hacia una vida digna. Hemen lor daiteke: http://perseguidoslgthb.org/doc/Dossier_CEAR_WEB.pdf

Krisi humanitarioa

Gizakiaren bizitzaren, osasunaren edo iraupenaren kontrako ohiz kanpoko mehatxu orokorreko egoera. Hondamendi natural edo gatazka armatu batek areagotu duen alde aurreko babesgabetasun-egoera baten barruan agertu ohi da, eta hondamendi eta gatazka horiek areagotu egiten dituzte ondorio suntsitzaileak. Askotan, oso konplexua eta luzea izaten da, eta, eragile humanitarioez gain, beste aktore asko eta asko behar dira erantzun bat emateko, bakeari eusteko misioak, eragile politikoak eta eragile diplomatikoak barne³⁷.

Niqab

Emakume musulman batzuek batez ere Persiar golkoko lurraldeetan erabiltzen duten jantzi beltza, ilea eta lepoa estaltzen dituen zapi batez eta aurpegia alderik alde zeharkatzen duen (eta, beraz, sudurra eta ahoa estaltzen dituen eta agerian begien aldea baino uzten ez duen) belo batez osatua.

«Ohozezko» krimenak

Hitzartutako ezkontzari uko egiteagatik, onartu gabeko maitasun-harremanak edukitzeagatik, ezkontzatik kanpoko ustezko sexu-harremanak izateagatik, bortxaketa baten biktima izateagatik, harreman homosexualak izateagatik edo erlijioari uko egiteagatik familiaren desohorea ekarri duela leporatuta senitarteko batek pertsona bat (emakumea gehienetan) erailtzen duenean erabili ohi da. Termino horren bidez, kultura-balioen edo tradizioan errotutako balioen izenean justifikatzen da krimena⁴⁰ Erailketa horiek aipatzeko, «feminizidio» edo «femizidio» terminoa erabiltzea gomendatzen da (ikus definizioa Glosario honetan).

Palestinar errefuxiatuak 41

1946ko ekainaren 1etik 1948ko maiatzaren 15era bitarte Palestinan bizi ziren eta 1948ko arabiar-israeldar gerraren ondorioz etxea eta bizibidea galdu zuten pertsonak eta haien ondorengoek dute Palestinako errefuxiatu estatua. Adierazitako gerraz geroztik, erbestean denbora gehien eman duen populazio taldea dira Palestinako errefuxiatuak (5,2 milioi pertsona 65 urte baino gehiagoan), eta beren egoera zailari konponbide zuzena noiz emango zain daude. Gaur egun, Palestinako errefuxiatuak munduko iraupen luzeko errefuxiatuen % 40 dira.

Pobreziaren feminizazioa

Populazio pobrearen barruan emakumeen proportzioa gero eta handiagoa izatea, hegoaldeko herrialdeetan zein herrialde industrializatuetan. Emakumeek eta gizonek gizartean rol eta maila desberdinak izatearen ondorioz pobreziaren kausek duten genero-alderdia adierazten du. Beraz, genero-harremanen sisteman gizonen mende egoteagatik

37 14/2015 Foru Legea, apirilaren 10ekoa, emakumeen kontrako indarkeriari aurre egitekoa. Hemen lor daiteke: <http://www.lexnavarra.navarra.es/detalle.asp?r=35670>

38 Mugarik Gabe: «Debate sobre violencia económica», 2015-04-14. Hemen eskura daiteke: <http://www.mugarikgabe.org/rederradicacionviolenciasmachistas/wp-content/uploads/sites/2/2015/07/Debate-VIOLENCIA-ECONOMICA-para-blog.pdf>

39 Escola de Cultura de Pau, Bartzelonako Unibertsitate Autonomoa, Alerta 2010! Informe sobre conflictos, derechos humanos y construcción de paz, 2009. Hemen lor daiteke: <http://escolapau.uab.cat/img/programas/alerta/alerta/10/cap04e.pdf>

segurtasun-maila txikiagoa eta prekariotasun- eta kalteberatasun-maila handiagoa izatearen ondorioz emakumeek pobrezia jasateko duten arrisku handiagoa dela esan daiteke⁴².

Sexu-eskubide eta ugaltze-eskubideak

Emakumei buruzko Laugarren Mundu Konferentzia (Pekin, 1995), honela definitu zen: emakumeek eta gizonek beren sexualitatea kontrolatzeko; seme-alaben kopurua eta seme edo alaba batetik bestera utzi beharreko denbora askatasun osoz eta arduraz erabakitze (hertsadurarik, diskriminaziorik eta indarkeriarik jasan gabe); horretarako informazioa, heziketa eta baliabideak izateko; eta sexu- eta ugaltze-osasunean mailarik handiena lortzeko eskubidea.

Sexu-indarkeria

Osasunaren Mundu Erakundearen (OMEren) arabera, nahi ez den sexu-harreman oro, nahi ez den sexu-harreman bat burutzeko saioak eta nahi ez diren sexu-iruzkinak eta sexu-intsinuazioak, eta pertsona baten sexualitatea beste pertsona baten hertsapenaren bidez merkaturatzeko edo beste edozein modutan erabiltzeko ekintza, pertsona horrek biktimaekin duen harremana edozein izanik ere, eta edozein eremutan gertatzen dela ere, etxea eta lanlekua barne⁴³.

Sexu-krimenak

Sexu-indarkeriaren bidez egiten dena, nagusiki emakume eta haurren kontrakoa, hala nola bortxaketa, sexu-esklabotza eta behartutako prostituzioa, behartutako haurdunaldia edo behartutako antzutea. Nazioarteko Zigor Auzitegiaren Erromako Estatutuak gizateriaren aurkako krimentzat hartzen du, populazio zibilaren kontrako eraso handi eta sistematiko baten esparruan edota barneko edo nazioarteko gatazka armatuen esparruan egiten denean.

Sororitatea

Marcela Lagarde antropologo feministak termino hori proposatzen du esperientzia hau definitzeko: «harreman positiboak eta aliantza existentzial eta politikoa bilatzera bultzatzen duen emakumeen esperientzia (...), ekintza espezifikoek bidez gizarteaz zapalkuntza mota guztiak desagerrarazten eta emakume guztien botere generikoa eta emakume bakoitzaren bizi-ahalduntzea lortzeko elkar babesten laguntzeko»⁴⁴.

40 Informazio gehiago: Emakumeen eta neskatuen aurkako indarkeria desagerrarazteko Ezagutza Zentro Birtuala, NBE Emakumeak erakundearena: <http://www.endvawnow.org/es/articles/731-defining-honour-crimes-and-honour-killings.html>

41 UNRWA Euskadi. Informazio gehiago: www.unrwa.es eta www.unrwa.org

42 Hegoa - Diccionario de Acción Humanitaria. Hemen lor daiteke: <http://www.dicc.hegoa.ehu.es/listar/mostrartar/228>

43 Osasunaren Mundu Erakunde (OME).

44 Hiztegi feminista. Hemen lor daiteke: <https://rosacandel.es/diccionario/>

BIBLIOGRAFIA ETA LEGE MAPA

KODEAK, DEKALOGOAK ETA GIDAK

* BEGIRA - EMAKUNDE, Emakumearen Euskal Erakundea: *Publizitate eta komunikazio ez sexistarako kode deontologikoa eta autoerregulazioa*, 2016.

* BENGOCHEA, Mercedes: *Guía para la revisión del lenguaje desde la perspectiva de género (lengoaia generoaren ikuspegitik berrikusteko gida)*, Bizkaiko Foru Aldundia. Hemen lor daiteke: <http://www.bizkaia.eus/home2/Archivos/DPT01/Noticias/Pdf/Lenguaje%20Gu%C3%ADa%20lenguaje%20no%20sexista%20castellano.pdf>

NAZIOARTEKO KONBENTZIOAK, ADIERAZPENAK ETA ITUNAK

* Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala, 1948. Hemen lor daiteke: <http://www.un.org/es/universal-declaration-human-rights/>

* Emakumeen aurkako Diskriminazio mota oro Desagerrarazteko Hitzarmena (CEDAW), Nazio Batuen Batzar Nagusiak 1979an onartua. Hemen lor daiteke: <http://www.un.org/womenwatch/daw/cedaw/text/sconvention.htm>

* CEDAWren Protokolo Fakultatiboa, Nazio Batuen Batzar Nagusiak 1999an onartua. Hemen lor daiteke: <http://www.ohchr.org/SP/ProfessionalInterest/Pages/OPCEDAW.aspx>

* Genevako hitzarmenak eta protokolo gehigarriak (Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioaren parte). Hemen lor daiteke: <https://www.icrc.org/es/guerra-y-derecho/tratados-de-dih-y-el-dih-consuetudinario/convenios-de-ginebra>

* Errefuxiatuaren Estatutuaren Genevako Konbentzioa, 1951koa. Hemen lor daiteke: http://acnur.es/PDF/0005_20120511114519.pdf

* Errefuxiatuen Estatutuari buruzko Protokoloa, New York, 1967. Hemen lor daiteke: <http://www.acnur.org/fileadmin/scripts/doc.php?file=file-admin/Documentos/BDL/2001/0003>

* Emakumeen aurkako indarkeria ezabatzeari buruzko Adierazpe-

na, Nazio Batuen Batzar Nagusiak 1993an onartua. Hemen lor daiteke: <http://www.ohchr.org/SP/ProfessionalInterest/Pages/ViolenceAgainstWomen.aspx>.

* Nazioarteko Zigor Auzitegiaren Erromako Estatutuak, 2002koa. Hemen eskura daiteke: [http://www.un.org/spanish/law/icc/statute/spanish/rome_statute\(s\).pdf](http://www.un.org/spanish/law/icc/statute/spanish/rome_statute(s).pdf)

DOKUMENTUAK ETA LIBURUAK

* DACOSTA GARCÍA, Sandra: «Monitoreo de la Resolución 1325 del Consejo de Seguridad de las Naciones Unidas en los Territorios Ocupados Palestinos», in Construcción de indicadores de género. *Monitorizando la Resolución 1325 de la ONU*, Mujeres en zonas de conflicto, 2013. http://biblioteca2012.hegoa.efaber.net/system/ebooks/19731/original/construccion_de_indicadores_de_genero.pdf?1398676478

* FRANCO, Natalia; et al: *Tácticas y estrategias para contar: Historias de la gente sobre conflicto y reconciliación en Colombia*. Centro de Competencia en Comunicación para América Latina, C3 FES. Bogota, 2010.

* LÓPEZ DÍEZ, Pilar: *Los medios y la representación de género: algunas propuestas para avanzar*, in Revistas - Feminismo/s - 2008, 11, Alacanteko Unibertsitatea, Emakumeari buruzko Azterlan Zentroa, 2008.

* MCGOLDRICK, Annabel; LYNCH, Jane: *Peace journalism. What is it? How to do it? Reporting the world*, Londres, 2000. Hemen lor daiteke: https://www.transcend.org/tri/downloads/McGoldrick_Lynch_Peace-Journalism.pdf

* MEDIOS PARA LA PAZ: *Cubrimiento periodístico responsable del desplazamiento forzado interno*, Bogota, 2005-06. Hemen lor daiteke: <http://www.acnur.org/t3/fileadmin/Documentos/portugues/Publicacoes/2013/9336.pdf>

* REHN, ELISABETH; JOHNSON SIRLEAF, Elle: *Women. War. Peace*, NBE Emakumeak, 2002. Hemen lor daiteke: <http://www.unwomen.org/es/digital-library/publications/2002/1/women-war-peace-the-independent-experts-assessment-on-the-impact-of-armed-conflict-on-women-and-women-s-role-in-peace-building-progress-of-the-world-s-women-2002-vol-1>

* RICCHIARDI, Sherry: «IJNet Shares Advice for Interviewing Victims of Trauma», in Data Center, 2016-11-09. Hemen lor daiteke: <https://dartcenter.org/>

ter.org/blog/2016/11/ijnnet-shares-advice-interviewing-victims-trauma

* SANAHUJA, José Antonio: *Construcción de la paz, seguridad y desarrollo: visiones, políticas y actores*, Instituto Complutense de Estudios Internacionales, Madrid, 2012.

* UNRWA Euskadi: *Palestinako Genealogia Feminista: emakume anitzen istorioak*, Bilbo, 2016-09.

* VILLELLAS ARIÑO, María: *Procesos de paz con perspectiva de género. Inclusividad y participación*, Quaderns de Construcció de Pau, 2016-06-26. Hemen lor daiteke: http://escolapau.uab.cat/index.php?option=com_content&view=article&id=49%3Acuadernos&catid=47&Itemid=73&lang=es

* VILLELLAS ARIÑO, María: *Mujeres, paz y seguridad: la igualdad de género en las políticas de paz y seguridad*, Real Instituto Elcano, ARI 66/2016 – 2016-09-14. Hemen eskura daiteke: http://www.realinstitutoelcano.org/wps/portal/web/rielcano_es/contenido?WCM_GLOBAL_CONTEXT=/elcano/elcano_es/zonas_es/ari66-2016-villellasarino-mujeres-paz-seguridad-igualdad-genero-politicas

* ZENBAITEN ARTEAN: *Buenas prácticas periodísticas desde la perspectiva de género*, AMECO, Madrid, 2010.

* ZENBAITEN ARTEAN: *La comunicación de género e inclusiva en tiempo de crisis*, AMECO, Madrid, 2013.

TXOSTENAK

* Komunikazio Kristaurako Munduko Elkarte (WACC): *¿Quién figura en las noticias? El Proyecto de Monitoreo Global de Medios 2015*, 2015-11. Hemen eskura daiteke: http://cdn.agilitycms.com/who-makes-the-news/Imported/reports_2015/global/gmmp_global_report_es.pdf

* Emakumeei buruzko Laugarren Mundu Konferentziaren txostena (Pekin, 1995): <http://www.un.org/womenwatch/daw/beijing/pdf/Beijing%20full%20report%20S.pdf>

* Ministry of Women's Affairs, Palestinian National Authority: *National Strategy to Combat Violence Against Women 2011-2012*. Hemen lor daiteke: <http://mowa.pna.ps/English%20Part.pdf>

* OCHA: *'The Gaza Strip: The Long Term Impact of the 2014 Hostilities on Women and Girls | December 2015'*, 2016-01-06an argitaratua. Hemen

lor daiteke: <http://www.ochaopt.org/content/gaza-strip-long-term-impact-2014-hostilities-women-and-girls-december-2015>

* NBE Emakumeak: *Pekingo Adierazpena eta Ekintza Plataforma. Pekin+20ko 1995eko adierazpen politikoa eta dokumentuak, Nazio Batuak, 2014an berrargitaratuak*. Hemen eskura daiteke: http://beijing20.unwomen.org/~media/headquarters/attachments/sections/csw/bpa_s_final_web.pdf

* UN Women, Palestinian National Authority: *Cross-Sectorial National Gender Strategy: Promoting Gender Equality and Equity 2011-2013*. Hemen lor daiteke: <http://www.unwomen.org/~media/headquarters/media/publications/en/unwomenoftfullpalestiniangenderstrategy2011.pdf?vs=949>

* http://apps.who.int/iris/bitstream/10665/253084/1/A69_44Add1-sp.pdf?ua=1

* UN Women, *Preventing conflict, transforming justice, securing peace. A Global Study on the Implementation of the United Nations Security Council Resolution 1325, New York, 2015*. Hemen lor daiteke: <http://wps.unwomen.org/resources/>

* UNICEF: *Reimaginar el futuro. Innovación para todos los niños y niñas. Estado mundial de la infancia 2015. Laburpena*. Hemen lor daiteke: https://www.unicef.org/spanish/publications/files/SOWC_2015_Summary_Spanish_Web.pdf

* UNRWA: *UNRWA experience in Gender based Violence programming: lessons from the first five years*, UNRWA, 2015. Hemen eskura daiteke: <https://www.unrwa.org/resources/reports/unrwa-experience-gbv-programming-lessons-first-five-years>

GENERO-IKUSPEGIA DUTEN KOMUNIKABIDEAK ESTATU ESPAINOLEAN

* Ameco Press <http://www.amecopress.net/>

* La Independent <http://www.laindependent.cat/index.php?lang=es>

* Tribuna Feminista <http://www.tribunafeminista.org/>

* Pikara Magazine <http://www.pikaramagazine.com/>

* LolaMora Producciones: <http://lolamora.net/>

NAZIO BATUEK EMAKUMEEI, BAKEARI ETA SEGURTASUNARI BURUZ HARTUTAKO EBAZPENAK:

<http://wps.unwomen.org/resolution/>

* 1325 Ebazpena, 2000koa: [http://www.un.org/es/comun/docs/?symbol=S/RES/1325%20\(2000\)](http://www.un.org/es/comun/docs/?symbol=S/RES/1325%20(2000))

* Emakumeek eta neskatoek gatazkaren ondorengo erbestearatzean, birkokatzean, birgaitzean, birgizarteratzean eta berreraikuntzan dituzten premia bereziak kontuan hartuko dituen genero-ikuspegia bultzatzen du. Halaber, gatazkak konpontzeko erabakiak hartzeko prozesu eta bake-prozesu guztietan emakumeek parte-hartze handiagoa izateko eskatzen du.

* NBE Emakumeak erakundeak 1325 Ebazpenari buruz egindako txostena: <http://wps.unwomen.org/~media/files/un%20women/wps/highlights/unw-global-study-1325-2015.pdf>

* 1820 Ebazpena, 2008koa: sexu-indarkeria gerrako armatzat hartzen du lehen aldiz. [http://www.un.org/es/comun/docs/?symbol=S/RES/1820%20\(2008\)](http://www.un.org/es/comun/docs/?symbol=S/RES/1820%20(2008))

* 1888 Ebazpena, 2009koa: 1820 Ebazpena berresten du. [http://www.un.org/es/comun/docs/?symbol=S/RES/1888%20\(2009\)](http://www.un.org/es/comun/docs/?symbol=S/RES/1888%20(2009))

* 1889 Ebazpena, 2009koa: 1325 Ebazpena sendotzeko eta haren betetze-mailaren jarraipena egiteko eskatzen du. [http://www.un.org/es/comun/docs/?symbol=S/RES/1889%20\(2009\)](http://www.un.org/es/comun/docs/?symbol=S/RES/1889%20(2009))

* 1960 Ebazpena, 2010ekoa: kontuak emateko sistema bat eskaintzen du, gatazka-egoerei lotutako sexu-indarkeriari aurre egiteko. Adibidez eskatzen du, urtero erasotzaileen zerrendak eta sexu-indarkeriako ekintzak egin izanaren edo erantzule izatearen susmagarrien txostenak egiteko. [http://www.un.org/es/comun/docs/?symbol=s/res/1960%20\(2010\)](http://www.un.org/es/comun/docs/?symbol=s/res/1960%20(2010))

* 2106 Ebazpena, 2013koa: aurreko ebazpenen (1325, 1889, 1820 eta 1960 Ebazpenen) funtzionamenduari buruzko xehetasun gehiago ematen ditu. [http://www.un.org/ga/search/view_doc.asp?symbol=S/RES/2106\(2013\)&referer=/english/&Lang=S](http://www.un.org/ga/search/view_doc.asp?symbol=S/RES/2106(2013)&referer=/english/&Lang=S)

* 2122 Ebazpena, 2013koa: aurreko guztiak osatzen ditu, eta lan-egutegi bat ezartzen du. [http://www.un.org/es/comun/docs/?symbol=S/RES/2122\(2013\)](http://www.un.org/es/comun/docs/?symbol=S/RES/2122(2013))

NAZIO BATUEK PALESTINAKO EREFUXIATUEI BURUZ HARTU-TAKO EBAZPENAK

* 181 Ebazpena, Batzar Nagusiarena, 1947ko azaroaren 29koa, Palestina historikoa estatu judu batean eta estatu arabiar batean banatzeari eta Jerusalemgo hirirako nazioarteko erregimen bat ezartzeari buruzkoa. [http://www.un.org/es/comun/docs/?symbol=A/RES/181\(II\)](http://www.un.org/es/comun/docs/?symbol=A/RES/181(II))

* 194 Ebazpena, Batzar Nagusiarena, 1948ko abenduaren 11koa, Nazio Batuen Palestinako bitartekariak kudeaketetan egindako aurre-rapenari eta errefuxiatuak beren etxera itzultzeari buruzkoa. [http://www.un.org/es/comun/docs/?symbol=A/RES/194\(III\)&Lang=S&Area=RESOLUTION](http://www.un.org/es/comun/docs/?symbol=A/RES/194(III)&Lang=S&Area=RESOLUTION)

* 242 Ebazpena, Segurtasun Kontseiluarena, 1967ko azaroaren 22koa, Ekialde Ertainean bake iraunkorra eta bidezkoa ezartzeko eta Israelgo indar armatuak okupatutako lurraldeetatik joateko beharrari buruzkoa. [http://www.un.org/es/comun/docs/?symbol=S/RES/242%20\(1967\)](http://www.un.org/es/comun/docs/?symbol=S/RES/242%20(1967))

* 338 Ebazpena, Segurtasun Kontseiluarena, 1973ko urriaren 22koa, su-eteteari eta 242 Ebazpenaren aplikazioari buruzkoa. [http://www.un.org/es/comun/docs/?symbol=S/RES/338%20\(1973\)](http://www.un.org/es/comun/docs/?symbol=S/RES/338%20(1973))

* 3236 Ebazpena, Batzar Nagusiarena, 1974ko azaroaren 22koa, Palestinako herriak Palestinan dituen eskubide besterenezinei buruzkoa. [http://www.un.org/es/comun/docs/?symbol=A/RES/3236\(XXIX\)](http://www.un.org/es/comun/docs/?symbol=A/RES/3236(XXIX))

* 446 Ebazpena, Segurtasun Kontseiluarena, 1979ko martxoaren 22koa, Israelek 1967. urteaz geroztik Palestinan okupatutako lurraldeetan ezarritako kokaguneen legezko baliorik ezari buruzkoa. [http://www.un.org/es/comun/docs/?symbol=S/RES/446%20\(1979\)](http://www.un.org/es/comun/docs/?symbol=S/RES/446%20(1979))

* 452 Ebazpena, Segurtasun Kontseiluarena, 1979ko uztailaren 20koa, okupatutako lurralde arabiarretan kokaguneak ezartzeari eta gerra-garaian pertsona zibilak zaintzeko beharra ezartzen duen Genevako Hitzarmenaren urraketari buruzkoa.

[http://www.un.org/es/comun/docs/?symbol=S/RES/452%20\(1979\)](http://www.un.org/es/comun/docs/?symbol=S/RES/452%20(1979))

* 476 Ebazpena, Segurtasun Kontseiluarena, 1980ko ekainaren 30koa, Israelek 1967. urteaz geroztik okupatutako lurralde arabiarren okupazioa (Jerusalemgoa barne) amaitzeko beharrari buruzkoa. [http://www.un.org/es/comun/docs/?symbol=S/RES/476%20\(1980\)](http://www.un.org/es/comun/docs/?symbol=S/RES/476%20(1980))

* 478 Ebazpena, Segurtasun Kontseiluarena, 1980ko abuztuaren 20koa, Jerusalemgo Legeari buruzkoa.[http://www.un.org/es/comun/docs/?symbol=S/RES/478%20\(1980\)](http://www.un.org/es/comun/docs/?symbol=S/RES/478%20(1980))

* 2334 Ebazpena, Segurtasun Kontseiluarena, 2016ko abenduaren 23koa, Israelek 1967. urteaz geroztik Palestinan okupatutako lurraldean (Jerusalem ekialdean barne) kokaguneak ezartzearen legezko baliorik ezari buruzkoa.[http://www.un.org/es/comun/docs/?symbol=S/RES/2334\(2016\)](http://www.un.org/es/comun/docs/?symbol=S/RES/2334(2016))

WEBGUNEAK

* UNHCR/ACNUR: <http://acnur.es/>

* Nazio Batuen Emakumeei buruzko Mundu Konferentziak: <http://www.unwomen.org/es/how-we-work/intergovernmental-support/world-conferences-on-women>

* Emakumeen Egoera Juridiko eta Sozialaren Batzordea: <http://www.unwomen.org/es/csw>

* Emakumeen aurkako Diskriminazioa Desagerrarazteko Batzordea: <http://www.ohchr.org/en/hrbodies/cedaw/pages/cedawindex.aspx>

* Nazio Batuen Giza Eskubideen aldeko Goi Komisarioaren Bulegoa (GENBGKB): <http://www.ohchr.org/SP/Pages/Home.aspx>

* OME: www.who.int / <http://www.emro.who.int/pse/publications-who/>

* NBE Emakumeak: www.unwomen.org

* UNICEF: <https://www.unicef.org/>

* UNRWA: <http://www.unrwa.es/> eta www.unrwa.org

* ORIGEN (Observatori Regular per la Igualtat de Gènere en Noticiaris): <http://observatoriorigen.org>

* Institute of Women Studies, Birzeit University: <http://www.birzeit.edu/en/institutes-centers/iws>

* Ministry of Women's Affairs, Palestinian National Authority: <http://www.mowa.pna.ps/en/>

ERANSKINA PALESTINAKO LURRALDE OKUPATUKO (PLO-KO) EGOERA HUMANITARIOAREN GENERO-ANALISIA

1948ko

lehen arabiar-israeldar gerratik
65 urte igaro eta 720.000 palestinar
etxea utzi eta errefuxiatu bihurtu on-

doren (5,2 milioi pertsona orain arte), eta Israelen okupazio militarrek
50 urte eta Gazako Zerrendako blokeoak 2017an 10 urte bete ondoren,
Palestinako lurralde okupatuaren etorkizunak ez du baikortasunerako
aukera handirik ematen.

Israelek gatazkaren, okupazioaren eta blokeoaren inguruan jarraitutako politikek eta jardunbideek sistematikoki urratzen dituzte Palestinako herritarren giza eskubideak, oro har, eta **Palestinako errefuxiatuenak**, bereziki. Horren ondorioz, palestinar horiek krisi humanitario eta babes-krisi luze batean bizi dira. Adierazitako politikek, gainera, lurraldea zatikatzen dute eta eskualderako bake- eta egonkortasun-ekimen oro zapuzten dute. Izan ere, Israelek errefuxiatuen eremuetan egiten dituzten sarraldiek edota Gazako Zerrendako erasoaldi militarrek (Hegi Babesgarria izenekoak, adibidez) hildako eta zauritu asko eragiten dituzte, eta azpiegitura eta gizarte-sare ugari suntsitzen. Hegi Babesgarria izeneko operazioan, 2.200 palestinar baino gehiago hil (538 adingabe eta 306 emakume barne), 11.100 zauritu eta 151.000 etxe suntsitu zituzten (baita azpiegitura zibilak ere, hala nola ospitaleak edo elektrizitatea sortzeko instalazioa). Bestalde, politika horiek **eragin desberdina dute gizonengan eta emakumeengan edo- ta mutiko eta neskatoengan, genero-dimentsioak** oso espezifikoak baitira.

Palestinako lurralde okupatuan, 4,8 milioi pertsona bizi dira, eta, haie-tatik, % 49,2 emakumeak dira. Zisjordanian, okupazio militarreko erre-gimenean, 2,97 milioi pertsona bizi dira⁴⁵; Gazako Zerrendan, berriz, 1,91 milioi, 2007. urteaz geroztik ondasunak eta pertsonak sartu eta ir-teteko blokeo baten eta okupazio militarren mende. Herritarren % 40 inguruk 15 urte baino gutxiago dute, eta biztanleriaren hazkunde-tasa % 2,9koa da, hau da, eskualdeko handienetakoa. Palestinako lurralde okupatuan bizi diren 5 pertsonetatik bat 18 urte baino gutxiagorekin ezkontzen da⁴⁶. Erregistratutako errefuxiatuak 2,1 milioi inguru dira Plo-an (ia erdiak). Zisjordaniako herritarren % 33 eta Gazako Zerrendako herritarren % 71 (1,3 milioi) dira. Errefuxiatuak direnez gero, gatazkari lo-tutako herritarrik kalteberenetakoak dira.

Palestinako familien % 27k, 1,6 milioi lagunek, elikadura-ziurgabeta-suna jasaten du (Gazako familien % 47k, Zisjordaniakoen % 16k, erre-fuxiatu-esparrietakoen % 39k eta emakumeak familiaburu direnen % 32k)⁴⁷, arrazoi hauengatik batik bat: okupazioa, gatazka, pertsonen eta ondasunen mugikortasunaren aurkako murrizketak, prezio-igoera eta langabezia-tasa, geroz eta handiagoa. Populazioaren % 26,6 era-bateko pobrezian bizi da (Zisjordanian, % 18,4 eta Gazan, % 40,3), egu-nean 3,5 dolar baino gutxiagorekin, kalkulu horiek adierazten dutenez. Horren ondorioz, Gazako Zerrendako familien % 80 laguntza huma-nitarioaren mende bizi dira. Gatazkaren, eta ondasunak eta pertsonak mugitzeko murrizketak, behartutako lekualdaketak eta etxeen eta bi-zibideen eraispenak dakartzaten okupazio-politiken eta blokeoaren emaitza da hori guztia⁴⁸.

2016. urtean, langabezia-tasa % 42ra iritsi zen Gazako Zerrendan (% 60ra emakumeen kasuan, eta % 35,9a gizonen kasuan), eta % 15,4ra Zis-jordanian (% 26,7ra emakumeen kasuan eta % 15era gizonen kasuan). Gazako Zerrendan, tasa hori % 62ra iritsi zen 15-29 urteko gazteen kasuan, % 82,6ra emakume gazteen kasuan eta % 43,7ra errefuxia-tuen kasuan⁴⁹. Bestalde, oso baxua da Palestinako emakumeen par-taidetza-tasa lan indarrean (% 19,4koa), gizonezkoenarekin alderatuta (% 71,5ekoa). Soldatetan ere ikusten da emakumeen eta gizonen arteko aldea: gizonen soldataren % 73koa izan zen Palestinako emakumeen batez besteko soldata egunean⁵⁰. Emakumeek oso leku txikia dute lan-merkatuan, eta, horregatik, emakume askok sektore informalean egiten du lan, eze-gonkortasun handiagoko baldintzetan.

Azken hamarkadetan emakumeen alfabetatze-tasak gora egin badu ere (% 95,2ra iritsi zen 2016. urtean), arraila gizonen aldekoa da oraindik ere, eta % 3,4ko aldea dago ⁵¹ Palestinako hezkuntza-sistemak eze-gonkortasuna eta indarkeria nagusi diren ingurune batean jardun be-

45 *Palestinians at the end of 2016*, PCBS, 2017, y *Humanitarian needs overview 2017. Occupied Palestinian territories*. OCHA tPo, noviembre de 2016.

46 *Press release on the occasion of Women's International Day 2017*, PCBS.

47 OCHA tPo; *2016 Humanitarian Needs Overview (complete document and Dashboard)*, noviembre 2015.

48 OCHA oPt.

49 OCHA tPo; *2017: Humanitarian Needs Overview*, OCHA tPo, noviembre 2016 y *The Gaza Strip: The long-term impact of the 2014 hostilities on women and Girls*, diciembre de 2015.

50 *Press release on the occasion of Women's International Day 2017*. PCBS.

har du. Hala ere, parekotasuna lortu da lehen hezkuntzako eskoletan, eta, bigarren hezkuntzakoetan, gizonena baino handiagoa da emakumeen matrikulazio-tasa⁵². Operazio militarrek eta kolonoen erasoak eskola-orduetan gertatzen dira, eta, zenbaitetan, adingabeak zauritzen dituzte zuzenean. Hori dela eta, milioi erdi haurrek laguntza humanitariora behar dute eskolara seguru joateko. Kalkulatutakoaren arabera, 10. mailan eskola uzten duten haurren proportzioa % 40koa da.

Mugitzeko muga fisiko eta administratiboen (hala nola Harresiaren) edo Israeliek jartzen dituen kontrol militarren ondorioz, komunitate batzuek ibilbide luzeagoak (2-5 aldiz luzeagoak) egin behar dituzte gizarte-zerbitzuak, hezkuntza-zerbitzuak eta osasun-zerbitzuak jasotzeko. Zirkulazio-mugek herritar guztiei eragotzen diete osasun-laguntza, baina emakumeek eta haurrek arrisku bereziak dituzte. Elikagaien segurtasunik ezaren eta mikromantenugaietan urria den dietaren ondorioz, 9-12 hilabeteko haurtxoen % 70ek eta haurdun dauden emakumeen % 35ek anemia du. Israelen Hegi Babesgarria izeneko eraso militarrean, haurdun zeuden Gazako 40.000 emakume osasun-zerbitzuak jasotzeko aukerarik gabe geratu ziren osasun-zentroetara joateko zailtasunengatik. Gazako Zerrendaren okupazioaren eta blokeoaren ondorioz, elektrizitate-eteteak izaten dira, sendagaiak falta dira, oso zaila da minbizia eta antzeko gaixotasunak tratatzeko osasun-ekipamenduak sartzea, eta, horri guztiari, eraso horietan gertatzen diren osasun-azpiegituren suntsipena gaineratu behar zaio.

Indarkeriak eragindako trauma psikologikoak, pobreziak eta ingurumenaren degradazioak eragin negatiboa dute herritarren osasun fisiko eta mentalean. Pertsona bakoitzak egunean kontsumitzen dituen ur-litroen batezbestekoa 82,2koa da Plo-an (84,3 litrokoa Zisjordanian eta 79,2 litrokoa Gazan)⁵³, hau da, Osasunaren Mundu Erakundeak pertsona bakoitzeko gomendatutako 100 litroak baino txikiagoa. Gazako Zerrenda hornitzen duen akuiferoaren % 95 baino gehiago kutsatuta dago, eta ez ditu betetzen giza kontsumorako nazioarteko estandarrak. Aurreikusitakoaren arabera, 2020. urterako atzeraezina izango da Gazako akuiferoak jasandako kaltea⁵⁴. Saneamendu-sistema egokirik ez izatearen ondorioz, tratatu gabeko edo partzialki tratatutako 95 milioi litro hondakin-ur isurtzen dira egunean Mediterraneora, Gazako Zerrendako itsasertzera.

Gazako familien % 40k astean bi egunetan edo gutxiagotan eta 5-8 ordutan izaten dute iturriko ura, eta familien % 28 ez dago konektatuta hondakin-uren kanalizazio-sistemara⁵⁵. Hori dela eta, emakumeek denbora gutxiago dute beren premiei erantzuteko eta diru-sarrerak ekarriko dizkieten jarduerak egiteko. Rolan banaketa tradizionalaren

51 Press release on the occasion of Women's International Day 2017. PCBS.

52 Ibidem.

53 Press release on the occasion of Water Day 2017. PCBS.

54 *Gaza in 2020, a Liveable Place?* UNRWA, agosto 2012.

55 2017 Humanitarian Needs Overview, OCHA tPo, noviembre de 2016.

ondorioz, emakumeak eta neskatoak arduratu ohi dira nagusiki etxeke lanez, hala nola denbora asko eskatzen duen ur-horniduraz.

Segurtasunaren aurkako mehatxuak eta giza eskubideen urraketak etengabeak dira. OCHA erakundeak kalkulatu duenaren arabera, Palestinako lurralde okupatuko herritar guztiek behar dute babes. 1,8 milioi arrisku handia dute (laguntza psikosoziala eta babes behar duten 265.000 hurrek barne), polizia-indarrek Zisjordanian atxilotutako 1.200 hurrek lege-laguntza behar dute, Zisjordaniako 67 komunitetetan bizi diren 350.000 pertsona inguru kalteberak dira kolonoen indarkeriaren aurrean, eta 294.000 emakumek genero-indarkeriaren arretarako zerbitzuen premia dute.

Palestinako Estatistika Bulego Nagusiak (PCBSk) 2011. urtean Plo-ko genero-indarkeriari buruz egindako inkestako datuen arabera, Palestinako 15-49 urteko emakume ezkonduen % 58,6k bizitzan behin gutxienez bere bikotekidearen indarkeria psikologikoa jasan du, % 23,8k indarkeria fisikoa eta % 11,8k sexu-indarkeria. NBE Emakumeak erakundeak adierazi duenez, erregistratutako feminizidio-kasuak (gaizki deitutako «ohorezko krimenak») 12 izan ziren 2012. urtean, eta 28 2013an. 2017ko maiatzean, 57 emakume palestinar preso zeuden Israelgo espetxeetan, eta horietako 13 adingabeak ziren. 2000. urtean hasitako Intifadaz geroztik, giza eskubideen eremuko erakundeek 1.500 atxilotze erregistratu dituzte emakumeetan⁵⁶. Emakume horiek arazo espezifikoak dituzte, hala nola arreta medikoa lortzeko zailtasuna, espetxean erditzeko arriskua edo sexu-jazarpena. Zenbaitetan, gainera, beren komunitateek ere baztertu egiten dituzte.

Plo-ko emakumeek oso errotuta dauden erakunde-diskriminazioari, lege-diskriminazioari eta gizarte-diskriminazioari egin behar diete aurre, Israelen okupazioak eta blokeoak areagotutako gizarte patriarkalaren eta sistema juridiko zaharkituaren ondorioz. Plo-ko egungo esparru juridikoa Jordania, Egipto, Palestina, Turkia eta Britainia Handiko legeen eta Israelgo legeria militarren arteko nahasketa bat da. Lege horietako asko diskriminatzaileak dira, eta artikulu batzuek arindu egiten dituzte indarkeria-kasuetako epaiak, «famiaren ohorea» jokoan dagoenean. Emakumeei etxebizitzak edo lurak edukitzea ofizialki eragozten ez bazaie ere, *shariak* gizonezko bati legokiokeen jaraunspenaren erdia esku-ratzea baino ez die ahalbidetzen emakumeei. Gainera, senideek eskubideei uko egitera edota legez dagokiena baino zati txikiagoa onartzera bultzatzen dituzte auzitegietatik kanpo.

Parte-hartze politiko eta sozialari dagokionez, emakume palestinarrek oso neurri txikian daude ordezkatuta esparru publikoetan eta erabakiak

56 Press Release on the Occasion of Palestinian Prisoners' Day, on 17th April. PCBS 2017.

hartzen diren esparruetan. 2006ko legegintza-hauteskundeetan, botoa eman zuten pertsonen % 46 emakumea izan bazen ere, hautagaien % 11 baino ez zen emakumea, eta Palestinako Legegintza Kontseiluko eserlekuen % 12,9 baino ez zen izan emakumeentzat. Palestinar Agintearen 17 ministerioetako hiru daude emakumeen esku. Epaileen % 17,2, inskribatutako abokatuen % 22,5, sindikatueta gizar-te-ingeniarieen % 21,1 eta funtzionario publikoen % 16,7 dira emakumeak.

Rol-banaketa tradizionalari jarraikiz emakumeei etxeko lanak eta gizonei etxetik kanpoko soldatoko lanak badagozkie ere, eraildako, zauritutako edo preso hartutako gizonen kopuru handia dela eta, emakume palestinarrek askoz zeregin garrantzitsuagoa betetzen dute familiaren zaintzan eta mantenuan, uraren eta janariaren horniduran eta seme-alaben hezkuntzan. Gero eta familia gehiagok dute emakume bat buru (2016ko datuen arabera, proportzioa % 11koa da Palestinako lurralde okupatuan, % 12,1koa Zisjordanian eta % 9koa Gazako Zerrendan)⁵⁷ Hala ere, Palestinako emakumeek aukera gutxi dituzte lan-merkatu formalean, eta, beraz, asko eta asko sektore informalean aritzen dira, nekazari, jostun edo saltzaile gisa, gehienetan egoera larrietan eta eskubiderik gabe.

2014. urtean Gazako Zerrendan egindako eraso militarren ondoren, emakumeek eta neskatoek erantzukizun gehiago hartu dituzte beren gain, eta deprimituta sentitzen dira askotan, egoerak gaingiduta, estresatuta edota bat-bateko galeren edo erantzukizun guztien ondorioz. Zenbaitetan, familiaburuak dira, eta seme-alaben mantenu ekonomiko eta emozionalaz arduratzen dira. Zaintzarekin eta bizitzaren mantentzearekin lotuta dagoen eta normalean ikusten ez den lan horri esker egin diezaiekete aurre komunitateek Israelen okupazio eta blokeoaren inportuei. Rol-aldaketa horrek, aldi berean, gizonen depresioa, estresa eta desahalduntzea eragiten edo areagotzen du. Izan ere, gizonak ez dira gai familiaren premiarik oinarritzkoenei erantzuteko (bizi diren gizar-te patriarkalak erakutsi dienaren arabera), eta horrek genero-indarkeria dakar askotan.

⁵⁷ Press release on the occasion of Women's International Day 2017. PCBS.

ESKERRAK EMATEA

EITBko, TVEko eta Telecincoko informazio-zerbitzuen dokumentazio-zerbitzuei, gida honen parte den Objektibotik kanpo azterlanerako beharrezkoak ziren telebista-argazkiak eskuratzeko emandako laguntzagatik; Isabel Pérez, Samara Velte eta Fran Sevilla kazetariei, azterlanari eta gidari egindako ekarpenagatik; eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziari, emakume palestinar errefuxiatuekin agertutako elkartasunari eta gida hau bezalako gizarte-sentsibilizazio eta gizarte-eraldaketarako ezagutza-proiektuak garatzeko emandako laguntza ekonomikoari esker argitalpen hau egitea ahalbidetzeagatik.

Eskerrik asko denoi.

[illegible]

This image shows a full page of white paper with horizontal dashed lines, typical of primary school writing paper. The lines are evenly spaced and run across the width of the page. There are no margins, text, or other markings on the paper.

This image shows a full page of white paper with horizontal dashed lines, typical of primary school writing paper. The lines are evenly spaced and run across the width of the page. There are no margins, text, or other markings on the paper.

[illegible]

